

# ZALDIBIA



2019-2023  
LEGEALDIAREN LABURPEN-BILDUMA









# ZALDIBIA

2019-2023

LEGEALDIAREN LABURPEN-BILDUMA



## ZERBITZU PUBLIKOAK

### UDALEKO HARRERA BULEGOA

#### Harrera ordutegia:

Astelehenetik ostegunera 08:30etik 16:00etara /  
Ostiraletan 08:30etik 15:30era

☎ 943 880 357

posta: bulegoa@zaldibia.eus

www.zaldibia.eus

Whatsapp kanala: 680 795 473

(Bidali INFORMAZIOA hitza)

Telegram kanala: t.me/zaldibia

### GIZARTE ONGIZATE ZERBITZUA

#### Harrera ordutegia:

Astelehenetan eta ostegunetan

9:00etatik 13:00etara

☎ 943 882 000

posta: gizarte@zaldibia.eus

### KULTUR ZERBITZUAK

#### Karreane kultur etxea:

Astelehenetik ostiralera 12:30etik 19:30era

☎ 943 160 338

posta: kulturetxea@zaldibia.eus

**Liburutegia:** Astelehenetik ostiralera

16:00etatik 19:30era

### HEZKUNTZA ZERBITZUAK

**Lardizabal herri ikastetxea** ☎ + 📠 943 884 251

posta: idazkaritza@lardizabal.eus

www.lardizabal.eus

**Haurreskola** ☎ + 📠 943 884 019

posta: zaldibia.zaldibia@haurreskolak.eus

### HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUA

#### Sasieta mankomunitatea

(orokorra: traste zaharrak, zerbitzu tekniko...)

☎ 943 161 555

Posta: info@sasieta.eus

**Akabatutako animaliak biltzeko zerbitzua**

☎ 943 112 348

### HILERRIKO ZERBITZUA

Udaletxeko Harrera ☎ 943 88 03 57

Asteburu eta jai egunetan ☎ 635 717 150

### OSASUN ZERBITZUAK

**Medikuaren txanda hartzeko** ☎ 943 880 027

**Zaldibiako farmazia** ☎ 943 884 548

#### Guardiako farmaziak:

· Urte osoan, astelehenetik larunbatera:

Jorge de la Cuesta, Zelaeta kalea 1, Beasain · ☎ 943 880 587

· Asteburu eta eguerdiko guardiak Zaldibiako farmazian  
agertuko dira.

### OSASUN ZENTROAK

Zaldibiako mediku kontsultategia ☎ 943 880 027

Ordiziako mediku kontsultategia ☎ 943 007 635

Beasaingo mediku kontsultategia ☎ 943 027 700

### LARRIALDIAK

Orokorra ☎ 112

DYA ☎ 943 464 622

Anbulantziak ☎ 943 330 330

### GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI

#### LAGUNTZEKO TELEFONOA

24 ordukoa, doakoa eta isilpekoa ☎ 900 840 111

### HAURREI ETA NERABEEI LAGUNTZEKO TELEFONOA

ZEUK ESAN ☎ 116 111

Urteko egun guztietan.

Astelehenetik ostiralera: 09:00 -21:00

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 12:00-20:00

### GARRAIO ZERBITZUA

Autobus zerbitzua: Goierriko Lurraldebus ☎ 900 300 340

### UDALAZ KANPOKO HAINBAT ZERBITZU

**Bake epaitegia:** ☎ 943 597 140

Astelehenetan 9:00etatik 14:00etara eta

ostegunetan 9:00etatik 11:30era

**Naturgas** ☎ 900 400 523 (larrialdia)

**Iberdrola** ☎ 900 171 171 (matxurak)

**Telefonica** ☎ 1004 (informazioa) 1002 (matxurak)

**Euskaltel** ☎ 1717 (informazioa)

**Goienar** ☎ 900 816 365

**Izarkom** ☎ 943 569 214

## ZALDIBIAKO INFORMAZIOA ZURE ESKURA



TELEGRAM KANALA:

<https://t.me/zaldibia>  
taldea gehitu behar zara Telegrametik

Mezuak eskuz jarri behar dituzi baina  
aurretik izango dituzte telegrametik  
eskaerak dituen hizkuntza guzietara  
itazteko.







Kaixo herritar,

Esku artean duzun liburu hau 2019-2023 legealdiak eman duenaren bilduma bat da, udalgintzaren begiradatik egina. Guztia ez da hemen jasoa egongo, laurteko batek askorako ematen baitu, baina nabarmenenak biltzen saiatu gara, nagusiki bi helbururekin:

Batetik, lau urteko honetako jardunaren puska bat herritarrei helarazteko. Batez ere, egin dena eta egiten ari garena jaso da, baina aurrera begira gizarte, herri eta udal bezala datozkigun erronkei ere aipamena egin zaie.

Ikusiko duzunez, liburua nolabait antolatzeko arloka egituratu da eta guztietan daude arloetako arduradun izan diren herri-ordezkarien hitzak, arloko udal-langile edota bestelako eragileetako kideei egindako elkarrizketak, eta lau urteotan esku artean izan diren gaiak, nabarmenenak eta bilduma gisa motzean jasotakoak.

Arloez gain, legealdi honen ezaugarri orokorrak eta udalean ordezkaritza izan duten udal-talde politikoen tarteak ere biltzen ditu liburuak, baita herritarrei udaleko zerbitzuen inguruan baliagarri izan dakizuen hainbat informazio ere.

Bestetik, digitalizazioan murgilduta gauden garaian eta guztia airean edo hodeian mugitzen den honetan, patxadaz, eskuez ukituz, orain nahiz urte batzuk barru irakurri, erabili eta gorde ahal izateko euskarri bat izatea nahi genuen herriko etxe guztietan.

Hemen aurkituko duzuna ez da testu soila. Bilduma irakurterraza eta arina egin nahi izan dugu, irudi eta ekarpen ugariz lagundua. Era berean, eta liburuek izan dezaketen finkotasuna hautsi eta tresna bizi bat izateko helburuz, paperezko euskarri honek lotura handia du mundu digitalarekin. Maiz tartekatu diren QR kodeen bitartez, informazio zabalagoa eta eguneratuagoa lortzeko aukera izango du herritarrak.

Lau urte honetako bideak irakaspen asko utzi dizkigu eta aberasgarria izan da zentzu horretan. Bilduma hau egitea bera ere hala izan da eta tarte hau baliatuko dut eskerrak emateko era batera edo bestera bertan parte hartu duten guztiei.

Zuretzat ere aberasgarri izango delakoan agurtzen naiz. On egin,

*Eztitxu Mujika Mariezkurrena*  
ZALDIBIAKO ALKATEA



# AURKIBIDEA

## 2019-2023 LEGGINTZALDIA

2019-2023 legegintzaldiaren ezaugarri orokorrak	5
---	---

<b>1. BERDINTASUNA, ANIZTASUNA, GAZTERIA ETA HEZKUNTZA</b>	<b>9</b>
Arlo arduradunaren tartea	10
Gai nabarmenak	12
Arloko udal-langile eta herri eragileen ekarpenak	14
Lau urte motzean	22

<b>2. KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA</b>	<b>27</b>
Arlo arduradunaren tartea	28
Gai nabarmenak	31
Arloko udal langilea/edo herri eragilearen ekarpena	38
Lau urte motzean	42

<b>3. INGURUMENA, LANDA GARAPENA ETA LEHEN SEKTOREA</b>	<b>49</b>
Arlo arduradunaren tartea	50
Gai nabarmenak	52
Arloko udal langilea/edo herri eragilearen ekarpena	54
Lau urte motzean	58

<b>4. ZERBITZUAK ETA ONGIZATEA</b>	<b>63</b>
Arlo arduradunaren tartea	64
Gai nabarmenak	66
Arloko udal-langileen tartea	70
Lau urte motzean	74

<b>5. HIRIGINTZA</b>	<b>81</b>
Arlo arduradunaren tartea	82
Gai nabarmenak	84
Arloko aditu eta herri-eragileen tartea	92
Lau urte motzean	94

<b>6. KOMUNIKAZIOA ETA PARTAIDETZA</b>	<b>99</b>
Arlo arduradunaren tartea	100
Arloko udal-langilearen ekarpena	102
Lau urte motzean	104

<b>7. OGASUNA ETA LANGILEGOA</b>	<b>109</b>
Gai nabarmenak	110
Arloko udal-langilearen ekarpena	116

<b>8. UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK</b>	<b>117</b>
Zaldibiako Udala parte den erakundeak eta hauei buruzko informazio-loturak	118

<b>TALDE POLITIKOAK</b>	<b>121</b>
Zaldibiako EH Bildu udal-taldearen tartea	122
Zaldibiako EAJ-PNV udal-taldearen tartea	124

<b>AMAIERAKO HITZA</b>	<b>125</b>
Agurra	126





## 2019-2023 LEGEGINTZALDIA: EZAUGARRI OROKORRAK

### 2019KO EKAINAREN 15A, KARGU HARTZE EGUNA

Maiatzaren 26an ospatu ziren udal eta foru hauteskundeen ondoren, bozken arabera udal ordezkariak izendatu zen ekainaren erdi hartan.

Udalerako hauteskontzietan EH Bilduk 518 boto (6 zinegotzi), EAJk 263 boto (3 zinegotzi) eta PSE-EEk 5 boto (0 zinegotzi) eskuratu zituzten, bozkatzaileen %75,46ko parte hartzearekin.

Kargu hartzeko egunean, udal ordezkari ardura hartzeaz batera, Eztitxu Mujika Mariezkurrena, EH Bilduren hautagaia izendatu zuten alkate.

Joxan Etxabe Nazabalek (alkatea 2011-2019 urteen artean) eman zion lekukoa ordezkari berriari, udal gobernuan hirugarrenez jarraian EH Bildu izanik.

Legegintzaldian zehar bi aldaketa eman dira: 2020ko urtarriletik aurrera Xabier Irastorza Jauregik (EH BILDU) hartu zuen Unai Beloki Garmendiaren lekua eta 2021eko uztailetik aurrera Maialen Mendizabal Lulua-gak (EH BILDU) Laida Elizegi Armendarizena.



Ezkerretik eskuinera: Garbiñe Mendizabal Mendizabal (EAJ-PNV), Estibaliz Jaka Elorriaga (EAJ-PNV), Agurtzane Aiestaran Amondarain (EAJ-PNV), Eztitxu Mujika Mariezkurrena (EH BILDU), Unai Beloki Garmendia (EH BILDU), Laida Elizegi Armendariz (EH BILDU), Mikel Luloaga Aranburu (EH BILDU), Jone Garmendia Alkaia (EH BILDU) eta Jon Luloaga Aranburu (EH BILDU).



## UDAL BATZORDE ETA LAN ARLOAK

Legegintzaldi berriarekin batera udaleko batzorde eta lan-arloak osatzeari ekin zitzaion. Uztailean egin zen herri batzarrean ondorengo batzorde eta lan arloak aurkeztu ziren irailera bitarte herritarrentzat izen-emaitea irekiz:

- Kultura, Euskara eta kirolaren batzordea
- Hirigintza batzordea
- Ingurumena, landa garapena eta lehen sektorearen lan-arloa
- Berdintasuna, hezkuntza, gazteria eta aniztasunaren lan-arloa
- Zerbitzuak, obrak eta gizarte ongizatearen lan-arloa
- Kontuen batzorde berezia
- Batzorde informatzaile iraunkor eta orokorra

Herriaren tamainagatik batzorde hauek osatzea legez derrigorrezkoa ez bada ere, urte askoan martxan izan dira eta jarraitzeko hautua egin zen, noski.

Talde ezberdinetako udal ordezkariak gain, herritarrek ere parte hartzen dute eta ezinbestez erabakigarriak ez badira ere, arlo edo batzorde arduradunek bertan hitz egindakoak kontuan hartzeko konpromisoa agertu izan dute.

Legegintzaldi honetan batzorde eta lan-arloetan profil ezberdineko herritar gehiago biltzea lortu nahi bazen ere, helburu hau ezin daiteke gauzatutzat jo. Pandemiak bi urtez biltzeko jarritako oztopoek ez dute baterre lagundu eta datorren legegintzaldirako modu berriak hausnartzen jarraitu beharko da.



UDAL BATZORDE  
ETA LAN ARLOAK

## ZALDIBIA: BAI ZAHAR, BAI GAZTE

	Guztira			0 - 19			20 -64			≥ 65		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Zaldibia	1.666	852	814	382	196	186	934	488	446	350	168	182

Iturria: Eustat. Biztanleen udal-eroldaren estatistika, 2022/01/01eko datuak

Datozen hamarkadetan erronka demografikoak pisu handia hartuko duela jakitun, biztanleriaren eta adin-tarteen datuei asko erreparatu zaie herri guztietan. Azken finean, datuak jartzen baitigute ikusgai aurrean dugunaren eta gerora etorriko zaigunaren argazkia.

Orokorrean, geroz eta urte gehiago bizi garenez, jendartearen zahartzeari eta honek sortzen dituen beharrei erantzunak eman beharrean aurkitzen gara. Zaldibian, 2021ko datuei erreparatu, herritarren %21a, bostetik bat, 65 urtez gorakoa da.

Kezkagarriagoa litzateke 0-19 urteko adin tartean datu baxuak izatea, baina ez da momentuz behintzat gure herriaren kasua. Urte bereko datuetan (2021), 382 dira jaioberrietatik hasi eta 19 urtera bitarteko zaldibiarak, biztanleriaren %23a, beraz.

Errealitate horrek, erantzun beharreko beste behar batzuk sortzeaz gainera, argia eta itxaropena ematen dizkio Gaztelupeko gure txoko honi.



## COVID-19A: LEGEGINTZALDI HONETAKO PROTAGONISTA


Txistetan eta umorez aritu ginen 2020ko urte hasiera hartan Txinan gertatzen ari zena ikusirik. Bi-hiru aste geroago, ordea, Osasun Larrialdia deklaratu eta norbere etxean konfinatu gintuzten, ia bi hilabetez. Eta bi urte pasa behar izan dira gutxi-asko “normaltasuna” berreskuratu denerako, halakorik bada.

Bi-urteko honek goitik behera eta ezker eskuin as-tindu du panorama, eta oraindik ondorio guztien ja-be egiteko goiz bada ere, haietako asko sumatzen hasiak gara: pertsonen arteko harremanetan, osasun egoeran eta bizipozean, ohituretan, menpekotasun teknologikoan, denoi eragiten diguten gaiekiko desa-fekzio eta distantzietan...

Udalari dagokionez, tentsio handiz bizi izan den eta-pa izan dela aitortu behar da. Goizetik gauera aldatu zen dena eta ziurgabetasuna hedatu txoko guztietara, oraindik ere presente jarraitzen duen egoera horrek herritar asko eta askorentzat.

Urte batzuen perspektiba beharko da ondo eta gaizki egindakoak aztertzeko, eta egindako horren kostuak edota onurak baloratzeko. Izan ere, ohi bezala, kolo-re guztietako iritziak eta egoerak eman dira bi urte hauetan zehar eta denoi utzi digu zer hausnartua.

COVID-19A



### BIZIPENETATIK: *Eztitxu Mujika Mariezkurrena,* Zaldibiako Alkatea

*“Amesgaizto luze bat izan da niretzat pandemia, eta ziur beste askorentzat ere baietz. Amesgaiz-toa gaitzarengatik eta amesgaiztoa honi aurre egiteko neurrien inguruan sortu den guztiagatik. Gaixotzeko eta gaixotasuna etxera ekartzeko kezka. Kezka eta beldurra, denok etxean itxita egoteari, ezarritako neurri murriztaile zorrotzen ondorioei, kudeaketa modu autoritarioen eraginei, denboran horrenbeste luzatutako ziurgabetasunaren itzalari.*

*Egindakoa egina dago, horrek ez du atzera bueltarik. Orain, geratu diren ondorioei aurre egiteko neurriak behar dira, eta nabarmen bat aipatzeko osasun sistema publikoa eta bereziki lehen arreta indartzeko lana aipatuko nuke. Azken hamarkadan eman den atzerapausoa ikaragarria da, herritar guztiok gara horren jakitun eta pairatzaile.*

*Eta beste lan bat ere badago egiteko: gain hartu digun egoera honen aurrean, egin dugunaren eta egin ez dugunaren gaineko irakurketa, ebaluazio eta ikasketa kolektiboa egitea. Berrito inoiz halakorik gertatzekotan, eta aukerak badaude, harri berdinetan ez erortzeko.*



*Guri tokatu zaigu Udaletik egoera hau kudeatzea eta hainbat gaitan autokritika egitea ere badagokigu, kontraesan bezetako bidea izan baita. Hobeto egin zitekeela badakit ziur, baina gure onena eman dugula ere bai. Saiatu gara zaldibiarren eta herriaren behar ezberdinei erantzuten eta gertutasunak ematen zizkigun aukerak baliatzen. Saiatu gara gure balioak mahai gainean jarri eta egoera latzari herri-erronka moduan eta komunitate gisa erantzuten.*

*Eta horixe azpimarratuz bukatu nahi nuke: udalak herritarrengandik gertuen dauden administrazioa izanik, kudeaketa askoz hobea egiteko potentzialtasun handiko aukera-leiho izan gara. Leiho hau, ordea, ez da egoera kudeatzeko baliatu. Ez da inolako koordinazio, kolaborazio eta elkarlanik egon administrazio publikoen artean, goitik beherako aginduak eta oztopoak ugari. Jokaera honek asko erakusten du udalen funtzio, eskumen eta indargutierrez egun gorago dauden agintariek duten ikuspegiak, eta zinez kezagarria da hau nire ustez.”*

Eztitxu Mujika Mariezkurrena

## KLIMA LARRIALDIA ETA KRISIEN KRISIA

Legegintzaldi honetan zehar, iragarpenak aspaldikoak badira ere, nabarmen handitu da klima larrialdia eta krisi ugariaren azaleratzea: lehorreak, suteak, gaitzak, bero-aldiak, uholdeak... gure herrian bertan ere denezik izan dugu.

Planetaren kolapsoa aipatzen da bolo-bolo eta egunez egun ikusi eta pairatzen ditugu giza jatorriko kalte horren ondorioak, nahiz eta munduko beste txoko batzuetan ondorio horiek are larriagoak izan. Sentitu, pentsatu eta ekiteko garaia da, gerorako uzteko betiko tentazioa alde batera utziz.

Hala izan ezean, egun bizi garenon bizi baldintzak okertuz joango dira eta bereziki kezagarria da datozenei utziko dieguna. Gure eta hurrengo belaunaldiekiko dugun ardura horrek balio behar digu txikitasunetik, egunerokotik eta elkarlanetik gauzak aldatzen hasteko lanean.

## ADMINISTRAZIOA XXI. MENDEAN – ERALDAKETAREN BEHARRA

Mende berriko erronka eta gizarte-egitura konplexuaren aurrean, ko-sorkuntza, gobernantza kolaboratiboa eta ekintza komunitarioa bezalako ideia eta lan-moduak hedatzen doaz pixkanaka. Izan ere, administrazio publikoak gizartearen beharrei eta erronkei erantzuteko eginkizuna izanik, ezin pentsa liteke duela 50 urteko lan-molde eta egiturak mantentzeak balio duenik.

Horretaz gainera, benetako eraldaketak egin behar dituzenez gure gizarteak, erakunde publikoek gain, sektore pribatuak, sozialak eta akademikoak, guztiek batera arraun egitea funtsezkoa izango da.

Gurea bezalako herri txiki batean ere bada zer landu eta zer hobetu. Udal eraikin berria martxan jartzea legegintzaldi honetako erronka izan da eta espazio fisiko berriak eraldaketa bat ekarri du bere baitan. Dena dela, lantokiaz harago, lan egiteko moduetan eragitea ere izan da erronka, helburu nagusi batekin: gizartearen, herriaren eta herritarren beharrei aurre egiteko ondo koordinatutako eta gertuko izango den administrazioa izatea.

Pertsonen zerbitzuetara beharrean, zerbitzuak pertsonetara egokitzeaz hitz egiten da. Aipatzen da, baita ere, erakunde barruetan sail banaketak eta bulegoetako hormak gainditu beharra, ekintzak zehar-lerrotasunez landuz. Eta hausnarketak eta proiektuak martxan dira erakunde publikoek harago, komunitatean eta erronka edo misioa ardatz izanda kolaborazioan lan egiteko.

Zaldibian bide honetan lehen urratsak ematen hasi bagara ere, asko dago oraindik egiteko. Teoriaz gain, eguneroko lan-modua aldatzeaz ari gara, eta horrek bere denbora eskatzen du. Argi dago, ordea, esku artean diren erronkei inork ezingo diela bakarrik aurre egin eta erronka berriei ezingo zaiela tresna zaharrekin erantzun. Elkarlana ezinbestekoa izango da eta udalak hori sustatzeko tresna eta akuilu garrantzitsua izan daitezke. Zaldibian aspalditik darabilgun laiaren irudiak, gaurkotasan ikaragarria hartzen du garai hauetan.





1

BERDINTASUNA  
ANIZTASUNA  
GAZTERIA  
ETA  
HEZKUNTZA





# Berdintasuna, Aniztasuna, Gazteria eta Hezkuntza arloan arduradunak

JONE GARMENDIA ALKAIAGA

LAIDA ELIZEGI ARMENDARIZ (2019-2021)

MAIALEN MENDIZABAL LULUAGA (2021-2023)

ZALDIBIAN JAIO, HAZI, HEZI ETA BIZI  
GAREN EMAKUME GAZTEAK GARA,  
ZALDIBIA ETA EUSKAL HERRIA JUSTUAGO,  
EUSKALDUNAGO, ASKEAGO ETA  
FEMINISTAGO BAT LORTZEKO BIDEAN,  
GURE ALETXOA JARTZEN SAIATZEN  
GARENAK.





Gogoan dugu, orain dela ia 4 urte, zinegotzi izateko proposamena iritsi zitzaigun eguna. Zenbat sentimendu eta sentsazio aldi berean! Mila zalantza, urduritasuna, ardurara, beldurra...

Gizartearen zenbait esparrutan (feminismoan, euskalgintzan, politikan...) oso entzuna da militantzia. Oso gazte hasi ginen militatzen, hirurok gogoan dugu oraindik, bakoitzaren Gazte Asanbladako lehen bilera. Hura zen ilusioa! Zaldibiako adin ezberdinetako gazteekin harremanduz, bilduz eta korapilatuz, herria xirikatu, aktibatu eta utopia egi bihurtzeko helburua genuen. Ezker mugimenduko gazte erakundeetan ere, IA, Segi edota Ernain, gure aletxoak jarriak ere bagara. Zaila da bakoitzak bere zilborrari begiratzen dion mundu honetan militatzea. Baina, gustatzen zaigu borrokatzea eta gauzak aldatzen ari direla ikustea. Herritik herriarentzat egiten duguna da.

Proposamena iritsi zitzaigunean mila galdera etorri zitzaizkigun burura: Zertara goaz udaletxera? Zer eskaini dezakegu? Erakundeak

zer eskaini diezaioke gure bizitza pertsonalari eta kolektiboari? Nola aldatuko ditugu gauzak hemen-dik?

Badaukagu ibilbide bat atzean, lan mundukoa ez ezik, baita kalekoa, herrikoa edo gizarte mugimenduekin egindakoa ere. Hau bezalako herri txikietan, herritar guztion parte hartzea beharrezkoa dela us-te dugu. Proposatutako zigutenean zalantzak izan bagenituen ere, azkenean aukera berri bat ikusi genuen gauzak aurrera eraman eta hobekuntzak lortzeko, bai herri mailan eta baita arlo pertsonalean ere. Horrez gain, gazteen errepresentazio bat udaletxean egotea ere garrantzitsua iruditzen zitzaigun.

Berdintasuna, hezkuntza, gazteria eta aniztasuna lan-arloko ardura-dun gisa, historikoki alboratuak, zokoratuak eta zapalduak egon diren horiek (emakumeak, haurrak, etorkinak, gaztetxoak, LGTBIQ+ kolektiboak...) erdigunean jarri eta hauen beharrak eta nahiak kontutan izanik, hobekuntzak egin eta bide berriak irekitzea izan da gure helburua.

Herriarengandik gertuen da goen ordezkaritza instituzionala da Udala, eta honen alde onak eta txarrak sumatu ahal izan ditugu 4 urte hauetan zehar. Gu ez gara Udalera inorri irakaspenak ematera etorri, zaintza eta herrigintza ardatz izanda, proiektu alternatiboak aurrera eramatera baizik. Badugu sentsazioa, sektore batzuekin, gertutasun handia izatea lortu dugula eta lan-eta onak aurrera eraman ahal izan ditugula. Gure lan-arloko proiektuak aurrera eramatea ezinezkoa izango zen, lan-arloko partehartzaile eta teknikariaren laguntzarik gabe. Hemen-dik, eskerrik asko zuei!

Udala, aldaketarako oso tresna baliagarria dela bagenekien, baina behin barruan izanda, oraindik ere baliagarriagoa dela baieztatu dugu. Gai eta eremu askotan zeresan handia du, eta herriko norabidean asko eragin dezakeela iruditzen zaigu.

Guk garbi dugu, sistema hau irauli behar badugu, instituzioetan ere borroka egin beharra dago. Eta batez ere, emakume-gazte-langile ikuspegia txertatu beharra dago gizarte patriarkatu eta neoliberal hau, guztiz suntsitzea nahi badugu.



Zenbait momentu ez dira samurrak izan. Denean ere ez genuen asmatuko. Baina gure onena ematen saiatu gara eta ikaskuntza bat ere izan da.



## BERDINTASUNA, ANIZTASUNA, GAZTERIA ETA HEZKUNTZA

# Zaldibia, Herri Hezitzailea izateko lanean

LAN ETA GOGOETA  
PROZESU BATEN ONDOREN,  
2020KO MARTXOAREN  
6KO UDALBATZAK  
GHEINGOZ ONARTU  
ZUEN ZALDIBIA OINHERRI,  
HERRI HEZITZAILAEN  
SAREAN SARTZEA. ORDUZ  
GEROZTIK, ABIAN DA  
PROIEKTUA.

Herri Hezitzaile bat jolasa eta sormena, ikasteko eta nor bere burua garatzeko tresnatzat dituen haur-kultura batean oinarritzen da. Hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte-hartzeko eta erabakitzeo ahalmena eman behar diegu, aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez, ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartuz eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak josiz.

Zaldibiako Udalak Herri Hezitzailearen filosofia herrian txertatzeko gogo eta ilusio handia jarri du. Horretarako, herriko haur, gaztetxo eta kolektibo zaugarrienak (etorri berriak, adinekoak, emakumeak...) erdigunean jarri eta sektore horiekin guztiekin eta guztientzat pentsatutako herri bat eraikitzeo bidea jorratzen ahalegintzen ari da.

Hezkuntza, ardura konpartitu gisa ulertzen dugu, familia eta es-

kolaz haratago, herria bera eremu hezitzaile moduan ulertzen dugulako eta herritarrak eragile hezitzaile kontsideratzen ditugulako. Hezkuntza ez da soilik haurtzarora mugatzen, gutako bakoitza, jaiotzen garenetik hiltzen garenera arte, hezigarriak eta aldi berean hezitzaileak garelako ulertzen baitugu.

Munduak norabide aldaketa bat behar du eta hori herritar guztion artean egin beharko dugu, inor atzean utzi gabe. Udalak, hezkuntza formal zein ez-formaleko elkarrekin eta herrigintzako eragileekin elkarrekin lan eginez.

Izan ere, haur eta gaztetxoak etorkizuna bakarrik ez, oraina ere badirela ulertuta, Udalaren egunerokoan eta herriari dagozkion gaietan euren iritziak biltzeko bideak ireki eta erabili ditugu: udaletxea eta plazaren eraberritze proiektuan, eskolako batzorde mistoetan udal ordezkari eta teknikarien partaidetza, udal irudi berriaren aukeraketa, ikasle ordezkariak alkatearekin egindako bilerak, festak, jolas eremuak, auzolanak...

Norabide honetan sortu zen, esate baterako, Zaldibi, gaztetxoekin kabi proiektua. 2021eko martxoaren hasieran, herriko 11-15 urteko gaztetxoak protagonista izan ziren parte hartze prozesu bat abiarazi genuen Oinherri Sarearekin eta Emun Aholkularitzarekin elkarlanean, eta ber-

tatik sortu da asteburuetan gaztetxoekin burutzen den aisialdi eskaintza.

Garrantzitsua jotzen dugu gaztetxoek 12 urtetik gora ere herriarekiko lotura mantendu dezaten bultzatzea eta bide berriak irekitzea gainera, arrakastatsuek diren udako jardueren antolakuntzarekin ere jarraitu dugu. Ezin esan, gainera, samurra izan denik, Covid-19aren itzalpean egin behar izan baitugu bidearen zati handiena.

Hain zuzen ere, konfinamendu eta ondorengo hilabeteetan oso gertutik jarraitu dugu haur eta gaztetxoekin egoera, eta ekimen ugari eman genien bide: haurrak zeuden etxe guztietan internet bermatzea, aisialdi eskaintza, buruhandien kalejira, bideo-mezuak, herriko ibilbideak, euskara errefortzua...

Azken hilabeteetan egoera xarragoa izanik ere, argi dago lan handia dugula oraindik egiteko, ahalik eta elkarlan handiena bilatuz. Bidelagun ederra izaten ari da Herri Hezitzaileen sarea: formakuntza, esperientzia-trukeak, hausnarketa eta eztabaida foroak, gida-liburuak...

Norabide argia eta bide-lagun ugari izanik, argi daude hurrengo urratsak: bidea egiten jarraitzea, hanka-sartuz eta ikasiz, eta batez ere, elkarrekin bidez gozatuz!



## Zaldibia, aniztasunean parekide

ANIZTASUNEAN ETA AUKERA BERDINTASUNEAN SINESTEN DUEN HERRIA GARA. GURE ARTEAN DESBERDINTASUNAK EGONAGATIK ERE, GUZTI-GUZTIOI DAGOZKIGU ESKUBIDE ETA ASKATASUN BERBERAK. HORREGATIK, ZALDIBIAKO UDALAK HERRITAR GUZTIEN ESKUBIDEEN, BETEBEHARREN ETA AUKERA BERDINTASUNAREN ALDE LAN EGITEN DIHARDU.

Zaldibian bizi garen pertsona guztiak, bertan edo beste herri batean jaioak izanik ere, zaldibiarrak gara. Bertan jaio garenok, herria utzi behar izan duzuenok, beste txokoren batetik etorri zaretenok... Guztiok batera osatzen dugu Zaldibia. Denok batera bizi dugu, sentitzen dugu eta egiten dugu gure herria.

Zaldibiarrak dugun jatorrizko kultura eta herri nortasuna ez da ezezetatik sortu. Hainbat jatorritako zaldibiarren ekarpenari esker, kultura eta nortasun hori denboran zehar eraiki, osatu eta koloreztatu da, herri gisa aberastuz.

Hori dela eta, Zaldibiako Udalak zaldibiar berriei atea ireki asmoz, auzolanean proiektu berri bat jarri zuen abian 2021ean: ONGI ETORRI ZALDIBIRA! etorri berrientzako gida.

Zaldibiara datozen guztiei lehenbiziko harrera egiteko tresna bihurtu da gida. Bertan, herrian aurkitu daitezkeen azpiegitura eta zerbitzu ezberdinei buruzko informazioa jasotzen da: harremanetan jartzeko bideak, non dauden kokatuta, ordutegiak...



Gure kulturari, hizkuntzari eta ohiturei dagozkien azalpenak ere agertzen dira, bai Euskal Herriari lotutakoak, bai Zaldibiari zehazki lotutakoak ere.

Tresna honekin batera, beste ekimen bati ere hasiera eman genion herriko hainbat eragilerekin batera: HARRERA EGUNARI. Egitasmo honen helburua urtean zehar erroldatutako zaldibiar berriei ongi etorria ematea eta herria ezagutzen laguntzea da. Modu honetara, elkar ezagutzeko, gertutasuna erakusteko eta harreman sareak lantzeko pausuak eman nahi dira.

Eta helburu honetan sakonduz, 2022ko udazkenetik Emun aholkularitzaren bide-laguntzarekin, Zaldibiako harrera integrala diseinatu eta martxan jartzeko proiektuan murgilduta gaude.

Bi fasetan burutuko da proiektua: lehen pausoa, Udaleko harrera antolatu da, harrerarako protokolo bat osatuz, udal arduradun eta langileei formakuntza emanez eta beharrezko material eta baliabideak sortuz.

Bigarren pauso batean, herriko eragile eta elkarteekin batera herri-harrera landuko da, horretarako formakuntza eta bide-laguntza baliabideak jarriko dituelarik udalak.

Pertsonen arteko aukera berdintasunaren aldeko lanean, parekidetasuna ere lan eremu emankorra izaten ari da urteotan. Borroka feminista urteetako lana eta konpromisoari esker egiten ari den lanak bere isla izan du Zaldibian ere, eta Udaletik hori hauspotzen saiatu gara.

2019 urte amaieran Segura, Legorreta eta Zaldibiako udalek partekatzen dugun berdintasun teknikiaren plaza bete eta berdintasun lan-arloa martxan jartzea izan genuen lehen erronka.

Ordutik, emankorra izaten ari da ibilbidea: lan-arloaren osaketa, herriko mugimendu feministarekin batera egindako lana, lilaioia eta herrian bertan egindako tipi-tapa morea, martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren bueltan egindako ekimen jendetsu eta anitzak, udalean, eskolan eta herrian sustatutako formakuntza feminista eta osatzen ari garen eraso sexisten aurreko protokoloa, festetan egindako lanketak, maskulinitate erduei buruz hausnartzeko herriko gizonen taldea...

Errealitateak egunero erakusten digu, ordea, eremu eremu eta eskuz esku lanean jarraitu behar dugula, gizon zein emakume. Asko dugu aldatzeko norbere barruan, asko desikasi eta beste asko ikasteko, eta bidea errazago egingo dugu elkarri lagunduz eta kolektiboki.



# Maite Azpiazu Errazkin

OINHERRI ELKARTEA

1983, AZPEITIA

## OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEKO HERRI HEZITZAILEEN SAREKO DINAMIZATZAILEA



HEZKUNTZAREN MUNDUAN ARITU IZAN NAIZ LANEAN ETA HERRI HEZITZAILEEN FILOSOFIAN INTERESATZEN HASI NINTZEN AMA ETA HEZITZAILE MODUAN, AZPEITIKO HERRI HEZITZAILEKO LAN TALDETIK. ORDUZ GERO, TEORIA ETA PRAKTIKATIK, FILOSOFIA HONETAN SAKONTZEN JARRAITZEN DUT.

**Herri Hezitzaileen Sarea hedatzen ari da Euskal Herrian barrena, aurten 10. urteurrena ospatuz. Ezagutzen ez dutenentzat, zein da sarearen egungo errealitatea, Maite?**

Herri hezitzaileen sarea, tokian toki herri hezitzailearen filosofia sustatu nahi duten herriekin osatzen dugu. Oinherri herri hezitzaileen sarea maila teoriko batean lantzen du, jardunaldi, topaketa, formazio, dibulgazio liburuxkak sortuz... baina gure sorreratik argi geneukan maila praktiko batean ere lan du behar gurea, filosofia honek herrietan lur har zezan.

Horregatik, 2012an, 7 herrirekin esperimentatzen hasi ginen. Prozesu haietatik ateratako ezagutza eta esperientziarekin, 2020an herri

hezitzaileen sarea zabaltzea eta indartzea erabaki genuen. Egun, 35 herri osatzen dute sarea eta batez ere, esperientzien elkartrukean oinarritzen da.

**Zeintzuk dira Oinherriren helburuak eta nola lan egiten da herri herri?**

Oinherriren helburu nagusia Euskal Herri hezitzaile bat eraikitzea da. Herriak eremu hezitzaileak direnaren inguruko kontzientzia hartze batetik abiatzen gara. Hezkuntzaren ardura, ikastetxe eta familiez gain, herriko hezkuntza ez formaleko eragileen, Udalaren eta herrigintzako eragileen ardura ere badela aldarrikatzen dugu. Eragile guzti hauek herria hezkuntzarako testuinguru, eduki eta eragile moduan ikusten hastea izaten da gure zeregin nagusia.

Horretarako, herrietan udala, ikastetxeak, hezkuntza ez formaleko eragileak (ludoteka, gazteleku, aisialdi elkarte...) eta herrigintzakoak elkartu eta elkarrekin, euren herria zein balio hezitzailetan eraiki nahi dutenaren inguruan pentsatzen jartzen ditugu.

Elkargune hauek eraikitzea da lehen pausoa, hortik has gaitzkeelako herri hezitzailearen filosofia herriratzen. Haur eta nerabeak txikitatik gaitasundun subjektu





aktibo eraikitzaile moduan ikusten hasteko, eta herriko erabakietan euren parte hartzea sustatzen hasteko.

**Gai zehatzei buruzko foro eta lanketak ere sustatzen dituzue. Azalduko zenizkiguke batzuk?**

Sareko kide diren herrien behar amankomunak identifikatzeko ariketa bat eginda, lau lan ildo adostu genituen, eta orduz gero lan ildo horiek modu kolektiboan lantzen aritu izan gara. Esate baterako, herri antolamendua edo hirigintzari herri hezitzailearen ikuspegitik zer nolako ekarpena egin ahalko geniokeen lantzen aritu gara urtebetez Hiritik-At kooperatibakoekin. Liburuxka batean jaso dugun marko bat osatu dugu eta sare mailan arlo honetan egiten diren esperientzia inspiragarriak identifikatu, ezagutzera eman eta balioan jarri ditugu, Zaldibiako plazaren prozesuaren kasua bezala.

Nerabezaroaren kultura eta partehartzea izan da beste lan ildotako bat. Zaldibia bezalako tipologia duten herrietan identifikatu genuen behar bat da, nerabeak herriarekiko atxikimendua garatzeko zailtasunak dituztela. DBHko ikasketak alboko herrian egin behar horrek, aisialdia, kuadrilla eta orohar bizitza, alboko herrian egitera bideratzen baititu. Kasu honetan, "Nerabezaroaren kultura eta parte hartzea" izeneko liburuxkan bildu dugu gaiaren inguru-



ruko markoa eta metodologia, eta Zaldibia gaztetxoaren kabi moduko egitasmoak sustatzen saiatu gara herrietan.

**Zaldibia 2020an sartu zen Oinherri sarean. Ibilbidearen hasiera honetan, nola ikusi duzue Zaldibiako herriaren egoera eta egiten ari den lanketa?**

Zaldibiako Udalak berehala konektatu zuen herri hezitzailearen filosofiarekin. Oso kontziente izan da prozesu osoan zehar Udala badela eragile hezitzaile bat herrian eta ardura horretatik lan egin du.

Gainera, herriko ikastetxeak ere badauka parte hartzearen kultura oso barneratuta eta eurekin elkarlana eraikitzea ere erraza izan da. Eskolan batzordea aritzeko duten ohituratik abiatuz, haurren parte hartze kanal iraunkorra diseinatzea da hurrengo urteetan izango dugun eronketako bat.

Honi herriko plazaren eraberritze prozesua gehitu zaio. Nolako plaza nahi duten aukeratzeko parte hartze prozesu oso interesgarri bat aurrera eramaten ari zarete; haur

eta nerabeen parte hartzea ludikotasunetik eta gozamenetik egitea lortu duzue eta hori oso inspiragarria eta eredugarria da Oinherrirentzat.

**Eta jarraipenari begira eta Zaldibia herri hezitzaile izateko bidean, zein izan litezke hurrengo urratsak?**

Nerabeen parte hartzean sakontzen jarraitzea, ikastetxean antolatuta daukaten batzordeen egitura parte hartzailean, haurrentzako egokiagoa den metodologia parte hartzaileak erabiltzen ikastea, herriko herrigintzako eragileak herri hezitzailearen dinamikara gehitzea, eskola kirol ereduaren inguruan hausnartzea... izan daitezke hurrengo urratsak. Baina hau zaldibiarrek beraiek erabaki behar dute, eta aukeratzeko dutena garatzen laguntzeko hor izango dute Oinherri bidelagun.



ZALDIBIA  
HERRI  
HEZITZAILEA



EIDER AMUNDARAIN | USTARITZ ORMAETXEA | IGONE ESKISABEL



# Lardizabal Herri Eskola



EIDER AMUNDARAIN zuzendariak, USTARITZ ORMAETXEA ikasketa buruak eta IGONE ESKISABEL idazkariak osatzen dugu eskolako ZUZENDARITZA TALDEA.

## Lardizabal Herri Eskola, zein da egungo argazki orokorra?

Lardizabal herriko eskola publikoa da, herrian dagoen eskola bakarra eta Zaldibiako ia ume guztiak hartzen dituena.

215 ikasle daude eskolan, eta herri guztietan ikasleen kopurua beharrentza doanean gurean oraindik gorantz doa. Ikasle eta familietan aniztasuna dugu eskolan. Guztiei kalitatezko hezkuntza ematea da gure helburua.

**Eskolako atek herriari irekitzeko bide asko ireki dira azken urteetan, baita parte hartzea sustatzeko ere: batzorde mistoak, talde elkarreragileak, herriko eremuen erabilera...**

Uste dugu herrian eragile garrantzitsua dela eskola, edo izan daitekeela behintzat. Horretarako ezinbestekoa da herriarekin, herritarrekin... lotura izatea egunerokoan. Eskolatik herrira irteten gara, eta herritarrek eskolara ekartzen ditugu. Ikasleak beraiek, bai etorkizunean eta bai oraintxe bertan, herriko partaide aktiboak izatea bilatzen dugu. Guzti hori onuragarria da ikasleen ikas-kuntza prozesu guztietarako, bai herrian errotzeko eta guztion arteko elkarbizitzarako.

**Naturarekin harreman zuzena sustatzea ere bultzatu da, olalde parkea, urmaela edota baso eskola proiektuei esker.**

Aspalditik zetorren natur eremuetan egoteko joera, HHn gehiago. COVID19aren garaian hasi ginen gehiago ateratzen, maila guztiak. Gero eta argiago ikusten dugu naturarekin kontaktuan egoteak onura asko dituela. Era berean, natur eremu horietan curriculumean agertzen diren gaitasunak garatzen direla konprobatu dugu. EKOGUNE, ARANZADI eta beste hainbat Elkarte ditugu bidelagun eta beste eskola batzuekin batera sareak osatzen ari gara. Hezkuntza Sailak ere babesten ditu ekimen hauek eta ildo horretan jarraitzeko asmoa dago. Irakasle talde osoak urtero formakuntza edo gidaritza jasotzen du, jarduera guzti hauek ahalik eta modu egokienean egiteko.

**Euskara eta elkarbizitza ere giltzarri jotzen dituzue. Zer aipatuko zenukete honen inguruan?**





Duela bi ikasturte heldu genion bereziki gai honi eta ordutik ibilbide bat egiten ari gara. Ibilbide horretan eragile ezberdinak gaude: irakasleak, familiak, Udala, UEMA, HUHEZI, herriko elkarteak... Euskaraz ardatz izaten jarraitzeko eta aldi berean guztion arteko Elkarbizitza zaintzeko ezinbestekoa ikusi genuen gai hau bereziki jorratzea. Bidea hasi genuenetik hainbat hitzaldi, solasaldi, bilera, jardunaldi... egin dira. Hitz egitea eta elkarri entzutea ezinbestekoa izan da eta izaten ari da. Praktikan jarri dira egiteko modu berriak ere, pixkanaka sistematizatu nahi ditugunak. Esan bezala, bide baten hasiera da. Euskaraz bizitzea, komunitate osoaren partehartzea eta giro abegikorra izatea landu nahi ditugu.

**Covid-19aren aurkako neurrien eragina nabarmena izan da hezkuntza komunitate osoarengan. Nola bizi izan zenuten egoera hau?**

Bi ikasturte oso gogorrak izan dira. Ustekabean iritsi zen eta ahal zen bezala aurre egin zitzaion egoerari. Mundu mailako alerta egoera izan zen eta gure bizitzetako esparru guztietan eragin zuen. Gure ahalegina izan zen guztion osasuna zaindu eta aldi berean haurren kalitatezko hezkuntza bermatzea. Gauza batzuetan asmatuko zen eta besteetan ez. Denborarekin beste perspektiba bat izango dugu gertatutakoaz.

**Eskolek herria behar dute eta herriek eskola. Zeintzuk izan litezke Zaldibiako herriaren eta Lardizabal Herri Eskolaren erronkak epe motz-ertainean?**

Erronkak asko izan daitezke. Guk uste dugu bai herriak eta bai eskolak elkarlanean aritu behar dutela, eta elkarren bidelagun izan behar dutela. Eskolak ere lagundu behar diela ikasleei (eta familiei) herriarekin lotura izaten, herria maita-

tzen, herrian bizitzen, zaintzen eta eraikitzen.

Gainera eskola ikasleentzat leku interesgarri bat izatea nahi genuke, ikasleak gustura etorri eta aldi berean beraien ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko aukera ematen dien eremua izatea. Elkarbizitza, tratu onak, ingurumenarekiko zaintza, euskaraz bizitzea, kulturartekotasuna aberastasuntzat izatea, aniztasuna maitatzea, jolasa, ekintzaile eta autonomo izatea, ikasteko grina matendu eta asetzea... gure eskolan hori guztia gertatzea nahi genuke. Hori horrela izan dadin bitartekoak jartzen saiatuko gara.



LARDIZABAL  
HERRI ESKOLA



ZALDIBIAKO UDALEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

## Arantzazu Baztarrika Izagirre



ARANTZAZU BAZTARRIKA IZAGIRRE NAIZ, GABIRIAKO ERROTAKO ALABA. 1990EAN JAIO NINTZEN ETA ZUZENBIDEAN LIZENTZIATU ARREN DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN EMAKUMBEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEKO MASTERRA EGITEARI ESKER AMAITU DUT GAUR EGUN HIRU HERRITAN BERDINTASUN TEKNIKARI LANAK EGITEN.

**Legegintzaldi honetan hasi zara lanean Zaldibiako, Segurako eta Legorretako udalek elkarbanaturik sortu duten berdintasun-teknikari lanpostuan. Zein da zure egitekoa? Nola antolatzen zara?**

Bai, 2019ko abenduan hasi nintzen eta egia esan hasiera ez da erraza izan, postu eta sail berri bat zelako udal guztietan, eraikitze zegoena, eta aitzakia badirudi ere, pandemiak asko nekeztu dit lana.

Labur esanda genero ikuspegia ahalik eta eremu zabalenean (udaletik hasita) txertatzea, emakume

eta neskatuen ahalduntzea helburu duten programak diseinatu eta martxan jartzea, eta jakina, indarkeria matxistaren inguruan kontzientziazioa eta sentsibilizazioa helburu duten ekintza eta programak aurrera eramatea dira nire egiteko nagusiak.

Horrez gain, Foru Aldundiko programetan ere parte hartzen dut hiru herrien ordezkari, eta herri bakoitzean dauden bestelako berezitasunetan ere bai.

Eta antolatu berriz, ahal den bezala! Astean fisikoki leku guztietan egotea gustatzen zait, bestela informazio asko galtzen dudala iruditzen zaidalako. Beraz, leku bakoitzean egun bat eta erdi egiten ditut aste arruntetan.

**Zer nolako lana dago Zaldibian berdintasunari dagokionez, zer duzue esku artean?**

Zaldibian berdintasunari dagokionez egiteko dagoen lana ez da erraza. Baina, Zaldibian bezalaxe Euskal Herriko edozein herritan. Ni bertan egote hutsak udalak berdintasuna lortze aldera apustu nabarmena egin duela adierazten du. Beharra ikusten zuen seinale.

Zaldibiako Udala duela hamarkada bat baino gehiagotik dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Berdinbidean” programan sartuta, eta beraiek errazten duten udal plangintza eredu erabilia une honetan 2021-2022 plangintza betetzeko ahaleginetan ari gara.





Hala, esku artean bi ardatz nagusi daudela esango nuke: batetik, indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa; eta bestetik, ikuspegi feminista batetik zaintzaren inguruko proiektua.

Horrez gain, nazioarteko egunen inguruan burutzen diren ekintzak, emakumeen ahalduntzera bideraturiko tailer eta bestelako ekintzak ere antolatzen ditugu.

### Zaldibiarren artean berdintasunari buruzko kezka nahikoa dagoela iruditzen zaizu?

Zaldibiar batzuen artean bai, gehiengoarentzat ez. Nik lau taldetan banatuko nituzke herritarrak beraien kezkaren arabera eta gehienak 2. eta 3. taldeetan kokatzen direla esango nuke, hau da: zati handi batek benetan arazo larritzat hautematen badu ere, eta tarteka honen inguruan lanketak egiteko prest egon badaiteke ere, berdintasuna ez da beraientzat lehentasunezko gaia. Eta beste zati handi batek galdetuz gero berdintasun eza arazoa dela adieraziko du, baina ez da inondik inora ere lehentasuna eta ez du berak egin beharreko lanketat hartzen.

Hala ere, ez dut uste hau Zaldibian soilik gertatzen den zerbait denik, gure gizartean nahiko orokortuta dagoen zerbait dela uste dut.

### Zein izango dira hurrengo urteetara begirako lehentasunak?

Momentuz, 2023. urtean zaintzaren inguruko proiektuarekin jarraituko dugu.

Horrez gain zehazki zein proiektuari ekingo diogun oraindik ezin dut esan, baina bai zein ardatzetatik joango diren:

- Emakume eta neskatoen ahalduntzea.
- Indarkeria matxista, sexista, homofoborik gabeko Zaldibia izatea.
- Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzeko pausak ematea.
- Udal barnean, maila tekniko eta politikoa, berdintasun politikak garatzea.

### Hiru urte hauetan herrian egin den lanketaren ondorioz, garapenik sumatu duzue? Proiekturen bat nabarmenduko zenuke?

Esango nuke emaitza hoberenak eman dituzten ekintzak herriko eragileekin elkarlanean egindakoak izan direla. Esate baterako, dagoeneko herrian bi "Lilatoi" propio egin ditugu, azkenari Ttipi-Ttapa morea deitu genion, eta bertan, adin guztietako emakume eta neskatoek parte hartzen dute. Ekintza honek, bere horretan sinplea dirudien arren, emakume eta neskatoak erdigunean jartzen ditu, ahaldundu eta bakoitzak bere erritmoan ibilbidea amaitu deza keela ziurtatu.

Horrez gain, pentsatu nahi dut teknikari baten presentzia izateak beste eremu batzuetan ere eragina izango zuela, esate baterako eskolan sartutako programetan edota herri mailan egiten diren kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainetan. Eragile batzuek ere nabaritu zuten bertan nagoela; batzuetan, zirikatzeko, eta beste batzuetan, berriz, laguntzeko edo zenbait gauzei bultzadaxo bat emateko.



ELKARRIZKETA  
OSOA  
IRAKURTZEKO





MUGIMENDU FEMINISTA

## Aske Taldea

ASKE TALDEA ZABALA  
BADA ERE, IRATI URKIOLA,  
OROITZ ETXABE,  
ITSASO URRETAGOIENA,  
MAIXA NAZABAL,  
EDURNE ECHART,  
OIHANE ETXEBERRIA,  
UXUE ETXEBERRIA,  
MAIALEN IRASTORZA,  
GARAZI URKIOLA ETA  
MAIDER CASTELLANO  
KIDEEK ERANTZUN DUTE  
ELKARRIZKETA HAU.







### Zein da errealitatea Goierriko eskualdean eta hemen, Zaldibin?

Goierriko eskualde mailan, badaude hainbat saretze ezberdin, ezagutzen ditugunen artean batetik, Goierriko Koordinadora Feminista dago, batez ere Martxoak 8ren harira elkartzen dena Goierriko mailako eguna antolatzeko. Bestetik, Goierriko neska\* Gazteen taldea ere badago, lanean fin-fin hari dena emakume gazteez osaturik. Horiez gain, beste talde batzuk ere badaude nahiz eta haietan dugun ez parte hartu. Bestetik, esango genuke herri mailako talde feministek eskualde mailan presentzia irabazi dutela azken urteetan, tokian tokiko ekintzak bultzatuz.

Zaldibia mailan, ez gara emakume asko taldean gaudenak baina bai adin ezberdinetako emakumeak eta hori oso aberasgarria da, batetik, herritar desberdinengana hurbildu gaitezkeelako eta bestetik ikuspegi zabalago bat eskaintzen digulako talde bezala.

### 2015an sortu zen Aske Talde Feminista Zaldibian. Ibilbide honetan, nabarmenduko zenuketekimen edo lorpenik?

Jada urte batzuk igaro dira eta Aske taldea sortu zenetik, ekintza entzutetsu eta handirik egin ez arren nabarmentzeko moduko lorpenak badirela esan daiteke. Entzutetsuenen artean, azken urteetan Emakumeen\* nazioarteko egunaren bueltan antolatutako ekintzak (Lilatoia herrian, elkarretaratzeak, afaria...), elkarlanean egun politik antolatzea lortu da. Hala eta guztiz ere, ikusgarritasun handirik ez duten lorpenak lirateke azpimarragarriek. Sortu zen mo-

mentuan helburu nagusi bat ipini zen, taldeak berak edozertaz hitz egitea ahalbidetuko zuen eta indarrak batzeko ahalmena izango zuen espazio segurua izatea. Lortu dela esan daiteke, eta hauxe litzateke lorpenik azpimarragarriena. Honez gainera, azken urteetan taldea bera zabaldu eta indartu egin da. Horixe litzateke Aske taldearen mugarrietako bat. Izan ere, saretzea nahitaezkoa da, askok uste baino gehiago baitago oraindik deseraiki eta berriz eraikitzeko. Zorritzarrez, feminismoaz hitz egitea ez da erraza eta politikoki zuzena den arren feministak garelara esatea, egungo gizartean uste baina epaituagoak dira ideia zein ekintza feministak. Horregatik da saretzea hain garrantzizkoa. Sarerik ez badago ezin da salto egin!

### 2021eko azaroan taldea indartzeko deialdia egin zen. Zeintzuk dira taldearen egoera eta erronkak gaur egun?

Deialdi horretara emakume\* asko batu zen, eta indarrez atera ginen, gauzak egiteko gogoz, eta horretan aritu gara urte honetan zehar: amatasunen inguruko kafe-tertulioa egin genuen, martxoan lilatoia, ekainaren 28an German Urteaga etorri zen trans munduaren inguruko hitzaldia ematera, batukada ikastaroa Zaldibiara ekarri eta hainbat emakume zaldibiarrek hartu dute parte, sendabelarren hiru tailer egin dira... ekintza hauetara jende asko hurbildu da eta pozgarria da, seinale delako badagoela gai hauen inguruan ikasi eta hausnartzeko gogoia.

Urtean zehar hilean behin edo batzen gara, ekintzak prestatu eta horien inguruan hausnartzeko. Egia da bilera hauek ez direla jen-



detsuak, eguneroko errutinak beste plan batzuk jartzen dizkigulako... Normalean 5 bat edo biltzen gara, gutxienez.

Erronkei dagokionez, unean unekoak aztertzen saiatzen gara. Herrian ikusten ditugun beharrei erantzun asmoz. Orain, jaietako balorazioa egiten ari gara, azaroaren 25a ere bertan dugu, eta abenduan irakurle taldearekin batera euskara eta feminismoa landuko ditugu... herriari betaurreko mo-reak eskaintzea da erronka nagusia.

### Udaleko berdintasun lan-arloan aktiboki parte hartu izan duzue eta baita herriko beste hainbat eragilerekin ekintzak antolatu ere. Elkarlana nolakoa izan da?

Horretan saiatzen gara, elkarlanean aritzea beti delako aberasgarriagoa. Elkarren berri izan eta ekintzak aurrera batera ateratzeak ikuspegi zabalagoa eskaintzen digu denoi, eta hala izan dela somatu dugu. Elkarlanik gabe, seguraski, ekintzak ez lirateke hain arrakastatsuak izango. Beraz, positiboki baloratzen dugu egindakoa, eta hemendik aurrera ere horretan sakondu nahiko genuke.



ASKE TALDEA



**BERDINTASUNA, ANIZTASUNA,  
GAZTERIA ETA HEZKUNTZA**

# LAU URTE MOTZEAN

## MARTXOAK 8

Feminismoaren borroka ibilbide luzea du Zaldibian, herrian dugun mugimendu feminista aktiboari esker. Beste gizarte eredu bat eraiki daitekeela erakutsi nahi dugu gure lan-arlotik.

Emakumearen nazioarteko egunarekin bat eginez, urtero egun honen bueltan egitarau oparoa osatu ohi da lan-arloko kideekin eta Aske, talde feminista-ekin zein herriko bestelako eragile eta emakumeekin elkarlanean. Urtero gai ezberdinei helduz; indarkeria matxista, kirola eta emakumea, zaintza lanak, etab.

Ozen esaten dugu, Zaldibiak ez duela eraso sexista, homofobo eta arrazatarik onartzen!



ARGAZKIAK  
HEMEN

## LILATOIA

Emakumeon ahalduntzea helburu izanik, 2020an hasi ginen Udaleko Berdintasun lan-arlotik Lilatoira-ko lanketa egiten. Orduz geroztik, urtero egin dugun ekimenetako bat izan da. Emakumeongan pizten duen ilusioa eta grina ikusita, ea hurrengo urteetarako ere ohitura bihurtzen den.

2020an, astero-astero entrenamenduak egiteko elkartu ondoren, Zaldibiako 50 emakumek baino gehiagok Donostiako Lilatoian parte hartu genuen.



Pandemia zela eta, geure burua berrasmatu behar izan genuen eta, 2021eko eta 2022ko martxoan, Ttipi-ttapa morea antolatu genuen herrian bertan.





## HERRI PROTOKOLO FEMINISTA

Berdintasan arlotik, herriko indarkeria matxistei erantzuteko herri-protokolo feminista osatzen gabiltza azken hilabeteetan. Protokolo honekin, indarkeria matxista kasuen aurrean, eman beharreko urratsak eta egin beharreko koordinazioak zehaztea da helburua.

Herri-protokolo feminista den heinean, herriko eragile ezberdinen artean osatua izango da. Osasun langileetatik hasi, herriko mugimendu feministarekin jarraitu, eskola, gizarte zerbitzuak, eta beste eragile eta norbanakorenganaino iritsi nahi dugu.



ZALDIBIAN INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIO ETA ARRETARAKO TOKIKO 1. PROTOKOLOA

## FESTETAKO PROTOKOLO FEMINISTA

Festa giroan ere, mota askotako erasoak ematen direnez, urtero, erasoerik aurre egiteko protokoloa diseinatu eta martxan jarri ohi dugu, Aske talde feministarekin elkarlanean.

Jaiak gureak ere badira eta gozatzeko gune seguruak behar ditugu. Beraz, argi esaten dugu, gune hauek errespetatzeko gai ez dena, geratu dadila bere etxean!

**Festetan, erasoen aurrean zer?**

**1. NOIZ?**

**ERASOAK DINA...**

- Inbisiak, ukabiztas, errotabiztas, mehatzak...
- Zulgatzen...
- Zuzenbide...
- Desadostasun edo harkara gertatu bada, edozein gertatzen!
- Bereziki gabe oinarri eta gertatzen...
- Zuzenbide, edozein inbisiar/errotabiztas...
- Errotabiztas...
- Mehatzak eta mehatzak...
- Mehatzak eta inbisiar errotabiztas...
- Bereziki gabe oinarri...
- Bereziki gabe...
- Aditu gabea beharrenez erasoak dit!

**2. HORA JOP**

- Erasoak martxoaren gutxienez geroztik...
- Martxoaren 8. 19:00-23:00 bitartean...
- Bereziki gabe oinarri...
- Erasoak martxoaren gutxienez geroztik...
- Martxoaren 8. 19:00-23:00 bitartean...
- Bereziki gabe oinarri...

**3. BAJESA ESKARAI**

- "Nahi ez dugu!" Jartzen lagun...
- Ez lortu baxerik, ez lortu baxerik...
- Baxerik ez lortu baxerik...
- Baxerik ez lortu baxerik...
- Baxerik ez lortu baxerik...

**4. ENTZUN:**

- Erasoak baxerik ez lortu baxerik...
- Erasoak baxerik ez lortu baxerik...
- Erasoak baxerik ez lortu baxerik...
- Erasoak baxerik ez lortu baxerik...
- Erasoak baxerik ez lortu baxerik...

## AUTODEFENTSA FEMINISTA

Legorreta eta Segurako udalekin batera eta Emaginen laguntzaz, autodefentsa feminista tailerra antolatuta gurean pandemia zehar. Emakumeon ahalduntzea izan zen xedea, bizi dugun gizarte patriarkal hau iraultzeko tresna eta indarrak partekatuz.



## BATUKADA FEMINISTA

2022ko lehen seihilekoan, batukada ikastaroa izan genuen Zaldibian. Batumore batukada taldekoen eskutik, bi astez behin, 2 orduko saioa egiten zuten. Arrakastatsua izan zen emakume zaldibiarren partehartzea, 14 emakume zaldibiar eta Goierriko beste hainbeste emakumek osatu zuten taldea.

Herriko festetan irten ziren kalera, danbor hotsekin aldarri feministak egitera. Ikaragarria neskak!



## ONGI ETORRI SEINALE BERRIAK HERRI SARRERETAN

Zaldibiara ongi etorria emateko Mendi-ONDOKO biribilgunean eta Larraiztik behera Ostadar etxearen parean seinale berriak jarri dira. Horrekin batera, Euskal Herrian gaudela, euskaraz bizi garela eta ez dugula eraso sexistarik onartzen adierazten da.



## HILEROKOAREN ZIKLOAN MURGILTZEN

Bi tailer hauetan, hilerokoaren erregistroa eramateko modu ezberdinak landu zituen Veronica Satrustegi "Marigorri", aldaketa fisikoak eta emozionalak erregistratu eta horiek interpretatzen ikasteko. Emakume oro bere zikloaren jabe egiteko eta menstruzio ahalduntzea autoezagutzatik bideratzeko lehenengo pausuak ematea izan zen helburua.



## INDARKERIA MATXISTA

Zaldibiako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berresten dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia delako.

Tamalez, indarkeria matxista une oro emakume guztiok, salbuespenik gabe, jasaten dugun egiturazko kaltea da. Azken bi urte hauek ez dira samurrak izan inorentzat. Hala ere, ahulenen azalean jarriz, pandemiak oraindik itxura beltzagoa hartu zuen. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen eguneroko bizitza oraindik gehiago okertu zen etxean itxi gintuztenean.

Pandemia ondoren, Emaginekoen eskutik, erakusketak bat jarri genuen Karrean. Pandemiak utzitako ondorioetatik abiatuz, erakusketan bi ardatz nagusi aurkeztu zituzten: indarkeria matxista eta zaintza-erregimena. Eta bi ardatz horietan, eskuhartze feministarako elementuak plazaratu zituzten.



## GIZONAK ETA PAREKIDETASUNA

2020ko abenduan gizonak eta parekidetasuna lan-tzeko tailer bat egin genuen. Tailer honetan, parekidetasun ikuspegitik, gizon izatearen subjektutasunetik, zapalkuntza anizkoitzetan oinarrituta, indibidualetik hasita kolektiboan bukatuz, ibilbide bati hasiera eman genion. Hiruki larroxak emandako tailer honetan herriko hogeita bat gizonetzko elkartu ziren. Lehenengo saioak izandako arrakasta ikusirik beste bi saio egin ziren.

Emakume eta gizonetzkoen arteko genero ezberdintasunak iraultzeko, garrantzitsua da gizonek, jendartean zein eguneroko bizitzan esleitzen zaizkien eta hartzen dituzten kokapenen kontzientzia hartzea eta dituzten pribilegioen irakurketa kritiko eta zintzoa egitea. Bide horretatik feminismoaren lan-keta ez da emakumeon borroka bakarrik, gizonetzkoek ere matxismoari bizkarra eman behar diote.







## ZALDIBIARA ETORRI BERRIEI, HERRI HARRERA

Azken urteotan norbanakoen prozesu migratzaileen ondorioz aldaketa handiak gertatzen ari dira gizartean. Arrazoi ezberdinak tarteko gertutik edo urrunagotik mugimendu etengabea bizi gara. Horieta-ko askok Zaldibian bilatzen dute babesa, denboraldi baterako edo luzerako.

Komunitate eta herri kohesionatu eta abegikorra helburu, hainbat dinamika burutu dira lau urteko honetan, bai Udaletik, bai herriko eragileekin izandako elkarlanetik ere. Sortu da herrira etorri berrientzat harrera gida, egin dira harrera egunak.

Azken hilabeteetan harrera protokolo bat osatzeko lanke- ta egin da udal barne-mailan, formakuntza saio batzuekin osagarritua. Gaur egun, berriz, hurrengo urratsean murgilduta gaude, herri-harrera antolatzen. Herriko eragileen formakuntza eta bide-laguntza izanik, herrira etorri berrientzat ongi-etorri saioak antolatuko dira urtean hiru aldiz.



ONGI-ETORRI GIDA

HERRI HARRERA INTEGRALA

## ZALDIBIAR BERRIEN TESTIGANTZAK MAHAI INGURUAN

Etxekonekok Elkartarekin batera kulturartekotasuna lantzeko hainbat ekimen egin eta bultzatu dira, besteak beste zaldibiar berrien testigantzak entzuteko saioa.



## LGTBIQ+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Lege jardunbidean lanke- ta handia dago egiteko oraindik ere, transexualitatea behin betiko despato- logizatuko duen lege bat onartzeko edo erregis- tro zibilean genero autodeterminazioarako eskubidea barne biltzeko, esate baterako.

Baina baita gizartean ere, oraindik LGTBIQ+fobia elikatzen duten balioei aurre egin beharrean gaude eta denoi dagokigu borrokan parte hartzea, baita udalei ere.



## SARE SOZIALAK ETA GURE EGUNEROKOTASUNA

Sare sozial eta smartphonek presentzia handia dute gaur egungo gure gizartean. Denon egunerokotasunaren parte dira, batzuetan honi uko egiten saiatzen garen arren. Heldu zein gazte orori eragiten digute, onerako eta txarrerako. Beste gauza askok bezala, hauen erabilpenaren arabera, abantailak eta desabantailak dituzte. Honen inguruan gehiago jakiteko asmoz etorri zen guregana Julen Linazasoro, batez ere gazteei bideratutako hitzaldi bat ematera.



## HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO UDAKO JARDUERAK

Uda iritsi eta urte sasoi honetan aisialdiak inoiz baino presentzia gehiago hartzen du gure egunerokoan. 4 urte hauetan, udararo, 2-16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat euskarazko aisialdi hezitzaileak antolatu ditugu. Bertan, 100dik gora haur eta gaztetxok parte hartzen dute. Jarrai dezagun beraz aisialdiko eremuari behar bezalako balioa ematen eta heziketa integralaren alde lanean urratsez urrats.



## HAUR ETA GAZTETXOAK BERDINTASUNEAN HEZTEN

Ikuspegi feministan formatu eta eragin asmoz, hainbat saio eta proiektu egin dira herriko haur eta gaztetxoekin, Emaginen eta Lardizabal Eskolaren parte-hartzearekin. Ikaskuntza ugaziz gain, hainbat bideo-sorkuntza ere egin dira.



GAZTETXOEK EGINDAKO BIDEOAK



## JOLAS ETA HEZKUNTZA EREMU BERRIA ESKOLA AURREAN

Proiektu hau eskolako kanpo espazioa jorrazteko batzorde mistoan landu zen 2021-2022 ikasturtean zehar eta 2022ko udaran egin ziren jolas eremua eraikitze lanak.







2

# KULTURA KIROLA ETA EUSKARA







KULTURA, KIROLA ETA  
EUSKARA ZINEGOTZIA

## Jon Luloaga Aranburu

EUSKARA, KULTURA ETA  
KIROL GAIETAN HERRIAN ETA  
UDAL BATZORDEETAN PARTE  
HARTU ONDOREN, 2019KO  
EKAINEAN ZINEGOTZI ARDURA  
HARTU ZENUEN GAI HORIEXEK  
JORRATZEKO.

Orokorrean ezaguna izango zenuen herriko egoera euskara, kultura eta kirolari dagokionez, ezta?

Euskara eta kulturaren kasuan bai, kirolaren egoeraz gutxiago nekien. Kirola ikusi bai baño egin... gutxi.

Halere, ez da berdina izango herritar bezala parte hartu izan duzun garaia edo orain zinegotzi bezala. Hau nola bizi duzu?

Niretzat desafio bat izan da, gauzak egiteko moduak aldatu egin behar izan ditut. Hasieran ez nintzen konturatu instituzio bat ordezkatzek dakartzan nekeez. Esaten dituzun hitz guztiak neurtzen dira eta berritsua naizenez zaindu beharreko hitz gehiegi dauzkat!

Garai batean ekintzak aurrera ateratzeko material eskasia izaten genuen. Gaur egun materialez osatuta gaude, baina giza indarra da falta zaiguna. Herriko taldeak, herritarrak eta udala elkar osatzeko behar nabarmena sumatzen dut. Konponbidearen zati handi bat hiru atal horien osasunaren baitan dago.





**Baina gizartean orokorrean eta euskara, kultura eta kirola bezalako gaietan bereziki, zerbitzuaren eta erakundeen zain egotearen ikuspegia indartzen ari dela dirudi, herri-sorkuntza eta auzolanaren kaltetan.**

Egunerokoan ikusten dugunez, gizartea aldatzen ari da, indibidualismoa eta enpatia falta indarra hartzen ari dira. Lehen, inoren zain egon gabe, taldean bildu eta ekintzak aurrera eramaten genituen (kontzertua, antzerkia...).

Orain taldean aritzeko zailtasun handiagoak ditugunez instituzioen zain jarri ohi gara eta kritikarako ere erraztasun handia dugu, horrek lanean ari diren gutxi horiek higitzen dituelarik.

Nire ustez honek badu konponbidea. Presaka eta beti itota ibili ordez, guretzat denbora hartzea, norbere buruarekin eta ingurukoekin egoteko tartea izatea da gakoa. Horrek sormena eta ekimena ekarri ditzake.

**Administrazioan gaur egun dauden betebeharrak ezagutzea ere egokituko zitzaizun, eta horiek ere ez dira oso lagungarri izango, noski.**

Ez horixe. Nire bizitzan topatu dudan munstro handiena ezagutu nuen udalera sartzean, ADMINISTRAZIOA. Eraginpean duen guztia bere forma eta egiteko modura erakartzen duen zulo beltza balitz bezala, gehiegi gerturatzen zaizkion antolaturiko ekintzak xurgatzen ditu.

Munstro hau garaitzeko uler-tu egin behar da aurrena. Dituen

alde onak gureganatu eta guretzat balio ez dutenak alde batera utzi. Herriko ekintzak zulo beltzaren inguruan orbita egoki batean jartzean dago kokka. Administrazioetik behar dituzten bitartekoak jasotzeko neurrian baina bere kabuz ekintzak aurrera eramanez.

**Euskarari dagokionez, nola ikusten duzu egoera Zaldibian?**

Saiatuko naiz ahalik eta laburren agertzen nire ikuspuntua. Kopuruz gutxiengoa diren herritarretatik hasiko naiz, euskara ez dakiten herritarrak. Azken hamarkadetan etorriak, batez ere Espainiatik hasieran eta Afrika / Europa ekialdetik ondoren.

Garai bakoitzaren aurrean zaldibiarrok modu ezberdinean jokatu dugu. Gaur egun, gure euskaraz bizi nahi izatea beraienganako txar-keria ez dela transmititzen saiatzen ari gara. Euskararen balioa erakustea, hau seme-alabei transmititu diezaioten bermatzea eta euskaraz ez badakite ere herriaren parte izateko bideak jartzea ezinbestekoak dira nire ustez.

**Belaunaldi berriek euskara jasoko dute, baina bitarteko trantsizioan halako "paktu" bat gauzatzen ari da herrian euskal hiztunak direnen eta ez direnen artean.**

Zorionez oraindik Zaldibiako herritar kopuru handienak euskaraz badaki. Erabilerak beherantz egin badu ere, gure herriak euskararen arnagune izaten jarraitzen du. Halere, egunerokoan badugu zer hobetu: euskal hiztun askok gaztelera erabiltzeko joera dute, guraso eta seme-alaben arteko

harremanean ere badira hobetu beharrekoak...

Hizkuntza-ohituretan eta kontzientzian erlaxatu egin gara eta hau aldatu beharra dago. Kezka eragin beharko ligukete hainbat jokaerek eta hauei konponbidea jartzeko lan egin behar da. Ikusi besterik ez dago marrazki bizidunetan euskarazko erreferente falta zer eragiten ari den gure txikiengana.

Gorputz osasuntsua izateko jaki osasuntsuak behar diren bezala, garrantzia bera eman beharko genioke begi eta belarrietatik jaten dugunari. Nagiak utzi eta lanerako garaia da!

**Batzuetan nekagarria egiten da egunerokoa ordea...**

Bi pauso aurrera, bat atzera, pauso erdi bat aurrera... egiteko asko dago. Nire anaietako batek behin esan zidanarekin gogoratzen naiz nekatuta nagoenean: Zaldibia, zaldibiarrek nahi duten bezalakoa izango da, dena ez dago zure esku.

Esaldi triste xamarra dirudien arren badu bere kokka... herritarrok zer nahi dugun... Hau garbi jartzeak, gure aurrean den bide luzea samurtuko digu eta bakardadean borroka egiten ari garenen zama arindu.

**Kulturaren berriz, aipagarriak dira pandemia dela eta hartutako neurriek izandako eragin kaltegarriak, batez ere euskararena bezalako kultur mundu txikian. Nola kudeatu zen hau herrian?**

Herri gehienetan bertan behera utzi zituzten kultur agendak ko-



munikabideetatik zabaltzen zutenekin izoztuta: neurri zorrotzak, oztopoak, betetako ospitaleak, hildakoak...

Guk garbi geneukan inoiz baino beharrezkoagoak zirela kultur ekintzak eta hauek antolatzeari ekin genion. Gurea bezalako herri txikian elkarren arteko harremanak mozteak gure nortasuna desagerraraziko zuela jakinik lanean jarraitu genuen.

Arriskuak ekiditeko eta herri-tarrak seguru sentitzeko neurri zorrotzak jarri genituen, baina ikusten genuen kultur munduarentzat bezala gure bizipozarentzat ere garrantzitsua zela tau-padari eustea. Haurren inguruan “Uda bizia” antolatu genuen lehenik, eta segidan etorri ziren Udazken eta Negu bizien programak.

Herriko taldeentzako ere kolpe gogorra izan da pandemia. Beraien lana gelditurik edukitzeak aurretik zeuzkaten eritmoak geldiarazi zituen. Lan asko egiten ari dira beraien proiektuak berotu eta berriro abiada bizian jartzeko.

**Herriko kultur eta kirol taldeak aipatuta, legegintzaldi honetan hainbat saio egin dira herriko talde guztiak bilduz, ezta?**

Pandemiak elkarlan berezia eskatzen zuen, 2021eko maiatza-ekainerako osatu genuen egitaraua aipatuko nuke. Ordurako, taldeak beraien eguneroko jarduna erdi-normaltasunez gauzatzen ari ziren, baina lan hori herriari bistaratzeko plaza falta zutenez, denon artean antolatu genuen.

Hari horri tiraka garrantzitsua ikusten genuen herriko kultur eta kirol taldeak batera elkartzearen ideia. Banaka talde guztiakin egoten gara udaletik, baina guztiak urtean bi aldiz bada ere elkartzea, elkarren berri izatea, urteko agenda koordinatzea, guztiak izan ditzaketen behar eta gabeziei elkarlanean erantzutea garrantzitsua da.

2022an, apirilean eta abenduan egin ziren bilkurak, balorazio onak jaso dira eta bide horretan jarraituko dugu.

**Herriko azpiegiturei dagokionez, zein da egoera eta zeintzuk erronkak?**

Goierriko beste herriekin konparatuz, azpiegitura onak dauzkagu. Kulturari bideratuta hor ditugu Karreane Kultur Etxea, Artxanberriko Kimuene Kulturgunea, udaletxeko Herri Aretoa eta Antzokia. Gehienak berriak dira eta egoera onean daude, Antzokia da eguneratzeko geratzen zaiguna. Hau eraberritze-proiektuari laster ekingo diogu, ondoren diru bila hasteko.

Gure Ametsako biltegia (plazako biltegia) ere garrantzitsua da. Udal langileek Artxanberrin biltegi berria dutenetik, plazakoa, kultur taldeek ekintzetarako erabiltzen diren ohiko materialarekin hornitu da. Bertatik bertara, baliabide ugari eskainiz.

Gaur egun sarraila elektronikoak daude azpiegitura ia gehienetan, honek giltza berriak sortzeko erraztasuna ematen du taldeen beharretara egokituz. Honi lotuta udal azpiegituren katalogoa ere osatu dugu, eta lokal eta materia-

len erreserbetarako web orria ere aurten jarriko da martxan.

**Eta kirolari dagokionez? Herritar askok herriko eskaintza gutxitxo jotzen dute.**

Argi dago kirola eta ariketa fisikoa egitea osasungarria dela eta gaur egungo gizartean horretarako joera indartzen ari da. Inguruetako herrietan eskaintza handitzen doa, batez ere herri handietan.

Hori dela eta, askotan ikastaroetako monitoreak aurkitzeko arazoak izaten ditugu, normalean ikastaroak herri guztietan egun-ordu berdinetan nahi izaten ditugulako. Gainera, egungo administrazioaren barruan, epe motzeko kontratazioak bideratzea ez da erraza eta kirol-modek ere eragin handia dute, aldiro aldatzen baitira.

Mendia, Olaldeko parkea eta osasun zirkuitua, plazako frontoia, eskolako kirol-zelaia, erreka... aire libreko aukerak ugari dira gurean. Areto itxietan Resti eta Luberriko gimnasioa kokatuko genituzke. Restin argiteria aldatu da, argiak pizteko sistema elektronikoa jarri da eta aurten hormak margotuko dira. Luberrin, berriz, bertan egin izan diren jarduera batzuk Kimuenera aldatuko direnez, kirolera bideratzeko lanketan gabiltza. Beste herri batzuetan badira esperientziak eta epe motzean kirolerako eskaintza handitzea espero dugu, herritarrek ariketa fisikoa Zaldibian bertan egin dezaten.



# Geuretik sortutako herri bizia

COVID-19AK HANKAZ GORA JARRI DU KULTUR MUNDUA. SAKONEAN GALDERA BAT: KULTURA ZER DA, AISIALDIKO OSAGARRI BAT, EDO GIZARTEAK ETA PERTSONEK AURRERA EGITEKO BEHARREZKO DUGUN PALANKA?

## ATARI DIGITALAK LEHEN BIDELAGUN

Zaldibia.org herri ataria ondo zaindu beharreko altxorra dugu herrian, eta konfinamenduaren lehen egunetan huraxe izan zen etxe gehienetara iristeko bidea. Zer ez zen antolatu! Marrazki lehiaketak, mozerro eta pintxoanek, sukaldaritza tailerrak, etxean ariketa fisikoa egiteko azalpenak, ipuin kontalariak, Aitziber Garmendiaren saioa, Ximonena, euskal dantzak, papiroflexia...



Bakarren bat egon liteke oraindik galderari erantzuna bilatu ezinda, baina gehienoi argi geratu zaigula esango genuke. Ez, kultura ez baita osagarria, extra, apaingarria. Kultura bizitza baita, barne zein kanpo, banako zein talde.

Gauek goizera etxean itxita geratu ginen, konfinatuta, bakar-tuta, eguneroko sareak moztuta. Janaria eta beharrezko produktak bermatu behar ziren, noski. Baina lehen momentutik argi genuen: kultura eta herri-babesa ere aktibatu behar zen.



#INBUIA!  
BIDEOA

Baita herritarren ekimenez egin eta sona handia izan zuen #inbuia! ekimena ere, balkoirik balkoi zaldibiarrek elkarri dei egiten ziotenekoa.

## FESTA GUZTIAK BERTAN BEHERA

2020ko udaberrian Saturdiko festak izan ziren bertan behera geratu ziren lehenak eta segidan erori ziren alamartxoak, gazte festak, Txamarretzeko festa, herriko festak...

2022an berreskuratu ahal izan dira guztiak, baina luze egin dira bi urte. Bitarte horretan keinu txiki bidez edota ekimen berriekin eutsi zitzaion ilusioari eta garrantzitsuenak, festak antolatzeko gaitasun eta gogoari.



## TXARRENARI ONENA ATERATZEA HELBURU, IRUDIMENA TRESNA

Nola lortu betiko helburua, betiko moduan egin ezin denean? Tontor berera iristeko bide berriak asmatu behar izan dira, eta bizkarrean karga handiko motxilarekin, ez pentsa!

Irudimena eta elkarlana izan dira horretarako giltzarri. Martxotik ekainera eskola presentzialik ez herriko haur eta gaztetxoek, guztia online. Maiatzera arte etxean itxita, ondoren pixkanaka kalera. Euskara, harremanak, jolasa, natura... udako jarduerak ezingo dira egin, baina bere helburuak lortzeko zerbait egin ahal izango dugu ez? Buruari eragin, sareak osatu, antolatu eta hortxe Uda bizia programa.

Saiakerak merezi zuela ikusirik etorri ziren segidan, Udazken bizia eta Negu bizia egitarauak ere.





## EGOERA LUZERAKO DOA, EUTSI DIEZAI OGUN EGUNEROKOARI

2020ak hala beharko zuela ikusi genuen urtearen amaierarako, baina urte berriak ere lehengo lepotik zekarren burua. Nola kudeatu neke hori eta nola lortu herriko kultur bizitzari eustea?

Erantzuna erraz topatu genuen: taldeen egunerokoa lagundu eta elkarlanean helburuak jarri. Horregatik osatu zen *Zaldibian, udaberrria loretan* egitaraua. Honen baitan, kurtso amaierarekin batera, emanaldiak egin ahal izan zituzten taldeek, urtean zehar egindako lana erakusteko aukera izanez eta egindako esfortzuari zentzua emanez.

Aitortu behar da, ordea, talde eta ekimen bakoitzak bere errealitatea bizi duela eta batzuentzat pandemia eta hark ekarritako murrizketak erabat izan direla kaltegarri. Lehen kili-kolo zebilenarentzat harri handiegia izan da egoera hau eta aurrera egiteko zailtasun eta ezintasunak ere agertu dira. Denborak eta batez ere zaldibiarren borondateak esango dute ea galdutakoak berreskuratuko diren edo ez.





## UDALBILTZA ETA “GEURETIK SORTUAK” PROIEKTU BERRIA

Zaldibiako mugez harago, Euskal Herriko kultur bizitza osoak ere astindu latza jaso du pandemiaren eta hartutako neurrien ondorioz, lehenaz gain.

Udalbiltza Partzuergoak errealitate eta behar horri erantzuteko proiektu aitzindaria jarri zuen martxan partzuergoko kide diren herrien laguntzaz, tartean Zaldibiarenaz.

Euskal sortzaileak Euskal Herriko lurralde guztietako herriei lotu eta egonaldien bidez eleberri, antzerki eta film laburren ekoizpena sustatzea, horixe proiektuaren muina. Sortutakoa, ondoren, herriz herri taularatu.

### \*Peru Calabaza Saban idazlea eta “Zaldibiako samurtasunaren historia”

*“Nola kontatu liteke herri baten xamurtasunaren historia? Posible al da hori?”*

*Nik hiru astez herriko adin ezberdinetako pertsonekin elkarriketa intimo samarrak egingo ditut, herrian ikusi edo sentitu dituzten xamurtasunarekin lotutako uneei buruz mintzatuz. Testigantza erreal horietatik fikzionatu egingo dut gero Zaldibiaren xamurtasunaren historia, eleberri labur baten forma emanez. Herriaren ondareari dagozkion benetako kontakizunak oinarri, pertsonaia batzuk sortu eta Zaldibian zehar ibiliko ditut.”*



Liburua eskuragarri dago lotura honetan eta Zaldibiako Udal Liburutegian.



## 2022AN BAI, LORATU ZEN HERRIA

Neurri gehienak bertan behe-geratzearen ondorioz, esan liteke urak bere bidera itzuli zirela 2022an, gutxienez ekintza kulturei eta herriko agendari dagokionez. Auzo eta herriko festak, taldeen ekimenak, ikastaroak...

Aurrera begira, herri bizitzaren ur emariak jarrai dezan lanean segitzea dagokigu, denon artean, tantaz tanta.

Gainera, herriko kultur eta kirol taldeen arteko harremanari eutsi zaio, urte hasieran eta amaieran guztiak elkarrekin bilduz. Horrek,

herriko agenda koordinatzeko eta taldeek elkarren jardunaren berri izateko balio izateaz gainera, talde bakoitzaren indar eta ahulgu-neak ezagutu eta elkar laguntzeko aukera eman lezake.

Izan ere, talde hauen atzean hezur haragizko pertsonak daude, bere denboraren zati bat taldeari eta ondorioz herriari eskaintzen diotenak. Borondate eta transmisio hori beharrezkoa izango da gaur bezala bihar ere, eta gutxi batzuek dena baino denek zerbait ematea izan liteke jarraipenerako gakoa.





# Zaldibia eta euskara: uztarria proba berrien aurrean

EZ DUGU ZALANTZARIK, ZALDIBIA ETA EUSKARA UZTARRI BEREAN LOTUTA DOAZ ETA HALA IZATEN JARRAITZEA NAHI DUGU. EUSKARA GUREA ETA GURE HERRIARENA DELAKO, ETA GU ETA GURE HERRIA EUSKARARENAK.

Azken urte hauetan, ordea, proba eta erronka berriak etorri dira. Geldirik egotea atzera egitea da, beraz, nola egin aurrera?



## PANDEMIA ETA KONFINAMENDUA. EUSKARA ERE BAKARTUA?

Hizkuntza darabilgu norbere barruan eta besteekin harreman-tzean. Baina zer gertatzen da harreman horiek hankaz gora jartzean? Etxean itxi gintuzten eta gurekin batera gure hizkuntza. Eta larriagoa zena, etxe batzuetan euskarak ez zuen presentziarik.

Erabilera indartzeko behar gehiena zutenek, beraz, traba handiak zituzten euskaraz aritzeko ere. Eskolak itxita, lagunekin ezin jolastu. Eskolatik irakasleek telefonoz deituz, jarduerak etxeetara banatuz, liburutegiko materialak helaraziz, interneterako sarbidea bermatu eta euskarazko baliabideen erreferentziak emanez...

**Saiakerak saiakera, harremanak eta egoera normalizatu izanak ekarri du itxaropena, nahiz eta kaltea osatzeko denbora eta lana beharko den.**

Lan horretan bidelagun garrantzitsua da udalarentzat UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Eskuz esku aritzen gara herriko euskara plana aurrera eramateko eta kanpaina zehatzak egiteko ere: errenta aitortpena, bertatik bertara, ticket bai euskaraz, formakuntza saioak...

Aipagarria da 2021ean UEMAK udalerri euskaldunetan burututako hizkuntzen kale erabilera neurketen emaitza txostena.



## LAGINA

2021eko maiatzaren 3tik aurrera, 16 egunez jarraian, egunero ordubetez egin ziren neurketak, herri-gunean eta jendea ibili ohi den lekuetan. Guztira 339 elkarriketa, 1113 solaskide. Laginak, beraz, %95eko konfiantza maila du.

## ERABILERA OROKORRAREN EMAITZA

2021eko neurketetan, hiztunen %85,3 sumatu dira kalean euskaraz, gaztelaniaz %9,4 eta beste hizkuntzetan %5,3.

2017ko neurketekin alderatuta behar akada arin bat izan du euskararen erabilera, baina ez gaztelaniaren mesedetan, hau ere 0,3 puntu jaitsi baita. Euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzen erabilera egin du gora, %1,5etik % 5,3ra, herriko biztanleriaren ezaugarri aldaketaren adierazle.

## SEXUA ETA ADINA

Emakume edo gizon erabilera antzekoa da eta adinaren arabera berriz, gazteen artean erabiltzen da gehien euskara, eta ondoren haurren artean. Dena dela, azken neurketatik hona 10 puntu jaitsi da haurren euskara erabilera.



HIZKUNTZEN KALE ERABILERA NEURKETA ZALDIBIAN (2022)





## EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA HELBURU ETA HERRIKO ERREALITATEARI ERANTZUTEA GILTZARRI

Hartu beharreko neurriak eta egin beharreko lana lekuan lekuko errealitateak aztertuz zehaztea ezinbestekoa izaten da. Behin hori eginda, helburu partekatua adostu, bidelagunak elkartu eta lanari ekin.



Errezeta horri jarraiki sortu zen “Euskara eta Kulturartekotasuna” proiektua Zaldibiako hezkuntza komunitatearen baitan eta bertan probatzen eta finkatzen ari diren filosofia, metodologia eta tresnengure herriko errealitatean euskararekiko ditugun erronkei aurre egiten lagunduko digute.



Herritarrak, eragile ezberdinak eta Udala, guztiok dugu bide honetan lanean jarraitu beharra, euskaraz eta elkarrekin bizi den Zaldibia helburu.



HIZKUNTZAK  
ERRAIETAN  
DOKUMENTALA



EUSKARA ETA  
KULTURARTEKOTASUNA  
PROIEKTUA



EUSKARA  
LAGUNTZAK





## UEMAKO EUSKARA-TEKNIKARIA

# Garikoitz Goikoetxea



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

ELDUAIN, 1989.  
KAZETARITZAN LIZENTZIADUNA  
ETA HIZKUNTZA PLANGINTZAN  
UNIBERTSITATEKO ESPEZIALISTA.  
UEMAKO EUSKARA-TEKNIKARIA.



GARIKOITZ GOIKOETXEAREN  
IRITZI ARTIKULUAK  
BERRIA EGUNKARIAN

Sarrera (elkarrizketatuaren aurkezpena, jaioteguna-jaioterria, ikasketa eta egungo lanbidea...)

Elduain, 1989. Kazetaritzan lizentziaduna eta Hizkuntza Plangintzan unibertsitateko espezialista. UEMAKo euskara-teknikaria.

Euskara eta kulturartekotasunaren proiektu honetan askotariko eragile eta pertsonak elkar-tu zarete: irakasleak, gurasoak, Etxekonekok Elkartea, Zaldibiako Udala, UEMA, baita Amelia Barquin eta Karmele Perez HUHEZIKo irakasle eta adituak ere. Nola sortu da josteta hau?

Eskolak Amelia Barquinen hitzaldi bat antolatu zuen 2021eko otsai-lean, hezkuntza-komunitatean ba-





zeudelako hainbat kezka gai horri buruz. Hainbat eragiletako kideak bildu ginen, eta hura izan zen lehen hazia.

Inportantea izan da josteta hori, bakoitzak bere ikuspegia ekartzen diolako gaiari.

Bageneukan bentaja bat: aurretik ere ari ginen elkarrekin lanean —adibidez, eskolak lantzen du UEMAren hezkuntza-proiektua—, eta hori oinarri sendoa izan da proiektu honetan ere, lankidetzaz ezinbestekoa izan baita.

**Hezkuntza-komunitatean murgilduta daudenek gehiago edo gutxiago ezagutuko dute proiektua, baina hortik aparte ezagutzen ez duenari nola azalduko zenioke? Zein da helburua?**

Korapiloak askatzea izan da helburua. Galdera asko ziren: nola kudeatu hizkuntzak, Zaldibiaren gisako arnasgune batean, baina gero eta aniztasun handiagoa izanda? Nola bermatu euskaraz bizi ahal izatea eta, aldi berean, euskaraz ez dakitenekin egoki komunikatzea?

Gorabehera batzuk izanak zirenen hezkuntza-komunitatean, eta gaiak deserosotasuna sortzen zuen.

Txalotzekoa da hezkuntza-komunitatean pauso bat eman zela aurrera, eta erabaki zela gaia esplizitu egitea: mahai gainean jartzea eta hitz egitea.

**2021-2022 kurtsoan proiektuaren lehen urratsak egin dira. Zein da balorazioa, zer emaitza utzi ditu?**

Emaitza praktikoa asko utzi ditu, eta egiteko estilo bat. Emaitza praktikoei dagokienez, adostu da nola jokatu den egoera batzuetan: gurasoekin bilerak egitean, gurasoen arteko whatsapp-taldeetan, gurasoei eskolako abisuak bidaltzean...

Aipatutako helburua betetzea izan da oinarria: dena euskaraz egitea, baina euskaraz ez dakitenei ulertzeko bideak jarrita.

Adibidez, bilerak Telegram aplikazioaren bidez egiten dira, euskaraz ez dakitenei aldebereko itzulpena eginez; idatzizkoan ere, Whatsappetik Telegramera pasatzen ari dira, itzulpen automatikoak egin ahal izateko. Horrez gain, prozesua da nabarmentzekoa: ordu askoko lana izan da, jende askok parte hartu du, eta elkarlanean egin da bidea. Balio izan du hezkuntza-komunitatean hizkuntzei buruz dauden ezinegonak eta iritziak jasotzeko, eta, aldi berean, euskararen berri emateko. Zeren Zaldibiako herritar guztiek ez baitakite zein den euskararen egoera, zergatik ari garen euskara bultzatu nahian. Eta hori ulertzea nahi badugu, azaldu egin behar zaie.

**2022ko ekainean, Hizkuntzak errailetan dokumentala aurkeztu zen, eta protagonisten arteko solasaldia ere izan zen antzokia beteta zela. Proiektu honen barruan kokatzen da ekimen hori, ezta?**

Prozesu honetan hasieratik eman zaio garrantzia komunikazioari, zer egiten ari garen esplikatzeari. Kasu honetan, interesgarri ikusi zen egindako lana jasotzea, baina

ez soilik bilketa bat egiteko, baizik eta erabilgarri izateko.

Dokumentala erabili dugu prozesuan parte hartu dutenei emaitzak azaltzeko, baina baita komunitatera datozen kide berriei hau dena esplikatzeko ere.

2022an, adibidez, irakasle eta guraso berriei saio bat egin da, eta hor erabili da dokumentala. Zaldibiatik kanpo ere interes handia sortu du prozesuak, beste eskola batzuk ere ari dira pausoak ematen, eta horientzat ere interesgarria da. Bi bertsio dauzka dokumentalak, eta mila ikustalditik gora Youtubean.

**Euskara eta kultura-artekotasunak lanean jarraitzea eskatzen dute, eta 2022-2023 kurtsoan ere lanean segituko duzue. Guztia aipatzea zaila bada ere, zer nabarmenduko zenuke aurtengoaz?**

Aurtengo helburua da iaz egindako lana sistematizatzea. Horrelako proiektuek izaten dute arrisku bat: lehen urtean indar handia egin, aldatetak martxan jarri, baina gerora lehengo inertziara bueltatzea. Hori eragotzi nahi dugu. Horregatik, 2022-2023an ere martxan jarraituko du talde eragileak, Huheziren aholkularitzak ere bai, eta helburua izango da iaz ikusitako hutsuneak osatzea eta pausoz pauso joatea.

Hemen ez da bidea bukatu: bide bat hasi da, eta badakigu pausoak ematen jarraitu beharko dugula, gure herrietan eta hezkuntza-komunitateetan gero eta aniztasun handiagoa izango dugulako.



ZALDIBIAKO UDALEKO  
KULTUR DINAMIZATZAILEA  
ETA KIROL KOORDINATZAILEA

## Lurdes Arteaga Mendizabal

1959, DONOSTIA

**Nortasun handiko herri bezala definitu izan duzu Zaldibia eta beti nabarmendu izan duzu herriarekiko dugun sentimendua. Horrek, isla du herriko bizitzan, ezta?**

Bai, uste dut nabaria dela zaldibiar sentimendua handia dela, eta herrian sortzen diren hainbat ekimenetan islada duela. Garrantzitsua da adinkide, "kintoen" irudia, baina aldi berean herria txikia izanik, adin ezberdinetakoen arteko harremanak ere ohikoak dira, eta horrek, nire ustez, eragina du herriartetasun sentimenduaren transmisioan.

**Nola ikuten duzu kultur eta kirol taldeen egoera?**

Arlo ezberdinetan aritzen diren herriko kultur eta kirol taldeen dinamika garapen ezberdina izan dute, izaera eta funtzionamendua ezberdina dute. Azken urteetan gizartearen izan diren aldaketek ere isla dute Zaldibiako gizarte-bizitzan, eta nola ez, taldeetako egoeran ere. Belaunaldien aldaketak ere izan dira. Talde batzuk iraunkortasuna lortu dutela esan daiteke, beste batzuk berriz urte hauek gorabeherak izan badituzte ere eutsi diote. Talde berriak ere sortu dira. Guztiek behar dute arduradun batzuk aritzea taldearen dinamika eusten.

Kultur eta kirol taldeen sarea oso garrantzitsua da herriko bizitzan, beraien parte hartzearekin herrian

bizirik mantentzen dute, herri-tarren arteko harremanak sustatuz, indartuz... Orokorrean egoera nahiko ona dela esango nuke.

**Lau urteko honetan ezin aipatu gabe utzi pandemia. Zure lanean ere bete bete eragina izango zuen...**

Zalantzarik gabe, 2020ko martxoaren 13tik, Zaldibian, beste herrietan gertatu zen moduan, egunerokoa erabat aldatu zen, eta zerbitzu publikoak murriztuak geratu ziren, eraikinak itxiak, jarduek gabe... Ohiz kanpoko egoera berri horren aurrean denok, herri-tarrak eta langileak moldatu behar izan ginen, zerbitzuak eskaintzeko bideak moldatu.... Kaleak hutsak





zeuden, elkarguneak itxiak, egoera zaila, triste. Kirol eta kultur guneak bizirik egotetik, hutsak egotera pasaginen. Jendaurreko zerbitzuak bermoldatu behar izan ziren, telematikoki, bide berri honentzat laguntza eskaini, aurrez txanda hartuz...

Pertsonaren osasun fisiko eta emozionala orokorrean hartu behar dela kontuan izanik, pandemiaren fase ezberdinetan, eta osasun egoeraren bilakaera kontuan hartuz, adin ezberdinetako herritarrei egoera zail horretan aisialdi garaian formula ezberdinak eskaintzeko asmoz, herriko eragileek eta Udalak, urtean zehar hainbat ekimen antolatu zituzten, beti ere osasun neurriak kontuan hartuz.

**Euskal Herriko mailan kultur eta kirol munduan ere nabarmena izan da eragina. Zer esango zenuke egoera orokorraz?**

Iruditzen zait azken hamarkadan kultur arloan, diziplina ezberdinetan ekimen eta produkzio interesgarriak gauzaten ari direla. Euskal produkzioan bolondres lana handia dago, gaur egun ere oraindik profesionalizaziorako jauzia zaila baita. Sortzen diren taldeak zaindu behar ditugu, beraien ibilbidean lagundu, balioan jarri, euskarazko produkzioa bultzatu. Kultur kontsumoan arreta jarri behar dela iruditzen zait, eta saiatu ihes egiten komunikabide nagusien mezu subliminalengandik.

Pandemiak kultura arloan ere, zailtasun ugari sortu zituen, eta hainbat proiektu bazterrean geratu ziren. Bizi dugun egoera horrek gure bizitzan aldaketa ugari suertatu ditu, lana egiteko eta mugitzeko moduan, pertsonen arteko harremanetan, kontsumitzeko

ohituretan... Pandemiaren aurretik goranzko joera zegoen aisialdi garaian interneteko erabileran, plataforma digitalen produkzioaren kontsumoan... eta orain areagotu dela esango nuke.

Kirol arloan, kirol batzuk duten nagusitasuna ahaztu gabe, Euskal Herrian praktika anitza dela esango nuke, bai taldeko kiroletan, baita banakakotan ere. Afizionatu mailan, diziplina ezberdinetan emakumezko nahiz gizonezko kirolari kopuru handia dago.

Kultur eta kirol arloko jardueren praktika haurtzarotik lantzea, hainbat ohitura sortzea, egunero bizimoduan txertatzea, garrantzitsua da.

**Herritarrekin harreman etengabea duzu ezinbestean zure arduramedio eta hiru hamarkadatik gora daramatzazu Zaldibian lanean. Zer nabarmenduko zenuke bilakaeraz?**

Lehen aipatu moduan, hamarkada hauetan gizartean izan diren aldaketek ere isla dute Zaldibiako gizarte-bizitzan. Herriaren antolamenduan aldaketa ugari eman dira, eraikuntza berriak egin dira, herriko gazte askok beraien bizitza proiektua herrian egiteko hautua egin dute, Zaldibiara bizitzera persona ugari etorri da... Une honetan aniztasun handia dago.

Lehen esan bezala, herriko eragileen lana garrantzitsua da herriko dinamikarako eta herritartasun sentimendua lantzeko. Herri txikia izateak laguntzen du kaleko harremanetan, eta zer esanik ez, ikastetxea herrian izateak. Eskolako komunitateak garrantzia handia du, bertan familia kopuru handia biltzen baita eta eskolaz kanpoko ha-

rremanetarako bidea ematen duelako.

Euskararen erabileran ere aldaketak eman dira, eta bizirik irauten badu ere, kalean eta aisialdian erabilerara bermatzeko lanean jarraitu behar da. Herrian eman den bilakaerak aukera bat izan behar du komunitatea eta kide-tasun-sentimendua indartzen jarraitzeko, guztiok auzolanaren filosofiaren pean lan egin ez, herri bat bizirik mantentzeko.

**Eta aurrera begira jarrita, zein erronka aipatuko zenituzke euskara, kultura eta kirol arloetan Zaldibian?**

Herri anitza, parekidea, euskalduna, ingurumenarekin adeitsua, eta bizirik mantentzeko ezinbestekoa da denen artean lanean jarraitzea, elkarbizitza landuz.

Euskararen erabilera bermatu beharra dago, eta euskarak jarraitu behar du izaten, herritarren arteko harremanetarako ezinbesteko tresna. Adin txikietatik hizkuntzarekiko garrantzia eta maitasuna landu beharra dago. Etxeetan ere hizkuntzaren garrantziaz jabetu eta barneratu.

Herriko eragileen sarea indartu, proiektu amankomunak landu, diziplina ezberdinak uztartu, sortu diren edo sortzen diren unean uneko ekimenei jarraipena eman antzerki tailerrak, bertso eskola, txaranga...

Kirolaren bueltan, berriz, adin guztietako herritarrei kirola edo ariketa fisikoa egiteko aukera bermatzeko garrantzitsua ikusten dut. Horretarako azpiegitura aldetik hobekuntza lanak egin behar dira: kirol guneetan, antzokian edo kultur etxean, esaterako.



KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA

# LAU URTE MOTZEAN

**BAKARTUTA ERE ELKARREKIN  
ETA ELKARRENTZAT SORTZEN  
JARDUN GENUEN.**

Euskara etxeetara eramateko baliabideak zabaldu genituen, asteburuetarako egitarauak sortu genituen, Aitziberren ikuskizunarekin, Marisolen sukaldaritza ikastaroarekin eta pintxo lehiaketa nahiz marrazki bildumarekin. Zaldibiako musika eskolako kideek etxetik online grabatutako kontzertua osatzera iritsi ginen.



MUSIKA  
ESKOLAREN  
KONTZERTUA  
ETXETIK



**ETXEAN GOXO EGOTEKO  
EUSKARAZKO  
BALIABIDEEN ZERRENDA**



**ZAILTASUNAK ZAILTASUN ETA  
NEURRIAK NEURRI, UDA BIZIA ABIAN**

Distantziak, burbuilak eta musukoa ez ziren nahikoa izan bizi gogoia apaltzeko. Sahararako materiala biltzetik hasi eta Porrotxekin dantza egin, ikuskizunenez gozatu, dantzatu ahal izan genuen bakoitza bere metro karratuan bazen ere. Etxetik aterata lehen ikuskizun eta musika emanaldiak zuzenean.







ARGAZKI  
BILDUMA



UDA BIZIA  
BIDEOA





## DISTANTZIAK MANTENDUZ, KULTURA HAUSPOTU ETA UDAZKENA BIZI

Zein gertu eta zein urrun... Errimak bi oinetan, Txan magoa, abeslariak, Gozategiren kontzertu akustikoa, antzerkiak, ohe elastikoak eta buruarin tailerrak. "Ezin da" esateak ez du balio, modua bilatu behar da, eta bila dabilenak aurkitzen du.



UDAZKEN BIZIA  
ARGAZKITAN



## HERRI KIROLAK, JOLAS ERRALDOIAK ETA GINKANA NEGU BIZIA IGAROTZEKO

Apatxi ipuin kontalaria, Eneko Dorronsororen kontzertua, Lur antzerkia, Ludoteka, 2 urte 4 hilabete eta egun bat filma, Erlauntza filma, Artzainen herri kirolak, jolas erraldoiak eta ginkana... neguan ere izan zen zer eginik.



NEGU BIZIA  
ARGAZKITAN



## UDABERRIA LORETAN, IKUSKIZUNETIK PARTE HARTZERA

2021eko maiatza eta ekainean pauso bat gehiago eginez eta eragile ezberdinen arteko elkarlanarekin egitarau betea antolatu zen: hitzaldiak, kontzertuak, herriko taldeen emanaldiak...



UDABERRIA  
LORETAN  
ARGAZKITAN





## EUSKARA, GURE ARNASA

UEMAren eskutik eremu ezberdinetan lanketa ugari egin da euskararen erabileran indarra jartzeko: tabernetan bertatik bertara kanpaina, euskaraz ez dakitenentzat ikasteko aukera eta laguntzak, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina, euskararen kale erabileraren neurketa edota Kutxabankekin hitzarmena herriko bulegoan euskara hizkuntza ardatza izateko, besteak beste.



## KORRIKA ETA EUSKARALDIA: HITZORDU GARRANTZITSUAK

Legealdi honetan bi aldiz egokitu da Euskaraldia eta behin Korrika, 2020an ezin izan baitzen antolatu. euskaraz batzordetik eta herritar eta eragileen inplikazioari esker, egitarau beteak burutu izan dira.



## JAIK, HERRITIK ETA HERRIARENZAT

Legealdi honetan festek ez-ohiko ibilbideak izan dituzte. 2019an, festa ereduaz eta antolaketaz hitz egiteko beharra aipatzen zen eta pandemia etorrira, 2020 eta 2021eko auzo eta herriko festak ezin izan ziren ohi bezala ospatu.

2022an bai, legealdi hasieran zintzilik utzitako lanketari heltzeko aukera izan zen eta berrikuntza ugariarekin gozatu genuen auzo eta herriko festez.



2019 FESTAK  
ARGAZKITAN



2022 FESTAK  
ARGAZKITAN



FESTEN  
BALORAZIOA



## LIBURUTEGI ZERBITZUA IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO

Karreane Kultu Etxean kokatzen da Zaldibiako Udala Liburutegia. Urtero hainbat ipuin-kontalari eta liburu aurkezpen antolatzen dira, baita Irakurri, Gozatu, Oparitu kanpaina ere, herritarren artean irakurzaletasuna sustatzeko. Itxialdian, liburuak etxeraino bantatzeko zerbitzua eskaini zen, liburu artean murgiltzea denbora arinago pasatzeko modua izan zitekeelakoan.

Liburutegien Sarearen bidez, herrian ditugun liburuez gain, beste herrietakoak ere eskura daitezke modu azkarrean. Informazio osoa Karreane Kultur Etxean duzu eskura.



IRAKURKETA  
PUBLIKOKO SAREA

## AISIALDI ESKAINTZA JOLASA ETA KIROLAREN BUELTAN

Opor garaietan hainbat ekintza antolatu dira jolasan eta kirol-jardueretan oinarriturik. Haur eta gaztetxo guztiei parte hartzeko aukera emanik, elkar harremanak indartzea eta euskarazko herriko aisialdia sustatzea izan dute helburu.



## HERRIKO KULTUR ETA KIROL MAHAIA

Herri txikia izateko, eragileetan anitza da Zaldibia. Kultura, feminismoa, kirola, kultur-aniztasuna, gazteria edota zahartzarora, bakoitzak beretik lanean dihardu. Pandemian elkarlanak emaitza onak eman zituela ikusirik, 2022an herriko kultur eta kirol talde guztiekin batera bi saio egin ziren eta horretan jarraitzea da asmoa.

Saio hauek aukera ematen digute herriko taldeek elkarren berri izateko, herriko agenda koordinatzeko, elkar laguntzeko edota zergatik ez, ekimen berriei bide emateko ere. Diru-laguntza deialdia ere urtero egin da eta zuzeneko hitzarmenak ere sinatu dira eragileekin ekimenak aurrera ateratzen laguntzeko.



HERRIKO  
KULTUR ETA  
KIROL MAHAIA  
1. SAIOA



HERRIKO  
KULTUR ETA  
KIROL MAHAIA  
2. SAIOA





## AZPIEGITURAK HOBETUZ ETA BEHAR BERRIEI ERANTZUNEZ

Azken urteotan hainbat hobekuntza egin dira herriko kultur eta kirol azpiegituretan. Batzuk nabarmentzeko: Toki-Alai frontoi irekia margotzea eta argi berriak jartzea, Resti pilotalekuan eta kirol zelaian argi-sistema berria jartzea edota Kimuene Kulturguneko azken fasea gauzatzea izan dira, Gereziondo izeneko areto berria gehitu zaiolarik.

Ekimen guzti hauek herri biziaren helburuari erantzutera datoz, herritar eta taldeen eskaerak entzun eta iturri ezberdinetako diru-laguntzak lortuta gauzatu direlarik.



## BALIABIDEAK ESKURA

Gurea bezalako herri txiki gutxi izango dute hainbeste baliabide herritarren hain eskura. Hau ez da kasualitatea, ordea, helburua baizik eta oraindik hobekuntzak eta erraztasunak gehitzeko lanean ari gara.

Esaterako, udal azpiegitura eta baliabideen gida pres-tatu du Udalak, herritarrek eta herriko taldeek ezagutu dezaten zer den eskura dutena. Honi loturik, hauek modu errazean erreserbatzeko atari digitala epe motzean izango dela erabilgarri aurreikusten dugu.

Herriko taldeekin ekimenerako, gainera, garrantzia berezia du Gure-Ametsa etxeen azpialdean kokatutako udal-biltegiak, plazako biltegiak. Udal langileen almazena Artxanberrin dagoenetik, biltegi hau ekimenerako materiala gordetzeko erabiltzen da. Hainbat egokitzapen txiki eginez, hau ere hobetzeko erronka jarri da 2023rako.



UDAL  
AZPIEGITURA  
ETA BALIABIDEEN  
GIDA



ERRESERBA  
ATARIA



## KIMUENE KULTURGUNEA: ABIADA HARTZEKO PREST

Artxanberriko etxepean egokitutako kulturgunearen ibilbidea nahikoa itzalean egin da orain arte. 2018an ireki zituen atea, Kultur Etxe Zaharraren (eskola zaharren) eraispena egin aurretik eta momentu hartan helburu horri erantzun zion: han ematen ziren zerbitzuak lekualdatzea, Musika Eskola, Bertso Eskola edo jolas gela, besteak beste.

Ondoren, berriz, pandemiaren itzal handiak bete-betean eragin zion, denbora askoan atea itxita izan zituelarik.

2022an, ordea, urte hasieratik erronka izan zen Kulturgunearen espazio guztiak osatzea, azken fasea

errealitate bilakatuz. Guztira, 7 gelaz, areto batez, bi biltegiz eta hiru komunez osatutako guneari, areto berri bat gehitu zaio horrela: Gereziendo aretoa. Guneko areto handiena da, eta kalearekin lotura zabalena duena.

2023ra begira, orain arte ez bezala kulturgunearen proiektuari abiada emateko baldintzak badaudela ikusirik, lanketarako erronka jarri da.



KIMUENE  
KULTURGUNEA



## LUBERRIKO KIROL ARETOA ETA ANTZOKIA ERE JOMUGAN

Kimuene kulturgunea osatu izanak, Luberriko gimnasioa kirol jarduerara bideratzeko aukera ireki du. Gainera, nabarmena da herriko kirol aukera handitzeko hainbat herritarren eskaera eta eskaintza hori

herrian izateak herri biziaren helburuari ere erantzuten dionez, proiektua aztertzen hasi berri da Udaleko kirol arloa.

Luberriko aretoan hezetasunari eta aireztapen gabeziari egin beharko zaio aurre lehenik, eta kirol-makina batzuk jartzeko aukerak eta bideak ikusten ari gara, horretarako eremua ere egokitu beharko delarik. Proiektua zehazteko bide honetan gaiarekin lotura duten talde eta norbanakoak izan nahi dira bide-lagun eta egin litezken diru-laguntzetara jotzeko adi ibili beharko da.



LUBERRI  
KIROL ARETOA

Herri Antzokiak are esku-hartze handiagoa eskatzen du, isolamendu eta hezetasun arazoak kentzetik hasi, berokuntza-sistema ordezkatzuz jarraitu eta irisgarritasuna hobetzeko hainbat lan egiteraino. 2023an zehar gabezia hauek guztiak aztertu eta aurre-proiektua idazteko erronka jarri da, datozen urteetan bideren bat irekiz gero prest izateko.

Izan ere, erabilera handia duen aretoa da, bai egunerokotasunean zein ekimen zehatzagoetan, eta egokitapen horiek egiteak areagotu egingo luke hori.



HERRI  
ANTZOKIA





3

INGURUMENA  
LANDA GARAPENA  
ETA  
LEHEN SEKTOREA





# Ingurumena, Landa Garapena eta Lehen Sektorea arloen arduradunak

UNAI BELOKI GARMENDIA (2019-2020)

XABIER IRASTORZA JAUREGI (2020-2023)

2019-2023 LEGEGINTZALDIAN UNAI BELOKI GARMENDIAK HARTU ZUEN INGURUMENA, LANDA GARAPENA ETA LEHEN SEKTOREA LANTZEKO ARLOAREN ARDURA. 2020KO URTARRILAREN 22KO OSOKO BILKURAN, ORDEA, ZINEGOTZI KARGUA UTZI ETA XABIER IRASTORZA JAUREGIRI EMAN ZION LEKUKOA.

UNAIEN KASUAN, 2015-2019 LEGEGINTZALDIAN ARLO BEREKO ARDURADUN IZANA, ETA XABIER ERE ARDURA BEREAN ARITUA 2011-2015 URTEEN ARTEAN. JARRAIAN BERAIEI IRAKURKETA:





Klima Larrialdia hemen dugu eta haren ondorioak pairatzen ari gara, beraz berebiziko garrantzia du te lan arlo honetan jorratzen ari garen gaiak eta datozen urteetan ere pisu handia izango dute. Hala beharko luke, behintzat.

**Fermin Muguruzak zioen “pentsatu globalki eta ekin lokalki” eta abestiak urte batzuk baditu ere ez du egunerokotasunik galdu.**

Txikitik eragitea. Herri edo eskualde mailan asko egin liteke, baita norbere etxetik ere. Horretarako, ordea, tresnak, bultzada eta adostasunak falta ditu bai gizarteak, baita toki-erakundeek ere.

Gizakiak naturari eta munduari kalte egiten diola aipatzen eta ikusten dugu, baina jabetu behar gara hori egitean gure buruari ere kalte egiten ari garela. Uholdeak, gaixotasunak, beroaldiak eta lehortek... **Gure lurrean bizitzeko baldintzak okertzen ari gara eta hau aldatu beharrean gaude.**

Ingurumena herritartzeko ekintzak bultzatzea izan da arlo honetako erronketako bat: hitzaldiak, eskolarekin elkarlana, herriko eragileekin, baso landaketak, auzolanak, erreka garbiketa... ekintza xumeak, baina elkarlanean eginak, herri-etik eta herriarentzat, kontzientzian eta jarreretan eragitea helburu.

Lan-arlo honetan landu den beste gaia Aralarko Parke Naturalari eta herri onurako lurren kudeaketari dagokiona da. Elkarlana gauza handia dela esan dugu, baina arrazoi ezberdinak tarteko giroa nahasia da zentzu honetan. Zaldibian hamarkada askotako zama daramagu, eta denbora eta lan

handia beharko da horri buelta ematen.

Legegintzaldi honetako erronka nagusia urak baretzea zen. Ez da guztiz lortu eta etsipena ere sumatzen da askoren partetik. **Lau urte eta pandemia tarteko, gutxi dira aspalditik datozen minak eta ezin-kusiak osatzeko eta erronka handi honi erantzuteko.** Dena dela, arloko bileretan errespetuz eta elkar entzunez parte hartu da eta eskertu nahi genieke hau ere partaideei.

Honen harira eta irtenbideak topatzeko bidean pare bat ideia nabarmendu nahi genituzke:

Batetik, ingurumenaren zainketak eta lehen sektoreak ezin dute elkarri bizkarra emanda joan, eskutik baizik. Eta ez lehen sektoreak bakarrik, besteek ere (zerbitzuak, industria...) eraldaketa sakona behar dute jasangarritasunerantz.

Eta bestetik, udal eta gainerako erakunde publikoetatik adostasuna, jasangarritasuna eta onura publikoaren aldeko kudeaketa egokia bultzatu eta bermatu behar ditugu.

**Zentzu honetan erabat baldintzatzailea izan da Foru Aldundiak Udalekiko eta Enirio-Aralar Man-**

**komunitatearekiko izan duen jarrrera, hamarkadetan indarrean izan diren hitzarmenak alde bazarrez bertan behera bota eta finantzaketa bideak erabat aldatu eta mugatzeraino.** Horrela, baldintzatu egin dute udalen eskumena eta erabakimena onura publikoko lurretan eta giro nahasiari etsipena gailendu zaio.

Panorama honen guztiaren aurrean, ez dago errezeta magikorik. Adostasunerako borondatea, elkarlana, eta hori lagundu eta bideratzeko baliabideak jarri behar dira Ingurumen, Lehen Sektore eta Landa Garapenaren mesedetan.

**Herri mailan erronka polit eta garrantzitsu asko daude eta horiei heldu behar genieke.** Eskualdean ere proiektu berriak sortzen ari dira, Biziola proiektua esaterako, Zaldibiako Udala ere bazkide laguntzaile dena.

Hamarkadetan egiten ari den kudeaketek eta politikek ekarri dituzte klima larrialdia, lehen sektorea eta landa eremua egoera honetara. Hori aldatzeko politika berriak eta modu berriagoak behar dira. Eta nola ez, borondatea eta lana, lan handia. Gugatik, aurrekoengatik eta batez ere, datozenengatik.





## INGURUMENA, LEHEN SEKTOREA ETA LANDA GARAPENA

# Energia: trantsizioa ate joka

BESTE ARLO ASKOTAN BEZALA ENERGIARENEAN ERE IRTEERARIK GABEKO TUNELERA SARTU GARA AZKEN HAMARKADE TAN. KUTSADURA HANDIA ERAGITEN DUTEN ETA AGORTZEAR DAUDEN ERREGAI FOSILE TAN OINARRITU DA SISTEMA OSOA, KANPOTIK DATORKIGUNAREN MENPE ERABAT.

Gainera, energiaren kontsumoa gehiegizkoa da herrialde aurreratu deiturikoetan eta aldaketa sakonak datozela iragartzen dute adituek guztion egunerokotasunean eragingo dutenak.

Dagozkigun ardura eta betebeharreri erantzunez, Zaldibiako Udaletik ere ekin diogu eraldaketari, bi ardatz nagusitan:

1. Energia kontsumoa murrizteko neurriak hartzea, hor kokatzen ditugularik, 2022an egin den auditoretza energetikoa, argiterian egiten joan garen egokitzapenak edota udal brigadaren ibilgailu elektrikoa erosi eta karga puntu elektrikoak jartzea.
2. Auto-sorkuntza bideak lan-tzen hasia, energia burujabetzarantz, azpimarratuko genituzkeelarik, haurreskolako eta udaletxeko teilatuetako plaka fotovoltaikoak eta Goiener kooperatibako bazkide laguntzaile bihurtu izana.

Herritarrekin batera egin beharreko trantsizio energetikoak urrats gehiago ere beharko dituzte datozen urteetan, bai energia kontsumoa murriztera bidean eman beharreko bizimodu aldaketan, baita energia burujabetzarantzko bidean ere.




Antzeko ezaugarriak dituen ibilgailua erosi du Udalak kale-lanetarako, %100 elektrikoa.



ENERGIA  
INFORMAZIOA





## LUR PUBLIKOEN KUDEAKETA: OREKA ARDATZ

Legegintzaldi honetan ere, herri onurako lurren ohiko kudeaketa egin eta hobekuntzak landu eta gauzatzea izan da helburu. Horretarako, artzain, abeltzain eta bes-telako eragile ezberdinen parte hartzea bilatu da.

Lehen pausoa eragile hauekin harremanak berreskuratzeko saiakera egitea izan zen elkarlanerako aukerak aztertu eta baliatzeko asmoz.

**Larre eta baso eremuetan hainbat esku hartze egin dira, haietako batzuk auzolanean: landaketak, itxitura konponketak...**

Adituen laguntzaz egindako lanetan, Baso Habitata Berreskuratzeko proiektuko lanak aipatuko genituzke, oraindik ere jarraipena dutenak.

Eta urteetako eskaera izan den Gazteluko pistaren konponketa ere gauzatu zen 2021ean.



## BASERRI ETA HERRI-BIDEAK: MANTENDU ETA HOBETU

Lau urteko honetan herri eta baserri bide ugari konpondu dira:

Depositutako bidea (2019), Urtsueneko bidea (2019), Ernaitzaga-Aldaskortako bidea (2020), Arruegi auzorako bidean ur-erauntsiaren ondorioz izandako lubizien konponketa (2020), CAFeko kanala lehertzearen ondorioz Elizbaso bidean izandako lubiziaren konponketa (2020), Zelaatik Nazabal baserriranzko bidean bihurtutako batean egindako hobekuntza lana (2021) eta Miranda baserrirako bidea (2022), besteak beste.

Bide hauen konponketak Foru Aldundiko landa bideen laguntzak lortuz gauzatu dira gehienak, nahiz eta 2020an pandemia dela eta urteroko laguntza deialdirik ez zen izan.

Gaur egun herriko bideen inbentarioa egiteko lanetan murgilduta dago Zaldibiako Udala eta hau zehaztu ondoren, bideen inguruko ordenantza eguneratzea izango litzateke asmoa.

Izan ere, nahasmen eta korapilo ugari sortzen da bideen titularitatearen eta eguneroko kudeaketa eta mantenuaren bueltan, lagungarri izango den oinarri bat jarri nahi zaiolarik inbentarioa landuz eta onartzuz.





NATURTZAINDIA ELKARTEA

# Garazi Auzmendi Arkarazo

1988 BEASAIN



GARAZI AUZMENDI ARKARAZO NAIZ, 1988AN JAIO NINTZEN BEASAINEN, BAINA GAUR EGUN ATAUNEN BIZI NAIZ. FORMAKUNTZAZ INGENIARI INDUSTRIALA IZAN ARREN, GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAK EMANDAKO BEKA BATEKIN GIPIZKOAKO BASOEI BURUZKO IKERKETA BAT GARATZEKO AUKERA IZAN NUEN. ORDUTIK, INGURUMEN ETA IRAUNKORTASUN HEZKUNTZAKO LANAK EGITEAZ GAIN, NATURTZAINDIA ELKARTEKO KIDE GISA, BASOEN BERRESKURAPENERAKO PROIEKTUETAN LAGUNTZEN DIHARDUT.



BASOEN  
BERRESKURAPEN  
PROIEKTUA





**Basoen errealitatea eta herri lurren kudeaketa gertutik ezagutzen duzu Garazi. Azken urteetan joera aldaketak eta proiektu berriak ateratzen ari dira. Nondik gatoz eta nola dago gaia?**

Baso edo zuhaitzien kasuan, lur pribatu nahiz publikoetan, azken hamarkadetako kudeaketa egurren ekoizpena bideratu da, batez ere. Eta Euskal Herriko beste leku batzuetan ez bezala, Bizkaia eta Gipuzkoan kanpoko espezieak erabiltzeko joera oso nabarmena da.

Eusko Jaurlaritzaren azken baso inbentarioaren arabera, Zaldibiako herri-lurretako zuhaitzien %61 kanpoko espezieen landaketak dira eta %39 bertako basoa.

Azken urteetan ordea, ustiaketa eredu honek ingurumenean sortzen dituen kalteez jabetuta, bestelako kudeaketa eredu batzuk hedatzen hasiak dira, agertoki iraunkorrako batzuen bila. Alde batetik, baso eremu batzuk kontserbaziora bideratzen ari dira eta, beste batzuetan, egurra ustiatu bai, baina eredu ez hain intentsiboak erabiliz (bertako espezieekin eta osoko mozketarik egin gabe).

**Izan ere, herri jabetzako basoetan lan handia egin daiteke, ezta? Ereduren bat aipatuko zenuke?**

Bai, Zaldibiak gainera herri-lur ugari dauzka eta gizarte osoak izan beharko luke hauen onuradun. Eskualde mailan esperientzia ezberdinak daude martxan, baina aitzindariena Itsasondoko kasua da. Bertan udalak urteak daramatza herri-lurrak hedatu eta bertako basoak berreskuratu eta hobetzen. Horri lotuta, Erreserba Mikologiko bat ere sortu dute, ikerketa eta ai-



sia uztartuz. Ingurumenaren eta publikotasunaren alde eginez, herritarrentzat arnasmune bat sortu dute.

**Jabetza pribatuko basoak zati handia dira oraindik, ordea. Zer egin daiteke arlo honetan?**

Lurralde administrazioak berak asko lagundu dezake joera aldaketa hori sustatzen, baina gaur gaurkoz borondatea falta da oraindik ere. Horren aurrean, aldaketa herritik eragin daiteke. Herri-lurrak aukera aparta dira horretarako.

**Basoen kudeaketa Foru Aldundien esku dago. Zer aipatu honi buruz?**

Zaldibiako herri-lurrak Herri Onurako Mendi gisa izendatuta daude eta azken hamarkadetan hauen kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi da. Dena den, testuinguru aldaketa honetan, herriak hauen kudeaketan parte hartzea eta erabakitze gaitasuna bereganatzea erabat zilegi da.

Gainera herrian publikotasunaren eta izaera komunalaren balioak indartzeko aukera bat ere bada. Denona eta denontzako.

**Zaldibiako herri lurretako basoetan hainbat lan egin dira azken hiru urteetan eta gertutik jarraitu duzu gaia. Zer nabarmenduko zenuke?**

Bertako basoak berreskuratu edota hobetzeko lanak abiatu dira puntu ezberdinetan, pixkanaka joera aldaketa bati ekiteko. Ekintza hauekin, “moda” bat jarraitu baino gehiago, gure bizirauteko oinarrikoak diren gauzetan inbertitzen da: ura, lurzorua eta bioaniztasunaren babesa, klima krisiaren aurkako borroka, etab.

Azken batean, herri iraunkor eta bizigarriago baten aldeko apustua da. Jarrera ausarta eta ezinbestekoa.

**Eta zeintzuk izan daitezke hurrengo proiektuak edo erronkak?**

Polita litzateke abiatutako biderei jarraipena ematea, zuhaitz landaketen lekuan nahiz degradatutako eremuetan bertako basoak berreskuratuz, esaterako. Erronka honen parte da, baita ere, ekosistema hauekiko dugun ikuspegia aldatzea: basoak gure ezinbesteko aliatuak direla jabetu beharra daukagu.

# Sendo ingeniari-tza

## ZALDIBIAKO BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOA

ELENA ARANDA, mendi ingeniaria  
GUILLERMO RUIZ DE ERENTXUN, bideetan aditua  
IMANOL GOÑI, kartografian ingeniaria

IA ESCLUSIBOKI EUSKAL LURRALDEKO BIDE PUBLIKOAK IKERTZEN ETA INBENTARIATZEN DITUEN INGENIARITZA BAT GARA.

26 URTE DARAMATZAGU 70 UDALERRI BAINO GEHIAGORENTZAT LANEAN, BAI BEREN LURRALDEA ETA BIDE-SAREA AZTERTZEKO, BAI ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAK EGITEKO. IZAPIDETZE HORREN AMAIERAN, JABARI PUBLIKOKO ONDASUNEN INBENTARIOAN SARTZEN DITUGU, GURE USTEZ ETA BERME-PROZEDURA BAT APLIKATU ONDOREN, BEHARREZKO BALDINTZAK BETETZEN DITUZTEN BIDE GUZTIAK.



Gure helburua euskal lurralde oso-ko bide-sare publikoa behin beti-ko konfiguratzeko baina ez da. Bide publiko asko desagertu daitezke garaiz berreskuratzen ez baditugu eta berme administratiboak ematen ez badizkiegu.

**Ze garrantzia du herri batentzat bide publikoen inbentarioa egi-teak?**

Udalerrri bateko ondasunen inbentarioa, ondasun bati izaera publikoa ematen dion administrazio-egintza da, "ustez" behintzat. Dokumentu horrek ahalbidetzen dio Udalarri Tokiko Erakunde-  
Ondasunen Erregelamenduak esleitzen dion ahal guztiarekin jardutea; horrek bermatzen die Udalarri eta bere bizilagunei ondasun

horren eta haren erabileren gaineko segurtasun juridikoa.

**Zertan oinarritzen da zuen azterketa eta zein da zuen metodologia?**

26 urte hauetan, lan-metodologia propioa garatu dugu, objektiboa eta zientifikoa, ikerketa-fasean biltzen ditugun aztarna historiko-geografiko-administratibo-testimonialetan oinarritzen baita. Ondoren, informazio hori guztia auzotarrekin alderatzen da, baita eztabaida-kasuetan ere, argia emango diguten lekukotzak jasoz.

Kartografia historikoa, katastro zaharra eta egungoa, eskriturak, testigantzak, irakurketa geografikoa eta lurralde-azterketa dira era-





biltzen ditugun informazio-iturri nagusiak; publiko gisa ondorioztatzen diren bideak inbentariatzea proposatzen da eta dokumentuaren fitxetan islatuko dira aztergai horiek denak. Bestela esanda: publikoak dira antzina-antzinatik jatorria duten eta erabilera orokortua duten bideak, nahiz eta askotan bidegabeki (modu ez egokian) zortasun-bideak edo “Zordanbideak” deituak izan diren.

### Zein da herritarren papera prozesu horretan?

Herriaren eta bertako bizilagunen zeregina funtsezkoa da, lehenik eta behin egiazko informazioa jasotzeko, gure ikerketekin kontrastatzeko, antzemandako gatazketako aurrekariak ezagutzeko eta, era berean, asmo jakin hau transmititzeko: auzotarrek bide baten erabilera orokortua eta egonkortuztat jotzeko duten intentsitatea/konbentzimendua hauteman ahal izateko; bideen eremuan, oso ga-



rrantzitsua baita bideen erabilera-ri buruzko pertzepzioa, “jabe” gisa jarduteak izatez aurre-uste bat adierazten baitu.

Bestalde, oso garrantzitsua da herriak bideak erabiltzeko eta kudeatzeko ordenantzen diseinuan parte hartzea, mantentzeko lehentasunak ezarritik, etab.

### Behin inbentarioa onartu ondoren, zeintzuk dira Udalak/herriak aurrera begira landu beharreko bideak? Desadostasunen kudeaketa, bideen erabilera arautuko duen ordenantza, mantenuaren jarraipena, auzolana....

Hain zuzen ere, galderak aipatzen dituen eginkizun horiek hartu behar ditu bere gain herriak, bai gobernu-taldetik, baita bizilagunek ere. Elkar lanaren emaitza izango dira: ingurumen-neurriak, mantentze-erregimena, auzolana, kontribuzio bereziak, erabilera bereziak etab. Kasu gatazkatseuei dagokienez, hobe da teknikariei jarduten uztea, kasu oso konplexuak baitira, batzuetan administrazio-bidetik eta beste batzuetan bide zibiletik garatuko direnak.

Azken batean, bide publikoen inbentarioko lan hori da bideen kon-

tserbazioarekin eta erabilerekin zerikusia duen guztia lantzeko oinarria. Oinarri administratibo eta juridiko sendoa, zeina gabe ezin go litzatekeen, edozein auzi hipotetikoen aurrean zalantza eta segurtasunik gabeko kudeaketarik egin. Inbentario horretatik abiatuta, udalak argi eta garbi izango du zein diren bere eskumeneko bideak eta zeintzuk ez.



ZALDIBIAKO  
BIDE PUBLIKOEN  
INBENTARIOA







## UDABERRIKO EURI ERAUNTSIA

2020ko apirilaren 24ko iluntzean, euri jasa handia egokitu zen Zaldibia parean. Ordubetean 46 litro zenbatu ziren, euri gehiena 15-20 minutuan pilatu zelarik. Euri-jasa horrek, hainbat eremutan ur pilaketak eragiteaz gainera, herriko hainbat bidetan eragin zuen kaltea. Konponketa lanak azkar bideratu ziren eta 49.974,23€-ko (BEZ barne) kostua izan zuten. Ez-ohiko laguntza gisa 32.963,80€ jaso ziren Gipuzkoako Foru Aldunditik eta gainontzekoari (17.010,43€) Zaldibiako Udalak egin zion aurre.



## EUKALIPTOA GURE INGURUNEAN

“Udaberrian, eraiki herria” hitzaldi zikloaren barnean, Arturo Elosegi, Landareen Biologia eta Ekologia sailean irakasle katedraduna izan genuen Zaldibian. Eukalipto landaketak ingurumenean dituen ondorioak azaldu zituen bertaratuen zalantzak argitzearekin batera. Udalbatzak gehiengoz Eukalipto landaketei buruzko mozioa onartu zuen, haren landaketa saihesteko konpromisoa hartuz eta beste erakundeei eskaera hori luzatuz.



## UDA BIZIAN, BASO BIZI TAILERRA

Txatxilipurdi taldeak antolatutako tailerrean, HH2 eta 3 urteko gelako haurrak Olaldeko parkean eta basoan barrena murgildu ziren, bertako lore, landare, intsektu eta animaliak ezagutzuz. Aukera bikaina izan zen gure natura inguruetan egin daitezkeen ekintza ezberdinak gertutik ezagutzeko.



## ARALARREN INGURUKO IRAKURRALDI MUSIKATUA

Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre izan genituen “Aralar, mundua leku den lurra” dokumentalerako eta izen bera daraman Landarlan Ingurumen Elkarteak argitaratutako liburuako euren eginiko testuak zuzenean irakurtzen. Lagun izan zituzten Pello Ramirez musikaria eta Sahatsa Ramirez dantzaria.

Zaldibiako Udalak liburuaren 100 ale erosiz lagundu zuen proiektua, horietatik 90 Olaldeko parkeko emanaldira joan zirenen artean banatu zirelarik. Kultur Etxean ere ikusgai dago.



## ERREKA GARBIKETA, AUZOLANEAN

Ingurumen lan arlotik sustatuta eta Zaldibia Zero Zaborrek antolatuta, Amundarain erreka auzolanean garbitzeko ekimena antolatu zen 2021eko ekainean. Txiki eta handi, herritar ugari bildu zen auzolanera eta hondakin ugari bildu ziren.



## OLALDEKO URMAELA ETA HERRIKO BASOAK, TXIKIENEN IKASGELA

Jakingo duzue agian Lardizabal Eskola “Eskoletako Urmaelen Sarean” sartu zela 2020-2021 ikasturtean. Eskoletako Urmaelen Sarea eskola inguruan urmaela edo putzua duten eta eremu hori erabilera didaktikorako erabiltzen duten Euskal Herriko ikastetxeen sarea da. Orduetik Aranzadi Elkarteak lagun hainbat ikasketa saio egiten dituzte herriko haurrek.

Gainera, Baso Eskola proiektuan ere murgilduta dago eskola eta basoa heziketarako darabilte. Eskolaren, Udalaren eta baso jabeen arteko hitzarmenen bidez, Arrera, Muiteira eta Etxaisko basora joaten dira Lehen Hezkuntzako ikasle-taldeak astero.



## HERRI-MENDIKO ARAUAK ERRESPETATZEKO DEIA

Olakosaroin itxitura berria jarri zen, norbaitek katea hautsi eta bertatik motordun-ibilgailuz pasa ondoren. Lehendik zeuden egurrak erretiratu eta beste gune batzuetan berrerabili ziren.

Bide batez, Udalak gogorarazi nahi izan zuen herri-mendian motordun ibilgailuekin baimenik gabe sartzeari debekatu dagoela, eta guztion ardura dela denona den ondarea zaintzea. Hori adierazten duten seinaleak ere jarrita daude.





# GOGOAN IZAN



**BAIMENA AGIRIAN DUTEN  
MOTORDUN IBILGAILUAK  
SOILIK IGARO DAITEZKE**



**PASABIDE ETA HESIAK  
AURKITU DITUZUN  
BEZALA UTZI**



**TXAKUR NAHIZ MASKOTAK  
LOTUTA EDO KONTROLPEAN  
SOILIK IGARO DAITEZKE**



**ZALDIBIAKO  
UDALA**

## LANDAKETA ASTEBURUA

Lardizabal Herri Eskolak, Gailurrerantz Mendi Elkartek eta Zaldibiako Udalak landaketa asteburua antolatu zuten 2022ko otsailean. Eskolako ikasleek gerezi zuhaixkak landatu zituzten hilerri aurreko parkean, eta Arkakako Elizbasoko herri lurretan pago, haritz, astigar eta gereziondoen landaketa herrikoia burutu zen, aurrez auzolanean prestatutako eremuan.

## ARASTORTZ MENDIKO SUTEA

Arastortz mendian piztutako su batek Aralarko parke naturaleko 25 ha erre eta momentu zailak biziarazi zituen 2022ko ekainean. Suhiltzaile, basozain eta laguntza taldeetako kideek gogor egin behar izan zuten lan, haizea etsai zutela.

Ataungo eta Zaldibiako Udalek modu bateratuan esker ona adierazi zieten publikoki lanean aritutakoei, eta Foru Aldundiari luze gabe kasu hauetan prest egoteko neurriak hartzeko lanei ekiteko eskaera luzatu zioten.



## MAHAI BERRIAK OLAKOSAROIKO ETA UNANUBIETAKO ATSEDEN-GUNEETAN

Egoera txarrean zeuden mahaiak ordezkatu eta mahai berriak jarri ziren Olakosaroiko eta Unanubietako atsedeen-guneetan. Gure inguruaz eta lagunartez gozatzeko leku paregabeak ditugu.





## ELURRA DATORRENERAKO PREST

Urtero gogorazi ohi dira elur egunetarako jarraibideak neguan murgildu ahala. 2022an, berrikuntza batzuk gehitu zitzaizkion zerbitzuari: Zuhaztiko Joxe Mariri erreleboa hartuta, Aimar Garmendia Sukia herritarrak hartu du baserri-bideak garbitzeko ardurara eta horretarako, elurra kentzeko palaz gain, gatzabanatzeko makina berria ere jarri zaio eskura.



ELUR  
PROTOKOLOA



## ZURE PLATEREAN HASTEN DA MUNDUA

Lardizabal Herri Eskolaren eta Zaldibiako Udalaren eskutik, "Zure platerean hasten da mundua" proiektua zabaldu zitzaizen Lardizabal Eskolako LH 1, 2 eta 3 mailetako ikasleei. Unitate didaktikoa landu zuten eta dokumentala ere eskaini zen herritar guztientzat hainbat ekoizle protagonisten tertuliaz lagundurik.



**"Zure platerean hasten da mundua" Dokumental emanaldia eta solasaldia**

NOIZ: Azaroak 30, asteazkena 18:30etan

NON: Udaletxeko Herri Aretoan  
GAZTA ETA SAGARDOA DASTATZEKO AUKERAREKIN

Antolatzaileak:

ZALDIBIAKO UDALA  
zaldibira.eus

Lardizabal Herri Eskola

## ZALDIBIAKO UDALA BIZIOLA ETA GOIENERREKO BAZKIDE LAGUNTZAILE

Udalbatzaren gehiengoak hala erabakita, Goerrin abiatutako bi proiektutan bazkide laguntzaile da Zaldibiako Udala. Ekonomia sozial, eraldatzaile eta burujabeen alternatibak sortzen doaz gurean eta Udaletik hauek hauspotzeko konpromisoa hartu da.







4

ZERBITZUAK  
ETA  
ONGIZATEA





## Zerbitzu eta Ongizate arloen arduradunak

MIKEL LULOAGA ARANBURU  
EZTITXU MUJIKA MARIEZKURRENA

Egunerokotasun handia duten arloak dira zerbitzua eta ongizatearena, herritarrentzat ukigarriena esango genuke. Horrek lan jarraia eta lotua eragingo du ezta?

Eztitxu Mujika (E.M.): bai, beste arloetan proiektuak, ideiak, ibilbide luzeagoko lanketak nagusi diren bezala, zerbitzu eta ongizatearen kasuan egunerokoak pisu gehiago du. Lanketa sakonagoetan ere murgildu gara (hondakinak, ur-sistema, trafikoaren antolaketa, ongizate zerbitzuen eraldaketa...), baina momentuko beha-

rrek ez digute nahi adina aurreratzen utzi maiz. Gaur egun gainera, mugikorra eta e-maila gainean daramatzagu egunero eta horrek ere lotura eragiten du.

Herri-gunean eremu handiagoa, herritar kopurua gorantz, zerbitzu eskakizunak ere gehiago... nola eutsi orekari eta zerbitzuen kalitateari?

Mikel Luloaga (M.L.): Azken urteetan gauzak asko aldatu dira. Adibidez, azkena udaletxean egon nintzenetik (hamarren bat urte pasa dira) egin beharreko lanak



burutzeko tramite administrati-  
boak ikaragarri zaildu eta luzatu  
dira. Herritarrei dagokionez, men-  
talitate aldaketa edo balore gale-  
ra ere somatzen dut, garai batean  
udala tresna bezala ikusten zen,  
arazo bat bazenuen tresna hortaz  
baliatu zintezkeen arazoari irten-  
bidea emateko. Orain berriz, uda-  
la zerbitzu emaile bezala ikuste-  
ko joera indartzen ari da, norbere  
arazoak konpontzea dagokiona...  
**Gauza jakina da bakoitzak beretik  
jarri gabe ez dagoela konponbide  
egokirik.**

**Gizarteko egoera orokorrari erre-  
paratuz, “falta ditugun” zerbitzu  
ugariri buruz hitz egin izan da,  
baina orokorrean oinarritzkoenak  
ere kolokan daudela ikusten du-  
gu gaur egun: ura, osasungintza,  
energia, elikagaiak, zaintza...**

E.M.: gaur egun ikusten ari ga-  
rena halaxe egon da orain artean  
ere, kolokan. Orain agian bistaratu  
egin da: osasun-etxeetako egoera,  
prezioen igoera, gizartea antolatu-  
ta dagoen modua mundu maila-  
ko kate baten barruan... Bizitzeko  
oinarritzko ditugunak ahal den eta  
gertuen eta ahal bada gure esku  
izatearen garrantziaz jabetu behar  
gara, eta hori lortzeko lan egin.

**Zer egin daiteke, ordea, herri  
mailan horretarako?**

M.L.: Gauzak beste era batera egi-  
teko apustua norberaren etetik,  
gutako bakoitzetik hasten da. Al-  
daketarako nahi eta boronda-  
tea sustatzeaz gain, errealitate  
bihurtzea posible dela erakustea  
beharrezkoa da ingurukoak mu-  
giarazteko. Inguruko esperien-  
tziak ezagutu eta gure eredu  
propioa eraikitzea izaten da maiz

zailena. Egunerokoan, sentitzen  
duguna, egiten duguna eta izan  
nahi dugunaren arteko uztarketak  
ekartzen ditu emaitzak.

**Herritarren aldetik ikusten da  
hartarako indarririk?**

E.M.: esango nuke guztiok jabe-  
tzen garela bakoitza gurean sar-  
tzen bagara, jai dugula. Oinarritz-  
ko arazo asko kolektiboak dira eta  
hauei erantzuteko modu eraginko-  
rra ere kolektibotik izango da,  
elkarrekin lan eginez. Baina lana  
egin behar da, zerbitzu-bezero es-  
kema apurtu behar dugu, eta udal  
eta herritar konprometituak eta  
saretuak bilakatu. Azken urteetan  
alde horretatik atzerakada eman  
dela esango nuke, baina pertsona  
beharrak mugitu izan duenez, au-  
kera ere hor dugu, erronka handiak  
datozkigu eta.

**Zerbitzuen eta ongizatearen ga-  
rapenean beraz, herritarren inpli-  
kazioa izan liteke bidea...**

M.L.: dudarik gabe. Lan eta ardu-  
ra guztiak Udalaren gain uztea ez  
da ona inorentzat. Badira lan ugari  
herritarren inplikazioz egin daitez-  
keenak, baita egiten direnak ere,  
eta hori sustatzen jarraitu behar  
da. Auzolana gure kulturaren oi-  
narri izan da eta mendeetan zehar  
honaino ekarri gaitu. Eta auzolana  
ez soilik bideak edo basoa garbi-  
tzeari lotuta, baita festak antola-  
tzeari, herriko taldeetan aritzeari  
edota bizilagunak zaintzeari lotuta  
ere. Hori ere auzolana da. Ekarpen  
pertsonal horrek herriari onura egi-  
ten dio eta pertsonari ere bai.

E.M.: honen harira hasita gaude  
herri ezberdinetako ereduak be-  
giratzen eta ea datozen hilabe-

teetan auzolanari buruzko lanke-  
ta eta proposamenen bat egiteko  
modurik izaten dugun, gutxienez  
hasiera bat emateko hurrengo le-  
gegintzaldian gaia sakondu da-  
din.

**Landu beharreko beste gairen bat  
aipatuko zenukete?**

M.L.: kezka bizi dugu, adibidez,  
herriko ostalaritza eta batez ere  
komertzioaren egoera. Urte gu-  
txian asko aldatu dira herritarren  
kontsumo ohiturak eta herrian kom-  
ertzio txikiaren egoera denok  
ikusten dugu zein den. Pandemian  
lehen lerroan egon ziren, hor ja-  
rraitzen dute momentuz, baina  
erostunak geroz eta gutxiago.

**Komertzio eta tabernek herriari  
bizia ematen diote, eskolak beza-  
la, eta eredu zahar edo berriein  
izanik ere, zerbitzu horiei eustea  
esku artean dugun herri-erron-  
ka da.**

Bestetik aipatuko nuke, orokorrean  
hala izan ez bada ere, udaleko lan-  
gileren batekin elkar ulertzeko eta  
hainbat gai bideratzeko arazoak  
izan ditugula, eta hau ere landu  
beharreko gaia da.

E.M.: nik beste gai bat ere aipa-  
tuko nuke ongizate eta zerbitzuei  
lotuta. Orokorrean bizimoduaz eta  
bizi ereduez hausnartzea beha-  
rrezkoa ikusten dut, daukaguna  
ez baita jasangarria, ez guretzat  
eta ez amalurrarentzat. Pepe Muji-  
kak dio: “bizitzeko aske izan behar  
da eta aske izateko denbora behar  
da.” Uste dut gauza material gu-  
txiagorekin eta denbora gehiago-  
rekin bizitzen ikastea dela bizitzea  
merezi duen bizitza baterako bi-  
dea.



Zerbitzuak

# Hondakinak: zer ginen eta nor garen

2023KO MARTXOAN 10 URTE BETEKO DIRA HONDAKIN BILKETA MODUA ALDATU GENUENETIK. LANKETA, ORDEA, AURRETIK HASI ZEN: EZTABAIDATUZ, EKARPENAK JASOZ ETA BALIABIDEAK PRESTATUZ.

Urteurrenak balantze txiki bat emateko adina ibilbide ematen digu eta nabarmentzekoa da, ia hamarkada bat daramagula herrian sortutako etxeko hondakinen %80 inguru birziklatzen. Biztanleria igo bada ere (100 pertsona gehiago), datuak mantendu egin dira.

Eta legegintzaldi honetan bi pauso berri garrantzitsu eman dira:

1. Sortze bidezko hobarrietan oinarritutako hondakin tasa martxan jartzea, hondakin gutxi sortu eta ondo birziklatzen dutenak sarituz.
2. Hondakin organikoak herrian bertan kudeatzeko erronka abiatzea, konposta-guneak martxan jarritz.

Ibilbide honetan, ordea, ez gauden hasieran bezala. Gaiaren gaineko presio mediatiko-politikoak murriztu da, herritarrok asko ikasi dugu eta konfiantza hartu dugun gure hondakinen kudeaketan eta garrantzitsuena, beti hobetzeko nahia jarraituz egokitzapenak egiten goaz.

Aldaketak egin baitira bidean: lan-eremuko ekarpen-guneak etxola bihurtu, bilketa egunak 7 egunetik 5era ekarri, ontzi-zintzilarioen personalizazioa, kontzientziazio eta entzute ariketak...



ZALDIBIAKO HONDAKIN BILKETA-SISTEMA



HONDAKINEI BURUZKO ORDENANTZAK

Ahaztu ezazu hondakin gutxiak sortzea denon erantzukizuna da.

Ezin dugu ahaztu sortu ditugunak, berreraikitzea eta birziklatzea denon ardura dela.

Zaldibian beste pauso bat ematera goaz, gure hondakin organikoak bertan bihurtu nahi ditugu larrentzat ongarri.

Ekonomia zirkulararen printzipioak jarraituz, gaur egun gastea dena balabide bihurtu nahi dugu.

Auzo konpostguneak izanango dira tresna, eta herritarrok konpromisoa gultzatzen.

**LORE**

**ESKATU INFORMAZIOA**

943 88 03 57

konposta@zaldibia.eus

zaldibia.eus/gonpostea

**EMAN IZENA UDALEAN**

ZALDIBIAKO UDALA Sarta 14-3, Zaldibia 20247 ZALDIBIA

Lurrak emana lurra izatzen

**AUZOTAKO KONPOSTGUNE KOMUNITARIOAK ZALDIBIAN**

Hamar urte dira, Zaldibian Urteko gaitasun eremuak dituen hondakinen kudeaketa zuzentzeko lan egiten. Horien artean hondakinen berriraketa eta berriraketa aldi berean bihurtzea da gure helburua. Bide horretan, berriraketa eremuak ezinbestekoak dira.

Erreklamazioa egiteko modurik onena da: Hondakinen gutxiak sortzea eta berriraketa eremuak erabiltzea. Berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko.

HERRIEN BIRZIKLATZEN DUELA ongi nahi dugu, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko.

Oharra: jarduera honetan erabiltzeko eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko.

ERREKLAMAZIOA	JASOKETA ALDIAK (1. eta 2. orduak)	HORARIA
Bilketa-jardura	2024.03.15 jasoketa berriraketa	09:00-12:00
Bilketa-jardura	2024.03.22 jasoketa berriraketa	09:00-12:00
Bilketa-jardura	2024.03.29 jasoketa berriraketa	09:00-12:00
Bilketa-jardura	2024.04.05 jasoketa berriraketa	09:00-12:00

**KONPOSTA HERRIARI:** herriko konpost-guneak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko.

2023ko urtean, hondakin tasa hiru hilabeteko batean, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko.

**HERRIARI** gaitasun eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko.

**12 URTE HERRIARI** gaitasun eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko, berriraketa eremuak erabiltzeko.





ZALDIBIAKO  
UR-SISTEMA ETA  
ORDENANTZAK



## URA: GURE BIZI ITURRI

Zaldibia eta ura, ura eta Zaldibia. Ezin ulertu bata bestea gabe. Aurreko belaunaldietatik jaso dugu gure uraren alde lan eta borroka egitearen garrantzia eta horretan ari gara, oztopoak oztopo.

Uraren kudeaketak buruhaustek eta lanak ematen dizkio Zaldibiako Udalarari, hori ez dago ukatzerik, noski. Harrotasuna eta burujabetasuna ere bai, ordea, nork ez luke nahi halako altxorrik. Etorkizunean ur-zerbitzuari eustea eta hobetzen joatea apustu estrategikoa da gure herriarentzat.

Azken urte hauetan hainbat lan egin da bide horretan:

Artxalgo ur-biltegian (Olakosarroi), ura filtratzeko sistema jarri zen 2020an, ur arrearekin izan ohi ziren arazoak konpontzeko.

Kontzientziazioa eta jakintza zabaldu asmoz "Osinberde, Zaldibiako ude" kanpaina ere martxan da. Herriko ur-banaketa sistemari buruzko azalpenez gain, gure uraren kontsumoa bultzatu nahi da, botilako uraren gainerik. Zaldibiako jatetxe eta tabernetan daude pitxarrak, bezeroek iturriko ura eska dezaten.

2022an, berriz, konponketa lan ugari egin dira hainbat puntutan eta ur galerak asko murriztu dira, ur-sistema hobetzearekin batera. Toki-Goxotik Zelaa aldera hodi berria pasatzea izan da lan horietako bat, inbertsio plangintzan aurreikusitako ekintza izanik.

Plangintza horretan zehazten dira hemendik aurrera egin beharreko hobekuntzak ere, Biloretik Toki-Goxora arteko hodia ordezkatzeko edota Goroskindegiko ur-biltegia eraberritzea.



Ongizatea

## Zaintza: bizitzaren giltzarri

ZAINZA. BETI HOR EGON DENA, BAINA HOR EGON DENIK AITORTU GABE. GAUR EGUN, GUTXIENEZ, AHO-MIHETARA EKARRI DUGU HITZA. ZERIKUSI HANDIA IZANGO ZUEN HORRETAN BORROKA FEMINISTAREN BAITAN PERTSONA ASKOK EGIN DUTEN ETA EGITEN ARI DIREN LAN NEKAEZINAK.

Hitzetatik ekintzetara iristea beste pauso bat izango da, ordea. Eta ereduak ere hainbat: orain arteko modu berdintsuak ardatz dituztenak, edota eredu eraldatzaera datozenak, pertsonak eta bakoitzaren egoerak, nahiak eta beharrak ardatz harturik.

2022ko uztailean gurean izan ditugu Usurbil eta Hernaniko udal ordezkariak zaintzaren alorrean egiten ari diren lana azaltzen. Euskal Herrian erreferente nagusietakoak dira biak ala biak herri mailan garatzen ari diren zaintza ekosistemekin. Azaleratzen doazen proiektuei adi begiratzea garrantzitsua izango da aurrerantzean ere.

Gure herrian zaintza-mota asko ematen dira. Bizitzan zehar denok izan gara, gara edota izango gara bai zainduak eta bai zainzaileak.



Hori oinarri hartuz, zainduak izateko eta zaintza lanak egiteko baldintza onak dituen herria egin behar dugu. Eta egiteko asko dago, baina hasieran aipatu bezala, asko egiten da dagoeneko ere, nahiz eta ez den behar beste aitortu eta baloratzen.

Ikusten ari gara, Beti Gazte taberna udaletxe berrian eta plazaren erdian kokatzearen erabakia, erabaki ona izan zela. Adinekoek ez dute aparteko toki bat nahi, plazan egon nahi dute gurekin, guk haiekin bezala.

Ikasten ari gara, esate baterako, espazio publikoak eta bere antolaketak zaintzan eragin handia dutela eta errealitate hau kontuan hartu behar dela plaza edo herriko beste hainbat azpiegitura egokitzerakoan. Etxebizitzak egitera-koan ere bai.

Eta sentitzen ari gara, herri txikiaren gure eskala honek, elkar zaintzeko aukera ugari ematen dizkigula: guztiok elkar bistaz gutxienez ezagutzeak, elkarren loturak egiteak, beti hor dauden pertsona horiek beti hor izateak,





ostalari eta dendariak, edota zerbitzu publikoen gertuko arreta.

Sare hori josten jarraitzea da bidea eta lan horretan murgilduta gaude momentu honetan, herriko zaintzaren ibilbideak marrazten hasi garelarik, gaiari lotutako norbanako eta eragileen eskutik eta Emagin Elkartearen laguntzaz.

Zahartzaroa, haurtzaro eta gaztaroa, kultura anitzak, amatasuna eta gurasotasuna... bizitzaren une bakoitzean errealitate berriak gurtzatzen dira gure barnean eta in-

guruan. Bizitza geroz eta luzeagoa den honetan, are gehiago.

Beharra dagoen lekuan negozio-rako aukera ikusten dute beti batzuek. Horregatik, publikotik eta komunitatetik zaintza erdigunera ekarri eta eredu berriak landu eta gauzatzea dagokigu.

Zaintzaren ardura osoak ezin du gutxi batzuen, eta bereziki emakumeen bizkar geratu. Zaintzak ezin du ardura indibiduala izan, kolektiboa baizik. Eta hortik etorriko dira erantzunak ere, kolektibotik.

Beraz, ibilbide eta sareak josteko deia egingo diegu herritarrei datozen hilabeteetan, elkarrekin hausnartzeko, ikasteko eta bidea egiten jarraitzeko.



ZALDIBIA  
ETA ZAINZA

Zaldibiako Udaleko Aguazila eta Obra eta Zerbitzu-burua

## Jon Ander Colombo Luloaga



JON ANDER COLOMBO LULOAGA NAIZ, IBARRAN HEZIA ETA HAZIA, NAHIZ ETA BIZILEKU ANITZ IZAN DITUDAN. 34 URTE DITUT ETA 3 URTEKO ETA HIRU HILABETEKO ALABEN AITA NAIZ. BEASAINEN BIZI NAIZ ETA OBRA ETA ZERBITZUETAKO ARDURADUNA-AGUAZILA NAIZ ORAIN DELA IA 6 URTETIK.





Lanpostu bat eta bi funtzio nagusi: aguazila batetik, obra eta zerbitzu burua bestetik. Nola eramaten da hori?

Pertsonalki ondo daramat, baina nire helburuak betetzeko denbora faltan botatzen dut. Aguazil lanpostuak ordenantzen betearaztea du helburu nagusizat. Obra eta Zerbitzuetako sailak, berriz, eremu publikoetako (bai kale eta auzoak, baita eraikinak ere) mantenu eta garbiketa egokia izatea. Egurokotasunean aguazil bezala bakarrik lan egiten dut. Obra eta Zerbitzuetako arduradun bezala taldean. Lan egiteko bi moduak uztartu ahal izatea oso aberasgarria da.

Azken urteetan, herria handituz joan den heinean, behar eta funtzioak ere bai. Lan-taldea handitu da, baina hala ere bada lanik ezta?

Lan taldea handitu da, baina herriaren hiritartzea ere bai. Gainera, lan taldean ditugun postuetako lanak oso anitzak dira. Lan asko daude lantaldeko lanpostuen barnean, beste udalerrri askok kanporatuak dituztenak (Kanposantuko zerbitzua eta Ur Zerbitzuaren kudeaketa besteen artean) eta berriak sortu dira (hondakin organikoaren kudeaketa auzokonposta bidez esaterako). Beste zerbitzuak ere (lore zaintza, kale garbiketa...) guk gauzatzen ditugu. Zerbitzu hauek udalak bere langileekin ematen jarraitu beharko luke, zerbitzua hobeagoa dela pentsatzen baitut. Hurrengo urteetako helburu nagusienetako batek herriaren eta funtzioen handitzea gure lantaldearen tamainarekin orekatzeko izan behar du.

Urte garaiaren arabera ere, antzemango duzue lan karga eta

mota desberdinak daudela. Kontaiezaguzu pixka bat.

Belar garaian lorezaintza lanetan lan karga handitzen da. Hone-taz gain, puntako garaiak daude: ekainaren amaiera (Alamartxo, eskola amaitzea-mantenu garbiketa lanak eta oporren ataria...) eta urri hasiera-erdia (Santa Feak, Ardi-ki Eguna...). Kontuan hartu behar da bi garai hauek ur kontagailuen irakurketekin bat egiten dutela. Garaiko lanak hobeto lehenetsi behar dira, azaro-abendurako utziz beharrezkoak ez direnak.

Herriko ur-horniduraren egoerari jarraipen estua egitea dagokizu, beste lanen artean. Zer aipatuko zenuke honi buruz?

Ardura handia da, oinarrizko behar bat baita ura. Horregatik, denbora gehiago edukitzea eskertuko nuke, kalitatezko ur sare bat diseinatu (uraren kalitatea, ur fugen kudeaketa, hoditeriaren egoera...) eta exekutatzeko. Hala ere, hobekuntzak egiten ari da Udala (Ola-kosaiko iragazkia eta Elbarrena Industrialdeko eremuan hoditeria berritzea esaterako) eta etorkizunean ere sarea hobetuko duten obra eta berrikuntzak egiten jarraituko da.

Eta herriko ordenantzak eta araudiak betearaztea ere zure ardurapean dago hein batean.

Herri 'txikia' izanik jokaera txar asko ohitura dira. Kontzientziazio lan handia dago egiteko. Kanpaina-informazio ekintza jarraiak eskatzen ditu aldaketak gauzatzeko. Horrekin batera erraztasunak eman behar dira, azpiegiturak eskainiz. Baina ordenantzak ere be-

tetzeko daude. Nire eginbeharrak anitzak dira eta zaila da jarraipen estua egitea. Horregatik, herritar-rrak informatu eta konzientziatzeko lana egin behar izaten dut, beti ere gogoraraziz nire lana ordenantzak betearaztea dela.

Baliabide aldetik zer moduz moldatzen zarete? Biltegia, autoa, bestelako tresnak... Zerbait botatzen duzue faltan?

Baliabideen artean ibilgailua zen hutsune nabarmenena. Bestela, urteko partidatik moldatzeko moduan izaten gara. Hori bai, auzo konposta egonkortzen bada, hon-ek ere baliabide beharrak dakar-tza berarekin. Funtzioen arabera baliabideak ere pixkanaka orekatu-ko direla espero dut.

Bukatzeko eta orokorrean, aipatu diguzu zuen funtzionamen-duan mantendu beharko litzate-keen zerbait eta hobetu beharko litzatekeen beste zerbait?

Mantentzeko lankideen arteko giroa ona aipatuko nuke. Eskertu beharra daukat hasieratik eginda-ko harrera eta nirekiko eta beraien eginkizunetan daukaten jarrera. Ofizioetan erlatiboki gaztea garen taldea gara eta asko dago hobetzeko, orokorrean.

Zerbitzu publikoa beti egon behar da hobekuntza jarrai batean. Baliabide pertsonal eta ekonomiko mugatuak izateak asko baldintzatzen du antolaketa. Orain gutxi iraku-rri nuen Joxeri, Legorretako aguazil ohiari, egindako elkarrizketa eta ideia batekin bat egin nuen: udalen artean harremana falta da baliabideak elkarbanatzeko, batez ere txikien artean.

Zaldibiako Udaleko gizarte langilea

## Mari Jose Arrizabalaga Etxeberria



MARI JOSE ARRIZABALAGA NAIZ, ZALDIBIAKO GIZARTE LANGILEA. LEGORRETAN JAIOA NAIZ ETA 1989AN HASI NINTZEN GIZARTE LANGILE MODURA LANEAN, ORDIZIA INGURUKO SEI HERRITAN. 2011Z GEROZTIK LAU HERRITAN EGITEN DUT LAN: ZALDIBIAN, GAINTZAN, ARAMAN ETA ALTZAGAN.



Hiru hamarkada daramatzazu gizarte langile lanetan Zaldibian. Gizartea eraldatu eta behar berriak sortu ahala, zure jarduna etengabe egokitu beharra izango zenuen...

Bai. Hiru hamarkadatan asko aldatu da gizartea orokorrean, eta gizarte zerbitzuak bereziki. Udal gizarte zerbitzuak sortu berriak ziren ni lanean hasi nintzenean.

Lege berri asko egin dira gero, eta administrazioak ere legez zenbait zerbitzu ematera behartuta daude. Gainera, ezinbestekoa da gizarte zerbitzuak izatea eta herri-tarrei zenbait eskubide bermatzea.

Ibilbide eta denbora honetan eraldatzen eta sendotzen joan dira pixkanaka. Beraz, profesionalok etengabeko formakuntza jasotzen joan behar izan dugu.



**Gizarte Zerbitzuek urte batzuta-ko ibilbidea dute. Zein dira herri-tarren pertzepzioak zerbitzu ho-riekiko?**

Gizarte zerbitzuak karitate eta be-nefizientziatik gatoz. Gaur egun gizarte zerbitzuen pertzepzioa “normalizatuagoa” dela esango nuke, baina ziur nago oraindik ez direla kultura edo beste udal zerbi-tzu batzuk bezala ulertzen.

Gainera, modu asistentzialista ba-tean eman izan ditugu zerbitzuak, eta prebentzioa eta lan komunita-ria askotan ez dira gehiegi lan-du. Beraz, horrek ere gizarte zer-bitzuen estigmatiarekin jarraitzea erraztu dezakeela uste dut.

Hala ere, oraindik jende askok egoera ekonomiko eskasarekin, arazo fisikoekin edo ezintasunare-kin lotzen gaitu, zoritxarrez.

**Pandemian Gizarte Zerbitzuak funtsezko zerbitzutzat jo ziren. Nola egin zen orduko kudeake-ta zuen arloan? Zailtasun eta eki-men bereziren bat aipatuko ze-nuke?**

Pandemiak denak harrapatu gin-tuen jokoz kanpo. Gizarte zerbi-tzuak funtsezkotzat jo ziren bai, baina hauek bermatzeko informa-zio asko falta zen. Nola egin aurre, zein zerbitzu itxi, zeinekin jarraitu, zein modutan...

Egunero zeuden aldaketak eta neurri ezberdinak, kutsatzeko bel-dur ginen eta gainera materiala falta genuen: musukoak, eskula-rruak... Kaos bat.

Aipatu, zahar egoitza zein egu-neko zentroak itxi egin zirela eta

udalek etxez etxeko zerbitzuak ere eten zituztela, baina Zaldibian, or-dea, egun bat bera faltatu gabe eman ziren.

Hori bai, kutsatutako erabiltzai-leek bertaratzen zirenean langileen osasuna jokoan jar zezaketenez, beste erabaki batzuk hartu geni-tuen. Pertsonala eta kutsatuak ez zeuden erabiltzaileak babesteko. Orain, gaixotasuna eta kutsatzeko moduei buruz gehiago dakigu ja-da, baina hasieran oso konplikatu-a izan zen dena.

**Pandemia, pobrezia energeti-koa, prezioen igoerak, langabe-zia, arrakala digitala, osasun ara-zoak... egungo errealitatea ere gordina da oso.**

Nire ustez pandemiaren aitzakia-rekin egoera guztiak txartu dira orokorrean. Gainera, esango nuke oraindik ez dugula osotasunean baloratu egoerak nola aldatu di-ren, ondorioak jasaten hasi baga-ra ere.

Administrazioak, orokorrean, ez du jakin izan horrelako egoeren au-rrerantz erantzuten.

Arrakala digitala da, besteak beste, nire ustez izugarrikoa egin dena pandemiaren ondoren.

Zenbait zerbitzu publikorekin ezi-nezkoa da komunikazioa, hitzor-duak hartzea...

Bertaratuta ere ez dizute hitzordu-rik ematen, ezta telefonoz edo on-line ere.

Hauen beharra zuten herritarrak askotan hurbiltzen zaizkigu, be-riaren kezka azalduz.

Administrazioak, orokorrean, ba-dirudi zuzeneko atentzioa bertan behera utzi nahi duela erabat.

Honek sekulako zailtasuna ekar-tzen die egoera zaugarrian dau-den pertsonari. Askotan beraien eskubideak bermatu ezinik, ad-ministrazioak jarritako oztupoak gainditu ezin dituztelako.

**Eta beste erronka bat ere badu gizarteak: zaintzarena. Norantz jo eta nola egin behar diogu honi aurre?**

Esango nuke badirela gutxienez 20 urte gai hau tratatzen ari dela. Zaintza ez da eskubide unibertsala. Pertsonen bizi-itzaropena asko igo da, baina askotan ez bizi-tza “kali-tate” hobereanean. Zaintza garran-tzitsuak behar dira luzaroan, eta sistemak ez du honi erantzun ahal izateko behar beste neurri.

Familiak ere asko aldatu dira, eta zaintza jada ez da familian modu pribatuan egiten den zerbitzu. Ad-ministrazioak zerbitzuak eta la-guntzak diseinatzen ere joan behar du.

Egia esan, zaintzak orokorrean, aurrekontuan izugarriko igoera ekarri du administrazioan. Baina, hala ere, eskubide hau ez da uni-bertsala.

Zaintza lanetan lan egiten du-ten profesionalak ere, gehienu-tan emakumeak, sarritan oso lan egoera txarrean aritzen dira, eta hori oztupo izugarria da zaintza egokia bermatzeko. Amaitzeko, norantz eta nola ez dakit, baina nire ustez, lehenago aipatu beza-la, unibertsalizaziora jo beharko genuke.

## ZERBITZUAK ETA GIZARTE ONGIZATEA

# LAU URTE MOTZEAN

### PERTSONA EZINDUEN MOBILIZAZIO ETA TRANSFERENTZIEN INGURUKO IKASTAROA

2020ko otsaila eta martxoan hiru eguneko ikastaroa eman zuten Lahar elkarteko Pakea Galdosek Karrean. Pertsona ezinduei ohiko mugimenduak egiten laguntzen ikasi zuten bertaratuek.

**Pertsona ezinduen mobilizazio eta transferentzien inguruko ikastaroa**

2020ko OTSAILAK 24, 26 eta MARTXOAK 2  
Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara  
IZEN EMATEA ZALDIBIAKO UDALean eta KARREANE kultur etxean PLAZA MUGATUAK.

Hizlaria: PAKEA GALDOS

formakuntza

ZALDIBIAKO UDALA

### PANDEMIAREN AURREAN, ZERBITZUAK BERRASMATZEN

Itxialdi neurriek eta kutsatzeko beldurrak hankaz gora jarri zuten gure gizartea. Gure sareak erori ziren, oinarritzko behar eta gaiak lortzeko ezinbesteko ditugunak. Zerbitzu ugari asmatu, antolatu eta

eman behar izan ziren: elikagaiak etxez etxe banatu, hondakinak bildu, zaintzarako telefono deiak, internet sarbidea, hiletak eta agurrak...

**Elkartasuna garairik zailenetan**

EGOERA LARRIENEI ERANTZUTEKO ELKARTASUN POLTSA

EROSKETAK ETXEAN JASOTZEKO ZERBITZUA

ETXEZ ETXE HONDAKIN JASOKETA ZERBITZUA

ZALDIBIAKO UDALA

ZALDIBIAKO UDALA, ZURE ONDOAN

Mundu mailako pandemiak bizitzen ari garen honetan, Zaldibiako Udarak herriarriengandik gertu egon eta sortzen diren beharri erantzuna bilatzeko konprometua du, herri-badessa sustatuz eta antolatuz.

Hainbat dira martxoan jarritako ekimen eta zerbitzuak:

- BERROGEALDIAN dauden etxeetatik HONDAKINAK JASOTZEKO ZERBITZUA
- BERROGEALDIAN dauden etxeetara LEHENGAIAK BANATZEKO ZERBITZUA
- HERRIKO OSTALARI eta KOMERTZIALIEN JARDURIA BULTZATZEKO EKIMENAK
- INFORMAZION MODU ZUZENAN JASO ETA BIRATZEKO IRUDIAK

**Zaldibia herri bizia!**

LAGUNTZA ZUZENAK egoera zaurgarrienean DAUDEN HERRIARRENTZAT

BOI ONDRES SAREA antolatuta eta prest EGOERAK ESMATZEN DUENERAKO

ZALDIBIAKO UDALA

www.zaldibia.euz





COVID-19A



## HERRIKO KOMERTZIOA, BETI BEZAIN GERTUKO

Komertzio txikiak ez zuen hutsik egin eta Zaldibian ere zetorrenari aurre egiteko prest agertu zen. Hornidura gabeziak, babes faltak eta egunero aldatzen ziren araudiek nahikoa gora-behera eragin bazioten ere, eutsi zion egoerari eta herriak eskertu zuen.

Erosketa bonoen kanpainak ere egin ziren, herriko ekoizle, komertzio eta ostalaritza sustatzeko. Guztira 18.000€ jarri zituen Udalak bonoen 3 edizio ateratzeko eta horrekin 54.000€ko mugimendua eragin zen zuzen-zuzenean.



HERRIKO KOMERTZIO GIDA



## HERRIKO AZPIEGITURAK ESKOLAREN ZERBITZURA

2019-2020 kurtsoa eskolako atek itxita amaitu ondoren, irailean eskola presentziala bermatzea izan zen erronka. Horretarako, eskolan hainbat egokitza-pen egiteaz gainera, herriko azpiegitura eta espazio ezberdinak Lardizabal herri eskolaren eskura jarri zituen Udalak.



Lardizabal eskolako zuzendaritzarekin elkarlanean ikasgela bakoitzak eskolako bere espazioaz gain, herriko eremu ireki bat eta inguruko lokal baterako sarbidea izan zuen. Eremu hauen erabilera asteka elkar trukatu zuten eta burbuilak mantentzea erraztu zuten honek. Eskola atarian karpa ere muntatu zen auzolanean aire libreko gune estali bat gehiago izateko.



## OSTALARITZARENTZAT ERE GARAI ZAILAK

Komertzioak ez bezala, ostalaritza sektoreak atekatu itxi behar izan zituen aldi batez. Ondoren, etxera eramateko kafeak edo otorduak banatzera mugatu behar izan zuten eta maiatzean soilik terrazak ireki ahal izan zituzten.

Ondorengo hilabeteetan makina bat arau aldaketa egin ziren taberna eta jatetxeen inguruan, eta herriko covid kasu kopuruaren arabera itxita egon behar izan ziren berriz. Udalak gertuko harremana izan zuen herriko ostalariekin aldaketa guzti hauei eta egoerari aurre egiten lagundu asmoz.



## BIZITZA AUTONOMIA ETA KALITATEA HOBETZEKO PROIEKTUAK ABIAN

Urteetan aurrera joan ahala, norbere osasun eta bizitza mailari ahalik eta ondoen eustea erronka bihurtzen da. Zaldibiako Udalak, Beti Gazte Elkartearen laguntzaz, hainbat zerbitzu eta aukera eskaini ditu azken urteetan.

Pandemiak ondorio eta kalte nabarmenak eragin ditu eta gabezia ugari bistaratu ere bai. Zaintzaren alorrean hausnarketa zabala ireki da eta pertsona bakoitzaren behar eta nahien neurria egokitzeko moduko aukerak sortzea da helburua, komunitate osoa horretan inplikaturik.

Ekimen zehatz batzuk aipatzeko hor daude pandemiaren eskaintako GoiOsasunLab proiektua autonomia hori etxetik lantzeko, adinekoentzako mantentze gimnasia, Olaldeko osasun zirkuitua erabiltzeko ikastaroa, Beti Gazte Elkartearekin batera antolatutako ikastaro eta ekintzak, memoria tailerra eta Lagunartean, Egunon! proiektua.



ZALDIBIA  
ETA ZAINZA





**ARIKETA FISIKOA ETA OSASUNA**

**INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: KARREANE KULTUR ETXEAN**  
EPEA: URRIAK 4

**HIRUGARREN ADINEKO NANTENINENDUA**  
2022/2023 KURTSOA  
Astearte eta ostegunak  
8:15-10:15.  
Tarifa: 15 € / hilean  
Hasiera eguna: urriak 18, asteartea

**PILATES + HIPOPRESIBOAK**  
2022/2023 KURTSOA  
Ostirakak  
15:30-17:00  
Tarifa: 25 € / hilean  
Hasiera eguna: urriak 21, ostirala

**KARDIO + TONIFIKAZIOA**  
2022/2023 KURTSOA  
Astelehena eta ostegunak  
14:30-16:30  
Tarifa:  
Astelehen egun bat: 25€ / hilean  
Astelehen bi egun: 35€ / hilean  
Hasiera eguna: urriak 17, astelehena

**OLALDEKO OSASUN ZIRKUITUA**  
SAIO GIDATUA  
Olatu parkeko makinen erabilera  
buruzko saio gidatua

EGUNA: Irailaren 23an, ostirala.  
ORDUA: 11:00etan  
LEKUA: Olatuko parkeko erabilera bermeren PHEZGA dabanik.

**OHARRAK:**  
• Izen emateko duenak, kasu batean ezin izan izango diren pertsonak izango dira.  
• Lehenetsia herrikoek izango dute.

**OSASUN SAIA**



## SARRAILA ELEKTRONIKOEN ATEAK IREKITZEN

Kimuene Kulturgunean jarri ziren lehen sarraila elektronikoak 2018an eta ordutik udal azpiegitura gehienetara hedatu dira: antzokia, Karreane, plazako biltegia, udaletxea, frontoia, Luberriko gimnasioa...

Azken berrikuntzak frontoiko argiak pizteko sistema elektroniko eta konposta-guneak ere sarbide elektronikoz jartzea izan da. Hala, giltzatak dirudien pieza txikiak sarbide aukera ugari eman diezazkioke herritarri. 5€-ko bermea jarrita udaletxean edo kultur etxean eskura daitezke.



SARRAILA ELEKTRONIKOAK

## ALDAKETAK BETI GAZTE TABERNAN

Beti Gazte Elkarteko kideek eta Zaldibiako Udaleko ordezkariak oroigarri bana eman zieten Beti Gazteko Lurdes eta Txoriri 2021eko azaroan. Azken hamar urteetan Beti Gazte tabernaren gidari izan direla egindako lana eta laguntza eskertu nahi izan zieten.



Udaletxe zaharra bota eta berria ireki arteko 3-4 hilabeteko zerbitzua Joxepane Herri Ostatuan eman zuten eta Beti Gazte taberna utzita, bertan jarraitzeko erabakia hartu.

Hala, esleipen publikoa ireki zen Beti Gazte taberna berria martxan jartzeko. Lehen deialdian hutsik geratu zen, eta bigarrenian bi proiektu aurkeztu ziren. Batzordearen balorazioen arabera, Mari Carmen Sainz-Ajari esleitu zitzaion 2022ko otsailean.



## GEHIENGOAREN KONPROMISOA ETA GUTXI BATZUEN TXARKERIA

Herritar gehienek kale-altzarien, herriko azpiegituren eta hondakinen erabilera eta kudeaketa ona eginguten duten bitartean, badira zenbait utzikeria eta jokaera txarrez jarduten dutenak.

Eguneroko ogia ez badira ere, aldian-aldian gertatu dira ekintza kezagarriak: eskolan sartzen saiatzea, aparkalekuan kotxeetan lapurretak egitea, festen bueltan izandako hainbat txikizio, hondakinak behar bezala ez bereizi eta ateratzea, traste zaharrak ez dagoen egunean ateratzea eta gero bertan uztea...



## ZURE TXAKURRA, ZURE ARDURA

Hainbat sentsibilizazio kanpaina egin dira txakur jabeei indarrean diren araudiak gogorarazteko, batez ere eragin handiena duten lekuetan. Aipagarrienak eskola-eremua eta Olalde parkea dira, haurrek eguneroko erabiltzen dituzten lekuak izanik.

Olalde parkean txakurrak libre ibiltzeko eremua eraike da erabilera ezberdin hauek uztartu asmoz. Udalak badu etxeko animaliei buruzko ordenantza, eta hau eguneratzeko lanetan gabilta gaur egun, mas-kota kopurua igotzen eta legedia aldatzen ari dela kontuan izanik.



INFORMAZIOA

### TXAKUR-GUNEA

- Txakurren gorotzak jaso egin behar dira, nahitaez.
- Txakur-guneko atek itxita behar du beti. Barruan txakurrak libre ibili daitezke.
- Txakurrek identifikatuta egon behar dute eta legez dagozkien txertoak hartuta.
- Jabeak zaindu eta kontrolatu beharko ditu otzal dauden txakur emeak eta gaixo dauden txakurrak.
- Galarazita dago txakurrei inolako tratu txarrik ematea.
- Txakurren artean gorabeheraren bat gertatzen bada, jabeena da erantzukizun osoa.
- Gunera sartzekoan eta ateratzekoan, txakurrek lotuta egon behar dute.





## DIGILAGUN: INGURUMENA ZAINDUZ, AUKERA BERRI BAT IREKI

Arrakala digitala gero eta handiagoa den garaietan, DIGILAGUN egitasmoa iritsi zitzaigun IZT kooperatibaren ardura sozialaren eskutik.

IZT gaur egun Udalari informatika zerbitzuak ematen dizkion kooperatiba da eta horregatik jakin genuen martxan jartzen ari ziren ekimenaren berri. Udaletan zein bestelako enpresa edo zerbitzuetan aldatzen dituzten ordenagailuak garbitu, software libreaz hornitu eta bizi berri bat ematea da proiektuaren muina, hauek behar dituztenen esku jarritz.

Zaldibiako Udaleko gizarte zerbitzuen esku uzten dituzten ordenagailuak gehien behar dutenen esku bideratzen dira.



DIGILAGUN  
EKIMENA



## BIZIKLETAK GARBITZEKO GUNEA

Herritar baten ekarpenari helduz, bizikletak garbitu eta konpontzeko gunea jarri zen Kanpaingo zubitik Zubiaurre baserrira arteko eremuan. Ur-mangeraz gain, gurpilak puztu, aldatu edo bestelako konponenta txikiak egiteko tresnak daude bertan.

Instalazio hau eta herriko hainbat puntutan bizikletak aparkatzeko lekuak jartzeko Foru Aldundiko diru-laguntza lortu zen, 3.030,69€koa.



## ZALDIBIAKO UDALA IZARKOMERA PASA DA, TELEKOMUNIKAZIO BURUJABETZARANTZ URRATSA EMANEZ

Telekomunikazioen oihan globalizatuaren baitan, Euskal Herriko nazio eraikuntza eta burujabetzaren alde lan egiteko sortu zen Izarkom telekomunikazio operadore kooperatiboa.

Zaldibiako Udalak gertutik jarraitu du bere ibilbidea eta 2022ko uztaileko osoko bilkuran aho batez onarturik kooperatibako bazkide erabiltzaile egin zen. Urte bereko abuztutik aurrera udaleko telefono eta internet zerbitzuak Izarkomek ematen ditu eta gainera, urtean 12.000€ inguruko aurrezte ekonomikoa eta zerbitzua zabaltea ere ekarri du herrira. Antzokira eta Resti Pilotalekura internet konexioa eraman zen eta Wi-Fi gune libreak daude herri-gunean.



ZALDIBIA  
TELEKOMUNIKAZIO  
BURUJABETZARANTZ

## ENERGIA AUDITORETZA

Nazertek energia aholkularitzaren eskutik eta EEE-ren (Energiaren Euskal Erakundea) diru-laguntza eskuratuta, udal azpiegituren eta kale argiteriaren energia auditoretza egin da. Urtarrilean egin berri da aurkezpen publikoa eta diagnostiko horretan oinarrituta zehaztu den ekintza-plana garatzen joan da udala datozen urteetan.



JASANGARRITASUN ENERGETIKORAKO JARDUTEKA PLANA



## KALE-LANETARAKO IBILGAILU BERRIA

2022an onartu zen ibilgailu berria erosteko aurrekontua eta esleipena eta merkatuaren denborak medio, 2023ko otsailean entregatuko digute. Zaldibiako Udalak 5 kale-langileko taldea du, programa ezberdinen bidez 6 eta 7ra ere zabaltzen dena maiz.

Orain artean ibilgailu bakarra izan dute lanerako, horrek zekartzan mugekin. Gainera, eguneroko beharrei eta erronka berriei heltzeko mota honetako ibilgailu baten beharra sumatzen zen.

Ibilgailua elektrikoa da, bi plazako kabina du, atzean kutxa finkoa eta karga igo eta jaisteko plataforma mugigarria. Artxanberriko udal biltegian kokatutako karga-puntuari kargatzen da, haurreskolako teilatuko plakek sortutako energiarekin. 44.932€ + BEZ inbertitu dira erosketan honetan.



## ZALDIBIAKO KONPOSTATZE PROIEKTUA ETA HOBARI SISTEMA, EREDU ETA IKAS-TOKI

Legealdi honetan martxan jarri den konpostatze proiektua eta 2023ko urte hasierarekin errealitate bihurtu den sortze bidezko hobari sistema, herrian ez ezik inguruan ere interesa sortzen ari da.

Galizako Pontevedra probintziako Diputazio zein herrietako ordezkariak izan genituen bisitan gure sistema ezagutzen. Nafarroako Gobernuan, Rethink Waste jardunaldien barruan ere izan ziren Zaldibiako Udaleko ordezkariak proiektuari buruzko xehetasunak azaltzen. 2022ko udazkenean IHOBek maisu konpostatzaileentzako antolatutako autokonpostatze komunitarioko ikastaroaren saio bat Zaldibian egin zen.

Goierrri mailan ere Goimenekin elkarlana hasi berri dugu esperientzia hau garatu, lehen sektorearekiko loturak eraiki eta inguruko herrientzat baliagarri izan dadin.

Diruz ere laguntza handia lortu du proiektuak, Foru Aldundiko Ingurumen departamentutik 29.370,55€ eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bidez Europako Next funtsetatik 46.325,79€. Bi laguntzen oinarrian ekonomia zirkularri proiektu honek egiten dion onura dago.



ZALDIBIAKO HONDAKIN-SISTEMA





5

# HIRIGINTZA





HIRIGINTZA ARLOKO ARDURADUNA

## Eztitxu Mujika Mariezkurrena

HIRIGINTZA ARLOA EZ DA ERAMATEN  
ERRAZA, NIRE KASUAN BEHINTZAT,  
AITORTU BEHAR DUT. BESTE HAINBAT  
ARLOTAN EMATEN ARI DEN ERALDAKETA  
EZ DA ORAINDIK HIRIGINTZAKO  
ADMINISTRAZIO EGITURETARA  
GEHIEGI HEDATU, ETA HERRITAR ZATI  
HANDIENAREN ERREALITATETIK NAHIKOA  
URRUN KOKATZEN DA ORAINDIK.





Behar baino gehiagotan aurkitu gara nahi eta ezinarekin, herri-tarren gogo eta ilusioaren beroa, hirigintzako lege eta tramitazio hotzekin talkan. Batzuk bideratzea lortu da, beste batzuk oraindik ez.

2019ko urtarriletik, eta urte askotako ibilbidearen ondoren, indarrean da Zaldibiako Hiri Antolamendu Plan Orokor berria, herriko hirigintza araudi nagusia.

Legegintzaldi honetan, araudi horren garapena diren Eraikuntza Ordenantzak landu eta onartu dira, herritarren hainbat eskaera bideratu asmoz. HAPOaren aldaketa bat ere onartu da (Aztirtiaga-Ermentariko) eta 2. aldaketa egiteko tramitazioa (Goizaneko Agroaldearena) hasita dago.

Era berean, Urtesabel azpiko sektorearen Plan Partzialaren idazketan ari gara gaur egun, legegintzaldia amaitu aurretik onartzea espero duguna.

Hirigintza herritartzea izaten ari da legegintzaldiko gure borroka arlo honetan. Behar kolektiboak lehenetsiz eta herriarentzat garrantzitsuak diren gaiak bideratzeko lan eginez. Adibide moduan aipatuko nuke udaletxearen eta herriko plazaren eraldaketa, datozen orrietan sakonduko duguna.

Izan ere, “Ertzetik erdira” espazio publikoaren inguruan egiten ari garen bide honetan ikusten eta ikasten ari gara espazioaren antolaketa gure bizitzetan duen garrantzia.

Herri baten antolaketak eta bertan dauden edo ez dauden espazioek, herri horren eta bertako herritarren egunerokoa baldintzatzen dute: autoari edo oinezkoari ematen zaion lekuak, eskolaren eremuek, eserlekuen kokapenak, etxebizitza hutsek, zerbitzuen kokalekuek, auzotako loturek...

Pandemiako konfinamenduak eta ondoren etorri den krisialdi energetikoak, berriz, etxebizitzaren egoera ere ekarri digute azalera. Saiatu gara eraikitze ordenantzekin, tasa eta zergak egokituz, edota hobari berrien bidez, bizilekuetako egokitzeko lanak errazten. Arlo honetan zeregin ugari dago oraindik egiteko, halere.

Badira, ordea, Udalaz gaindiko beselako bulego eta mahaietan hartzen diren erabakiak ere eta eragin zuzena dutenak zaldibiarrengan: errepide sareak, saltoki handiak, mugikortasun azpiegitura eta zerbitzuak, erreka eta ibaiertzak...

Honen harira, kezagarria izan da legegintzaldi honen barruan Eusko Jaurlaritzak indarrean jarritako Lurralde Antolamenduari buruzko Lege berria (Tapia Legea gisa ezagunagoa dena), Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzen duena. Zaldibiako Udaltzaren gehiengoz honen aurka dagoela adierazi zuen, udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria dela eta toki-demokrazia urratzen duela argudiatuz.

**Erabakimena gorantz daramate azkenaldian nabarmen, udalen eta herritarren hitza eta borondatea geroz eta gehiago mugatuz.**

Interes publikoaz ari garela, azken hamarkadan Biloreren inguruko kezka izan dugu gai nagusietako bat herrian, zorionez bideratzen doana.

**Eta gaur egun lehen lerroa hartu duen beste gai bat aipatuko nuke datozen urteetako erronka zurrak izango dena: mugikortasun jasangarria.**

Auto pribatuaren kopurua eta erabilera murriztu, eta herritar zaurgarrienen (adinekoak, haur eta nerabeak, diru-sarrera txikiak dituzten herritarrak...) beharrak asetzeko ahalbideratuko duen alternatibak landu, eraiki eta aldarrikatu beharrean gaude. Herri barruan bezala, Ordiziaranzko mugikortasun jasangarrirako alternatiba errealak martxan jarri behar dira, bai garraio publikoa indartuz, bai bizikleta eta oinezkoen garraio biderako aukerak jarriz eta bultzatuz ere.

Badago zer hausnartu eta zer egin herri bizigarri eta jasangarri baterako bidean eta hemen ere, elkarlana eta lanerako gogoia giltzarri izango dira. Eta irudimena ere bai, gauzak aldatzeko lehen pausoa baita gauzak beste era batera izan daitezkeela sinestea.



## Hirigintza

# Bilore: xaboi hautsa, hauts bihurtua

HAINBAT URTETAN  
ABANDONATUTA  
EGON ONDOREN ETA  
MOTA ASKOTAKO  
ESKU-HARTZEAK EGINDA,  
EGOERA ARRISKUTSU  
ETA TAMALGARRIAN  
EGON DA URTE LUZEZ  
BILORE. UDALAK HAINBAT  
SAIAKERA EGIN ZITUEN  
ERAKUNDE EZBERDINETAN  
ETA HERRITARRAK  
ERE AKTIBATU ZIREN  
KONPONBIDE ESKE, BAINA  
ERANTZUNIK EZ.

2016ko udan abokatu baten bisita jaso zen Udalean Biloreko eremuaz galdezka, Udala HAPOa idazten ari zela jakitun. Horrela, negoziaketa bat hasi zen interesduna nor zen jakin gabe, eremu horren ezaugarrien inguruan. 2018ko maiatzean enkantera atera zen Bilore eta jakin zen Mugertza Eskabazioak zela erostuna eta ordura arteko negoziaketaren atzean zegoena.

Eremuaren jabetza berreskuratuta, pixkanaka eremua garbitzen joan ziren lantegiaren eraispenerako prestaketa eginez. 2020ko uztailean aurkeztu zuten “Eraispen Proiektua” udalean eta horrekin batera beste hainbat baimen eskuratu ondoren, hasi ziren eraikuntzak botatzeko lanak.

Ikusgarria izan zen prozesua, herritar askok eta bereziki Biloren lan

egin zuten langile edo inguruko bizilagunek gertutik jarraitu zutena. Lanek aurrera jarraitzen badute ere, eraikuntza handienak eraitzita daude. Bideoan ere jaso ziren eraispeneko irudiak herriaren memoriarako.



BILOREREN ERAISPENA  
BIDEOAN





## ETA GERO ZER?

Bilorek Zaldibiako herrian izan zuen eragina alor eta eremu askotan ikusi ahal izan dugu. Azken urteetan, ordea, txikizioa, itxura txarra eta arriskua besterik ez genuen izan herri-sarreran. Horri konponbidea ematen ari zaio inork espero gabeko moduan eta zaldibiarrok pisu handi bat kendu dugu gaitetik. Ondorena iragartzerik ez badago ere, 2019ko urtarriletik indarrean den Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrean, eremu honi hainbat zehaztapen egin zitzaizkion, bertan egin daitekeenaren eta egin ezin denaren inguruan.

Lurzoruaren Deklarazioa edo azterketa egin beharko dute lehenik, hor agertuko baitira lurzoruaren kalitate eta ezaugarriak. Emaitzaren arabera, jabeek Plan Partziala diseinatu eta aurkeztu beharko dute, eremu horren antolamendu berria zehaztuz.

Laburki azaltzeko, HAPOak zehazten dituen ezaugarri hauen barne osatu beharko da Plan Partziala:

- Kalifikazio orokorra: hirugarren sektoreko eremua (zerbitzuak)
- Erabilera onargarriak:
  - Industria-erabilera, betiere industria-garbia bezala katalogatua dagoena. Udalak ukatu dituen erabilerez gain dauden kasuetan udalbatzak erabaki beharko du garbia den edo ez.
  - Ekipamendu komunitarioa (herritarrentzat zerbitzuak).
  - Bizitegi-erabilera (Mendi-Ondo pareko eremuan, eraikigarritasunaren %15eko maximoarekin, hau da, 3.700m<sup>2</sup>, Ibarrazpiko bloke bat eta zerbitu gehiago, ideia bat egiteko, adibidez).
- Garapena: sarbiderako birbilgunea egingo da, espazio librean erdia ibaiaren ondoan, ibaitik 5 metrora ezer ez da egingo eta eraikinak gutxienez errekaren ertzetik 12 metrora egongo dira. Jarduerak D eremu akustikoaren barruan egon beharko dute.
- Plan Partzialak bete beharreko baldintzak: erakunde ugariaren galbahea pasa beharko du, hala nola, Zaldibiako Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza, Ura agentzia eta abar. Kontserbazio Bereziko Eremuan egonik ingurumen inpaktuaren ebaluazioa ere egin beharko da onartu aurretik.





Hirigintza

## Herriko plaza: eraldaketa betean

HAINBAT URTEKO IBILBIDEAREN ONDOREN, HERRIKO PLAZAN ERALDAKETA HANDIA ARI DA GAUZATZEN. LEGEALDI HONETAN HASI ETA BUKATU DIRA UDAL ERAIKIN BERRIAREN ERAIKUNTZA LANAK, ZERBITZU UGARI MARTXAN DIRELARIK BERTAN.

### UDAL ERAIKINA: ZAHARRETIK BERRIRA

2021eko uztailean amaitu ziren eraikin berria egokitzeko lanak eta orduan lekualdatu ziren zerbitzuak udaletxe zaharretik berrira. Segidan, abuztuan, eraitsi zen eraikin zaharra. Irailetik abendura bitarte egin ziren udaletxe zaharra zegoen orubea egokitzeko lanak.

Udaleko web gunean jasota dago udaletxe zaharraren historia, argazki zaharrak eta eraitsi arteko egoera



jasotzen duen bideoa, kanpotik eta barrutik bisitatzeko aukerarekin.

Plazako eraikin berriak hainbat udal zerbitzu eta bulego biltzen ditu: administrazio eta harrera orokorra, gizarte zerbitzuak, berdintasuna, hirigintza, alkatetza, udal-taldearen bulegoak, udal artxiboa, ekitaldi eta batzar aretoa, eta bilera gelak. Bake epaitegia ere bertan aurkitzen da.

Behe solairuan berriz, 2022ko otsailtik martxan den Beti Gazte taberna, Beti Gazte Elkartearen bulegoa eta erabilera anitzeko Herri Aretoa daude.

UDAL ERAIKIN ZAHARRA  
ETA BERRIA







## PLAZAREN ERALDAKETA DISEINATZEN

Legegintzaldia abiatzearekin batera eta udal eraikineko lanak bideratuta zeudenez, plazaren eraldaketa lantzeari ekin genion. “Zaldibi, plazara!” deituriko prozesuan eta Hiritik At! taldearen gidaritzarekin, herriko plaza berriaren ezaugarri eta oinarriak zehaztu ziren hainbat eragileren eta profil ezberdineko herritarren partaidetzarekin.

Pandemiak lanketa bete-betean harrapatu, 2021eko maiatzean egin behar izan zen azken emaitzaren itzulera aurkezpena.

Ondoren, 2021eko udazkenean azaldu zen plaza diseinatzeko proiektu berritzaile batean murgiltzeko asmoa, herritarrak, eragileak, adituak eta erakundeak elkarlanean jarriko zituen.


Ordura arte jasotako iritzi eta oinarrietatik abiatuz, partaidetza modu berritzaileak mahai gainean jarri eta esperimentatuz, eta plaza-tik harago, herrigintza eta espazio publikoa ikuspegi integral batetik landuz ekin genion bideari.

## ERTZETIK ERDIRA: ESPAZIOEN SORKUNTZA AUZOLANEAN

2021eko udazkenean ekimena aurkeztu eta sukaldeko lana egin ondoren, 2022ko otsailean hasi zen proiektua. Hainbat erakunde, eragile eta herritar inplikatu: EHU, Innsbruckeko arkitektura unibertsitatea, Zaldibiako Udala, Foru Aldundia, Udalbiltza, Hiritik At, Oinherri, Dunak, Juntura, adituak, herriko elkarte eta eragileak, norbanakoak, eskola...



ZALDIBIA, PLAZARA!  
PROZESUKO EMAITZA







Bidean, 3 fase:

1. Jakintzaren kolektibizazioa: dakigunetik esan eta entzun, adituen laguntzaz


Hilabete bakoitzean espazio publikoaren gaineko begirada bat: zaintzatik, feminisमतik, heziketatik, osasunetik, burujabetzatik. Gai hauetan gaur egun erreferente eta aditu diren eragileen eskutik hitzaldia eta tailerra, teoria eta praktika uztartuz, hausnarketa eta ekintza bultzatuz.



2. Udako ikastaroa eta egonaldia: arkitektura ikasleak herrian

2022ko uztailaren 9tik 16ra arkitektura topaketa eta egonaldia egin zuten Zaldibian, Austria, Alemania, Italia, Suedia eta beste herrialde batzuetatik, baita Euskal Herritik ere etorritako 40 bat ikasleak.

Astebetez, 5 esku hartze diseinatu eta gauzatu zituzten, herritarrekin lehen hartu-emanan izan zutelarik, hurrengo faseari oinarria jarri.







ERTZETIK  
ERDIRA  
PROIEKTUA



ARGAZKI  
ETA BIDEO  
BILDUMA



### 3. Plazaren diseinua: proiektu zehatza ekainerako

Udazkenetik aurrera Innsbruck-eko (Austria) fakultatean Xotil Natke herritar eta unibertsitateko ikerlari eta irakaslearen gidaritzapean Zaldibiako plazaren diseinua idazteko lanean murgildu dira arkitekturea ikasleak.

Azaroan egin zuten lehen bisita Zaldibiara, eta otsailean egingo dute bigarrena. Bukatzeko, hirugarren aldiz eta egonaldi luzeago baterako ekainean etorriko dira proiektuaren zehaztapenekin.



**[Ertzetik Erdira]**  
Espazio publikoaren

# Utopien Lantegia

**Plaza diseinua: AZDOLANEZI**

**Azaroaren 14tik - 20ra!**

Parte hartzeko aukera  
**Egunero, arratsaldez:**  
Zaldibiako udal herri aretoan!







## Hirigintza

# Udaletxearen proiektu lehiaketa

ASIER ZARRAZKIN  
Astigarraga, 1979  
Arkitekto Teknikoa

JUAN JOSÉ PERALTA  
Iruña, 1978  
Arkitektoa

ANDRÉS AYESA  
Iruña, 1978  
Arkitektoa

2017-2018an Zaldibiako udaletxearen proiektua lehiaketa-  
ra aurkeztu eta aukeratuak izan  
zintzen. Nola gogoratzen duzue  
prozesua?

Lehiaketarako deialdia oso interes-  
garria iruditu zitzaigun, ondo pla-  
nifikatutako ekintza bat baitzen,  
eta bertan herriak asko irabaziko  
zuen, batez ere urbanistikoki, pla-  
za handi hori sortuz, eskola/kultur  
etxe zaharra kendu eta udaletxea-  
ren eraikina beste kokapen hone-  
tara mugituz.

Guk proposatutako eraikinaren  
diseinuak ohiko tipologiari jarrai-  
tu zion; bolumen trinko bakarre-  
koa, lau isurialdeko teilatua, egu-  
rrezko teillatu-hegalak, harrizko  
zokaloa, proportzio bertikaleko

leihoak... hala ere, herri-arkitek-  
tura baino itxura finduagoa pro-  
posatu zen, bere burua eraikun-  
tza garaikidea dela argi eta garbi  
erakutsiz.

Proposamenen erakusketa publi-  
kora joan ginenean, askotariko di-  
seinuak harritu gintuen, batzuk  
oso iradokitzaileak iruditu zitzaiz-  
kigun, nahiz eta egia den, horieta-  
ko askok ingurua aintzat hartu ez  
zutenaren irudipena utzi zigutela.  
Nolanahi ere, ez zegoen argi nor  
izango zen irabazlea, gerora auke-  
ratutako proposamena gurea ze-  
la jakin genuenean, ilusio handia  
egin zigun, guk asmatutako erai-  
kina eraikiko zela poztasun handia  
izan zen, esfortzua ez zen alferre-  
koa izan.





Lehen deialdian ez zen eraikitzaierik aurkeztu eta hainbat egokitzapen eginda bigarrenen bai, Indenort-Provider enpresari esleitu zitzaion lana. Nolakoa izan da zuen arteko harremana?

Eraikina eraikitzeko zuzkidura ekonomikoa bidezkoa izan zen eta, Indenort enpresa ezagutzen ez genuenez, beldur pixka bat bagenuen. Obra publikoetan ez da arraroa kontratua prezio baxuan lortzen duten eraikuntza-enpresak aurkitzea eta gero obra ahalik eta gehien garestitzen saiatzea...

ez zen horrela izan, bai obra-zuzendariak eta baita arduradunak ere berea egin zuten proiektua aurrera eramateko, eta esan daiteke, orokorrean, talde ona egin genuela eta denok jakin genuela obraren beharrei erantzuna ematen.

Lanak 2019ko udazkenean hasi ziren eta segidan etorri ziren zailtasunak: prezio igoerak, material eskasia, pandemia... Nola kudeatu zen hori?

Lanak nahi baino gehiago iraun zuten, batez ere hornidura falta-

gatik eta konfinamenduengatik. Aspergarri samarra izan zen astez aste joatea eta aurrerapausorik ez zegoela ikustea...

Horretaz gain, ia amaiera aldera ordura arte bertan izandako obra-zuzendari eta arduradunak lanez aldatu ziren, obra langile berrien esku utziz, %100ean kontrolatzen ez zutenak eta bertan sortutako gaiak ezagutzen ez zituztenak. Gai askori buruz berriz hitz egitera bueltatu eta lan batzuk egin beharra zeudela azpimarratu beharra izan zen.

Eta bi urteren ondoren, 2021eko uztailean ireki zituen ateak udal-letxe berriak. Zer nabarmenduko zenukete eraikin honi dagokionez?

Lortutako emaitzarekin pozik gaude, herrian ondo egokitzen den eraikina dela iruditzen zaigu. Hizkuntza arkitektoniko modernoan erabiltzen badu ere, ez dago lekuz kanpo inguruko eraikuntzekiko, bere oinarriko izaera tradizionala baita, bertan erabiltzen diren materialak bezalaxe.

Bestalde, sortutako bolumenaren hutsuneak, ataripeak eta balkoiek bilatzen genuen adierazkortasuna lortu dutela iruditzen zaigu. Eta garrantzitsuena, herritarrentzat eraikin atsegina eta erabilgarria izango dela uste dugu.

Aipatu nahi zenuketena beste ezer balego...

Luxua izan da proiektu honetan lan egitea, zaldibiar guztiei esker eman nahi dizkiegu guran jarri duten konfiantzagatik, herria gustura geratu izana espero dugu.





# Xotil Natke Miguez

ARKITEKTURA IRAKASLE ETA IKERLARIA

Zaldibia, 1985  
ARKITEKTOA, ZURGINA ETA  
MUGIMENDU SOZIALETAKO  
KIDEA. ERTZETIK  
ERDIRA PROIEKTUAREN  
SORTZAILEA,  
“ESPASIO SORKUNTZA  
BURUJABE BATEN  
BILA” - DOKTORETZA  
TESIAREN IKERKETA  
LAN NAGUSIA DEN ERAN  
ANTOLATZAILEETAKO BAT  
NAIZELA ESANGO NUKE.

Hirigintza-arkitektura eta herritarak. Hain urruti eta hain gertu...

Seguruenik baten batek entzunak izango ditu azken urteetan geroz eta oihartzun haundiagoa duten “*el derecho a la ciudad*” bezalako esaldiak. Itzulita “*Hirirako edo Hiriarekiko eskubidea*” esan nahi duen esaera hau, 60. hamarkadan Henri Lefebvre filosofo eta sozio-

logo frantsesak idatzitako liburu baten izenburutik dator.

Denbora gutxi eskaintzen diogu, hirigintzari, lurralde antolamenduari, hauen politikari. Espazio hauek, gure egunerokotasuna, jarrerak, harremanak, izaerak, esku-bideak, umoreak eta abar luze bat sortzeko eta aldatzeko gaitasuna dute, honenbestez eta honegatik, espazioaren inguruko hausnarke-ta bultzatu beharra dago, honen inguruko eztabaida eta erabakiek izugarritzko boterea baitute.

Uztarketa hori bultzatzeko esperimentua da “Ertzetik erdira: espazio sorkuntza auzolanean” proiektua. Nondik abiatzen gara?

Arkitektura alor oso zabala izanda ere, espazioaren sorkuntza eta honen inguruko lanketa da bere eginkizun nagusia. Arkitekturaren sorkuntza, zentzu guztiekin antze-man daitekeen sorkuntza bakarra da, usaindu, ukitu, dastatu, entzun, eta ikusi egin daiteke, honetaz gain

eta lehen esan bezala, gure egunerokotasuna bai gizartean eta baita norbanako bezala espazioan igarotzen dugu, hau da arkitekturaren sorkuntzaren emaitzan.

Nahitaezkoa da etorkizuneko espazio sorkuntza burujabe bat herrigintzaz eta partehartzeaz bideratzea, hots, auzolanaz. Zaldibian sortu den “Ertzetik Erdira” proiektu, prozesu edota esperimentuak guzti hau barne bildu eta bultzatu nahi du.

Bidelagun ugari ari gara elkar-tzen erronka baten bueltan eta ikusmina ere handia da gure herritik kanpo ere. Zer du berezia proiektu honek?

Espazio publikoaz ari garenean, eta are gehiago, espazio publikoaren muina den herriko plaza batez ari garenean, kontuan izan beharreko elementu asko sortzen dira. Espazio publikoaren gaian gehiegi sakondu nahi gabe, denona den eta denok askatasunez erabiltze-





ko, egoteko eta bizitzeko eskubi-dea dugun espazioa dela argi izan behar dugu.

Prozesu hau beste batzuetatik ezberdintzen duen berezitasun nabariena, oinarritzat dituen lau zutoinak dira: Akademikoa, instituzionala, profesionala eta soziala. Proiektu hau erreal da, hau da, ikasle, irakasle, aditu eta talde guztiak lanean dabiltzan herriko plazaren diseinua etorkizunean eraikiko den benetako diseinua da eta ez ohikoa den bezala, maila akademiko eta adibide gisa gertzen den beste ikasle lan edo ikerketa lan arrunt bat.

Espektakuluaren arkitektura baino, arkitekturaren espektakulua...

Guy Debord artista eta zuzendari frantsesak “Gizartearen Ikuskizuna” izeneko film eta hausnarketari heltzen dio “espektakuluaren arkitekturak. Honek gaur egungo gizarteak eta sistema kapitalistak beharrezkoa duen ikuskizunarekin bat doan “arkitektura showa” kritikatu eta arkitekturaren sorkuntza bera ikuskizun bezala kokatu nahi du. Hau guztia ordea, beste balore guztietatik aldentzea ulertzen eta pentsatzen da; hau da, inongo ingurune, moral, gizarte, historia edo errealitatekin loturarik ez duen “arkitektura” bat da, askotan eskultura-monumentu baten ideia baino ezer gehiago izatera iritsi gabe.

Zaldibian uztailean burutu ziren arkitektura topaketak eta lantegiak hori erakutsi zuten hain zuzen ere, espazioaren sorkuntza auzolanez eta herrigintzaz burutzean ikuskizun honen parte denok izan gaitzkeela eta beraz amaierako emaitza ez dela forma huts bat soilik, sentimendu eta istorioz beterik dagoen espazio berri bat baizik.

Prozesuak, denbora, frustrazioak, ilusioak, eztabaidak, erritmoak, nekea... ez da erraza hau kudeatzea, ez?

Ilusioa honelako lana beharrezkoa dela jakiteak sortzen du. Prozesu eta proiektu hau esperimendu gisa aztertu beharra dago, honek erritmoak, denborak, tentsioak eta abar apaltzen laguntzen du eta hemen Zaldibiako Udalarekin batera lortzen ari garena zerbait oso berritzailea dela ulertzen lagundu.

Badira bai batzuetan frustrazio dexte, baina hauek gehienbat lotu edota ziurtatu ezin diren elementu eta egoerekin dute zerikusia. Oso argi esan beharra dago proiektu hau aurrera eramateko ausardiaz jokatu dela, eta azken finean, Ertzetik Erdirak arkitekturaren eta espazio sorkuntzan aurretik izan ez den iraultza bat suposatzen duela.

Proiektura etorrira, 3. fasean gaudede. Zer aterako da hemendik? Zein da azken fase honen helburua?

Helburu nagusia Zaldibiako herriko plazako diseinua da, honek ordea ez du esan nahi proiektuari loturik beste hainbat helburu ez daudenik. Jakintzaren kolektibizazioa izeneko lehen fasearen ondoren, eta udako ikastaroek eskaini zuten bigarren fasearen espektakuluaren ondoren, prozesuak azken fasearekin hasteko heldutasuna lortu du, diseinatzen hasi gaitzke.

Diseinatzea ordea, ez da askotan edo ohikoa egiten zaigun era ezagunean egingo, ezta lehiaketa formatuan ere. Diseinua bera, aurrerko prozesu, lanketa eta txostenetan oinarriturik, parte hartzean eta auzolanez egingo da, utopien lantegia izeneko lehen pausutik plaza berriko elementu batzuk eraikitzen arte.

Honela, 2022ko azaroan “utopien lantegia” burutuko zen 17 ikasleekin lehen pausu bezala, otsailean lanketa zehatzago batekin beste horrenbeste ikasle gerturatuko dira Zaldibiara herritarrekin diseinua finkatzen joateko, azkenik ekainean bi asterako etorriko dira 35 ikasle eta 5 irakasle Innsbruckeko Unibertsitatetik diseinuari azken kolpea eman eta herritarrekin San Juan bezperarako elementu zehatz batzuk eraikiak izateko.

Eta azken helmugaz gain, bidea bera ere helburu denez, zer ikasgai ateratu da bertatik? Zaldibiako esperientziak zer ekarpen egin dio hirigintza-arkitektura munduari?

Argi esanda, Zaldibiak aukera paregabea eskaini eta bide berri bat erakutsi dio arkitekturari eta espazioaren lanketaren munduari. Nork du espazioa diseinatzearen boterea? Nork du espazioa sortu eta ekoiztearen boterea? Hausnarketa sakon batetik dator proiektu hau.

Ertzetik Erdirak sortu duen sareak etorkizunean elkarrekin lanean jarraitzeko balio izatea espero dugu, ikasle, irakasle, aditu, herritar, gizarte mugimendu eta udal zein instituzioekin gaur egungo sistemak ezartzen dituen baloreak zailantzen jarritz, beste mundu eta gizarte mota bat posible egingo dituen espazioak sortzeko gaitasuna duen arkitektura bat aurrera eramateko. Zeren Henri Lefebvrek zioen bezala, mundua zein gizartea aldatu nahi baldin baditugu, hau posible egingo duten espazioak behar ditugu nahitaez. Goazen ba espazio hauek nola ekoizten diren ikastera eta sortzera.



ELKARRIZKETA  
OSORIK  
IRAKURTZEKO



## HIRIGINTZA

# LAU URTE MOTZEAN

### ONGI ETORRI ZALDIBIARA!

Mendi-Ondo eta Ostadar etxeen ondoan, Ordizira-ko errepidetik datozenek eta Larraiztik behera datozenek ikusteko moduan bi seinale berri jarri ziren. Zaldibiara eta Euskal Herrira ongi etorria ematearekin batera (Udalbiltza), beste bi mezu ere irakurtzen ditu herri-gunera datorrenak: Zaldibia UEMAKo herria dela eta euskaraz bizi garela, eta gure herriak ez duela eraso sexistarik onartzen.



### GARBIKETA ETA TXUKUNKETA LANAK

Hainbat txukunketa eta garbiketa lan burutu ziren herri-guneko kale eta lorategietan. Besteak beste, Mediku-etxe aurreko eta Karreane Kultur etxearen ondoko lorategiak berritzea, Santa Fe eta Artxan-berri kaleetako zuhaitzen inguruko bejetazioa birjartzea, barandak margotzea edota herri-guneko oinezkoentzako bideen garbiketa egitea.





## PRESA HIDRAULIKOAREN ERAISPENA

2020an Beko Errota edo Fabrika etxeari zegokion ur-aprobetxamendu baimena iraungi ondoren, URA uraren euskal agentziak Urbia – Goiz Eguzki parean zegoen presa hidraulikoa kendu zuen. Ibaiaren luzetarako konektibitatea berreskuratzea, ibilguaren ur txikietako morfologia baldintzak naturalki berreskuratzea, eta ahal den neurrian ibai-ertzak lehengoratztea zen bere helburua.



## BIDE-SEGURTASUN AZTERKETA

2019an Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak hautatutako hiru herriren artean Zaldibia izan zen bat, bide-segurtasun azterketa egiteko baliabideak eskainiz. Hala, Intra enpresak herriko bide nagusien azterketa egin zuen, erabiltzaileen segurtasuna ardatz izanik, hutsuneak identifikatu eta hobekuntzak proposatuz.

Azterketa hau oinarri izanik, hainbat lanketa egin ditu Udalak eta Foru Aldundiarekin harremanetan jarraitzen du hari dagozkion bideetan ere hobekuntzak egin daitezen.



BIDE SEGURTASUN  
AZTERKETA  
TXOSTENA



## ARGIZTAPENA INDARTUZ, SEGURTASUNA ERE BAI

Zubi-berrian eta handik hilerri alderanzko bidean, farola berriak jarri ziren bertako argiztapena hobetu asmoz. Herritar eta bizilagunengandik maiz jasotako eskaria zen.



## HIRIGINTZA PLAN OROKORRA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZAK

2019 urte hasierarekin batera sartu zen indarrean Zaldibiako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO), ia hamarkada bateko lanketa eta trami-tazioaren ondoren.

Legegintzaldi honetan, aldaketa puntual bat onar-tu da eta bigarrena tramiteetan da. Gainera, plana-ren garapena diren eraikuntza ordenantzak ere lan-du eta onartu dira herrian zeuden hainbat eskaera eta beharrei erantzuteko.

Udalan bertan edota web gunean kontsultatu dai-tezke dokumentu guztiak.



HIRIGINTZA  
PLAN  
OROKORRA



ERAIKUNTZA  
ORDENANTZAK



## ANTZOKIA ETA TOKI ALAI FRONTOIA

Herri Antzokiaren kanpoaldea eta plazako Toki-Alai pilotaleku irekia txukuntzeko lanak egin ziren 2021ean. Antzokiaren kasuan, barnealdea egokitzeko beharra nabaria da, bai hezetasun arazoak konponduz, bai beste hainbat gabeziari aurre egiteko ere.



## KALE IZENDEGI EGUNERATUA

Udal web gunean edota udaletxean bertan ikusgai eta eskura dago kale izendegi eguneratua.



## KANPAINGO ERROTA MARTXAN UDALAREN ETA JABEEN ARTEKO HITZARMENARI ETA AUZOLANARI ESKER

Hainbat urtetan geldirik egon ondoren, irina egiteko gai dira berriro Kanpain errotako harriak. Jabeek hitzarmena adostu dute Udalarekin eta proiektu bat abiatu zen horren baitan, Zaldibiako uraren indarra eta erroten historia berreskuratzeko helburuz.

Herritar talde batek hartu zuen parte Aramako Mikel Cobos gazte errotariaren ondoan konponketa lanak egiten, eta beste herritar batzuk ondare honi buruzko informazio bilketa egiten eta difusiorako bideak eta ekimenak antolatzen aritu dira: erroten ibilbidea, ate irekiak eta talo tailerra, besteak beste. 2023an bideo bat egiteko lanean murgilduta daude eta erroten eguna ospatuko da bigarrenez maiatzean.



ZALDIBIAKO  
ERROTEN  
HISTORIA





## ENERGIA BERRIZTAGARRIEN AZPIEGITURA BERRIAK

2021eko udaran eguzki energian oinarrituriko instalazio fotovoltaikoa eraiki zen haurreskolako teilatuan, udal jabetzakoak diren eta herritarren erabilerrara zuzenduta dauden 10 azpiegitura argi-indarrez auto-hornitu ahal izateko. 2022an, berriz, udaletxeko teilatuan instalazio berri bat jarri zen.



Energia berriztagarria herrian bertan sortzea dute helburu proiektu hauek, energia burujabetzaren bidean. Etxebizitza partikularretan eta baserrietan ere auto-kontsumorako instalazioak egiteko hainbat baimen eman dira eta obren zergan %95eko hoberia du Udalak kasu hauetarako.











# 6

# KOMUNIKAZIOA ETA PARTAIDETZA





# Eztitxu Mujika Mariezkurrena

KOMUNIKAZIO ETA PARTAIDETZA  
ARLOKO ARDURADUNA





“HERRITARREN ESKUBIDE ETA UDALAREN BETEBEHARRA IZATEAZ HARAGO, ZALDIBIARROK MODU SISTEMATIZATUAN ELKARRI ENTZUN ETA ERANTZUNEZ GIZARTEAREN BEHARRAK ASETZEN LAGUNDUKO DIGUN ERREMINTA ETA BIDEA DA, HERRITARTASUNA INDARTUKO DUENA ETA ZALDIBIAREN PARTE GARELA SENTIARAZIKO DIGUNA.”

Halaxe definitu genuen partaidetza kontzeptua, 2020-2021 artean udalean ordezkaritza dugun bi udal-taldeetako herri-ordezkariak eta udal-langileak Emun aholkularitzaren laguntzaz egin genuen lanketan. Ez da nolanhiko hitza partaidetza, gaur egun hala erabiltzen bada ere.

**Partaidetza herritarren eskubidea da batetik. Eta partaidetzarako bideak eskaintzea Udalaren betebeharra bestetik. Hala jasotzen du legeak.**

Ahalegin berezia egiten ari gara eskubide eta betebeharrak horiek udal funtzionamenduan sistematizatu eta finkatu daitezen: udal-langileekin egiten ari garen barne-lanketa, partaidetza eta komunikazioaz arduratzeko giza baliabideak jartzea, udal batzorde eta lan-arloen funtzionamenduan hobekuntzak egiten saiatzea, udaletik aparte herrian parte hartzeko dauden eremu ezberdinak sustatzea eta hauetan Udalak ere parte hartzea (eskola, herriko eragileak...), formakuntza jarraia, besteak beste.

*Gizartearen beharrak asetzen laguntzeko erreminta eta bidea.* Gizarte konplexuan, beharrak eta erronkak ere konplexuak dira, ertz askokoak. Ezinezkoa da eremu bakarretik konponbideak bilatzea, ezberdinen arteko elkarlana funtsezkoa da. Eta horretarako tresna eta bidea dugu partaidetza.

Ildo horretan nabarmendu nahi nuke, partaidetza ez dela helburu bat bere horretan; funtsean, aurrean ditugun erronkei aurre egiteko tresna da. Egiteko eta aritzeko modu bat.

Indibidualismoak hartara bagaramatza ere, barneratu behar dugu gehienetan ez arazoak, ez eta irtenbideak ere, ez direla norberarenak. Kolektiboan dago indarra, hori sumatzen dugu, esaterako, plazaren diseinua lantzeko egiten ari garen proiektuan.

Herritartasuna indartuko duena eta Zaldibiaren parte garela sentiaraziko diguna. Hortxe dago gakoak, azken helburua. Auzoko bidea txukundu auzotarren artean eta bazkari batekin ospatu, jaiak elkarlanean antolatu, bizilagunari konpainia egin, edota eskolako dinamiketan murgildu.

**Probatu duenak, badaki zer den hau; badaki zein den parte sentitzean mugitzen zaigun barne-poza. Biziri bere zentzua ematen diona, bizipoza.**

Bide horretan badago zer egin oraindik ere. Gizartean nagusi diren joerak, pandemiaren aurrean hartutako neurrien ondorioak, guztiona denarekiko (politikarekiko) distantzia geroz eta handiagoak, belaunaldi arteko transmisio eta harreman ezak, mundu birtualaren eta errealeko arteko desorekak... Harri ugari daude bidean.

Halere, sinisten dut badela urteetan ongarritu den lur honetan lan egiteko prest dagoen komunitate bat, denon eta ondorioz, norberaren bizipoza lortu asmoz. Lur hori gozaten eta lantzen jarraitzea dago gokigu, partaidetzaren bidez, nola ez.



PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIOA

## Mikel Urteaga Azkue

KOMUNIKAZIO ETA  
PARTAIDETZA ARLOKO  
LANGILEA

MIKEL URTEAGA AZKUE NAIZ, 1982AN BEASAINEN JAIOA. SOZIOLOGIA IKASKETAK EGIN NITUEN EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN, ETA IRAKASKUNTZA MASTERRA ONDOREN. ZALDIBIAKO UDALAN KOMUNIKAZIO ETA PARTAIDETZA ARLOKO LANAK EGITEN DITUT GOIZEZ, ETA KULTUR ETXEAN ARITZEN NAIZ ARRATSALDEZ.





### Partaidetza eta komunikazioa: bi kontzeptu, baina elkarri lotuta, ezta?

Hala da, bai. Instituzioen eta herritarren artean distantzia handia izaten da maiz, herritarren parte hartzea zailtzen duena. Nabaria da demokrazia parte hartzaile baten beharra, eta horretan berebiziko garrantzia du komunikazioak, herritarren konfidantza sustatzeko eta elkar ulertzeko behar dugun erraminta baita.

### Webgunea, kaleko kartelak, whatsapp/telegram, sare sozialak... Gaur egun kanal ugari daude udal informazioa jasotzeko. Nolakoa da kudeaketa?

Informazio andana darabilgu egun, baina herritarrak informazio hori modu egokian jaso dezan, hots, komunikazioa egokia izan dadin, ezinbestekoa da aurrez antolaketa egokia izatea. Hori hobetzeko eta informazioa modu egokian helarazteko, lanean ari gara udal sailen artean.

### Informazioa beraz badago jaso nahi duenarentzat. Nola baloratzen du hau herritarrak?

2022an udalaren zerbitzu eta komunikazio bideen inguruko inkestak zabaldu genuen herritarren artean, eta haien erantzuna garbia izan zen: aintzat hartzen dute komunikazio modu desberdinak egotea, profil ezberdineko herritarrei egokitzen direnak.

### Informazio bila Udalera edo Kultur Etxera ere jotzen dute herritarrek ez? Nola kudeatu hau?

Komunikazioak ezin du soilik digitala edo paperezkoa izan. Aurrez aurreko komunikazioa ematen denean, udal bakar eta koordinatu bezala funtzionatu behar dugu, eta ez elkarren berri ez duten sail edo arloen bidez. Horretan saiatzen gara, maiztasun jakin batekin sail arteko bilerak eginez.

### Partaidetzari dagokionez, berriz, bide ezberdinak jarri dira abian. Zer aipatuko zenuke?

Gauza bat da jarrera eta helburua zein izan behar den argi izatea, baina ekintzak dira axola dutenak. Zentzu horretan, udaletik hainbat prozesu jarri dira abian legegintzaldi honetan. Batzuk aipatzearen: Udal irudi berriaren aukeraketa, batzorde eta lan-arloen bilerak, udal zerbitzu eta komunikazio bideen inguruko inkesta, herriko jaien diseinu eta antolakuntzarako saioak, Ertzetik erdira espazio sorkuntza...

### Eta nolakoa da herritarren erantzuna?

Helburua parte hartze ugaria eta anitza izanda ere, arriskua egoten da gai edo ekintza desberdinetan jende berbera edo antzekoa aritzeko. Horrela, aurtengo jaietarako saioetan, adibidez, lanketa berezia egin da: jaiak modu ezberdinean bizi dituzten herritarren iritzi

gehiago eta beraz osoagoa izate aldera, herriko eragile eta taldeen ordezkariez gain, festen hartzaile den profil sorta zabala gonbidatu da. Oso erantzun ona izan du, gainera.

### Haur eta gaztetxoek partaidetzari garrantzia berezia eman zaio azken urteetan. Txikitatik partaidetzan heztea garrantzitsua da ez?

Haur eta gaztetxoez ari garenean, etorkizuna direla aipatu ohi da, oraina ere badirela ahaztuta. Erdigunean jarri eta subjektu aktibo izan daitezten nahi dugu. Hori, ordea, ikasi egiten da, eta horregatik saiatzen gara elkarrekin lan egiten eta erabakiak har ditzaten. “Zal-dibi, gaztetxoek kabi” egitasmoa horren adibide.

### Zergatik esango zenuke dela garrantzitsua herriari dagozkion gaietan informatuta egotea eta parte hartzea, orokorrean?

Informazioa boterea dela zioen Hobbesek, eta berekin handitu egiten da bizirauteko, hobetzeko eta erabaki zuzenak hartzeko probabilitatea. Parte hartzea, berriz, ez da lan indibiduala, taldekoa baizik, ardurak partekatzen direlarik erabakiak hartzean zein egunerokotasunean.

## KOMUNIKAZIOA ETA PARTAIDETZA

# LAU URTE MOTZEAN

### ZALDIBIAKO INFORMAZIOA, ESKURA

Herriko eta udal informazioa herritarrengana iristek duen garrantzia kontuan izanik, Zaldibiako Udalak hainbat komunikazio bide erabiltzen ditu ahalik eta jende gehienari iris dakion. Komunikazio bideen bilduma hori osatzen dute, ohiko informazio panel, atari eta buzoiez gain, Whatsapp eta Telegrameko kanalek, sare sozial ezberdinek, udalaren zein herriko taldeen webguneek eta udaletxeko atariko pantailak.



### AUZOLANARI EUTSIZ

Parte hartzeko eta parte izateko tresna baliagarria da auzolana, zeharkako onura ugari dakartzana zalan-tzarik gabe. Balio horiei probetxu atera diegu hainbat alditan, nahiz eta nahi adinako lanketa egiteko tarterik izan ez den. Hilerriaren konponketa, Depositutako bi-dearena, pandemiako ekimen ezberdinak, Olaldeko parkea edota murgilduta gauden herriko plazaren eraberritzea aipa ditzakegu, besteak beste.



ZALDIBIA  
ETA AUZOLANA





## COVID-19A ZALDIBIARREN AHOTIK

Koronabirusa gurera iritsi ondorengo hilabeteak ez ziren inorentzat errazak izan. Kanal digitalak erabiliz, herritarren bizipenak jaso eta elkarbanatu ziren, baita udalaren mezuak zabaldu ere.



COVID ETA  
ESKOLA



COVID ETA  
HAURDUNALDIA



COVID ETA  
ERIETXEAK



UDALAREN MEZUAK HERRITARREI



## HERRI BATZARRAK

Ekarpenak biltzeko, erronkak azaltzeko, erabakiak hartzeko, gune garrantzitsuak dira herri batzarrak. Legealdi honetan urtero egin da urte hasierako herri batzarra aurrekontu eta erronkak azaldu eta elkarbanatzeko, eta gai zehatzagoen inguruan ere egin dira, festei edota hondakinei buruz esaterako.



UDAL HERRI  
BATZARRAK



## UDALAK, IRUDI BERRIA

Zaldibiako herritarrek udal irudi berria hautatu zuten 2020an partaidetza prozesu baten bidez. Informazioa banatu eta prozesuarekiko adostasun zabala jaso ondoren, aurkeztutako lau irudien artean aukeratu zuten herritarrek, jendaurrean eginko kontaketa emaitza azalduz. Irudia udalaren agiri ofizialetan, udal bitartekoetan eta komunikazio euskarrietan erabiltzen da. Udaletxe berriaren horma nagusian ere ikus daiteke.



ZALDIBIAKO UDAL  
IRUDI BERRIA,  
HERRITARREN  
ERABAKIA



### ZALDIBI, GAZTETXOEN KABI

Gaztetxoek herriarekiko eta euren artean duten lotura indartzeko asmoz sortutako dinamika dugu Gaztetxoek Kabi, 2021ean Oinherriko eta Emuneko kideen laguntzarekin eta herriko gaztetxoekin egin genuen lanketaren emaitza.

Lanketa hartan gaztetxoek herria nola bizi duten jasotzen da diagnostiko batean eta asteburu-oporretan hainbat dinamika martxan jartzeko ekimena jazo zen bertatik.



GAZTETXOEN  
KABI PROZESUA  
ETA EMAITZAK



### PARTAIDETZA EREDUA LANTZEN

Zaldibiako Udala barne lanketa egiten ari da udal ordezkari politiko eta langileekin udalean partaidetza kultura sustatu eta herri parte hartzaileago baterantz urratsak ematen jarraitzeko helburuz. Emun aholkularitzak gidatutako prozesuan, jarraitu beharreko lan-ildoak zerrendatu dira eta urte luzetarako oinarria landu nahi da udalak partaidetzaren kulturaren sakontzeko duen bidean.





## ZALDIBIA ETA PARTE HARTZEA



## ZALDIBIA, HERRI HEZITZAILEA: HAURREKIN, DENONTZAT

Herri hezitzaile izateko bidea haurrekin ari gara egiten. Udalak, zuzenean parte hartu du legealdi honetan haurrek dauden guneetan. Eskolan, esaterako, ikasle ordezkarien bileretan izan da Eztitxu Mujika alkatea, eta eskola-batzorde mistoetan parte hartu du udaleko ordezkari eta langileek.



ZALDIBIA:  
HERRI  
HEZITZAILEA



2022an, bide horretan sakonduz, formakuntza saio bat egin zen Txatxilipurdiren eskutik batzorde mistoetako pertsona helduentzat haurren kulturari buruz eta haurren partaidetza nola erraztu ikasten hasteko.



## UDAL ZERBITZU, KOMUNIKAZIO ETA PARTE HARTZEKO BIDEEN INGURUKO INKESTA

Udal baliabide eta zerbitzuak herritarren beharretara egokitzeko eta hobetzen jarraitzeko asmoz, Zaldibiako Udalak inkesta bat zabaldu zuen 2021ean herritarren iritzia jasotzeko. Inkesta paperean zein online bete zitekeen, hainbat hizkuntzatan.

Bertan informazioaren komunikazio bideez, hauen balorazioaz, zerbitzuen ezagutza eta erabileraz, ordu egieiz, irisgarritasunaz, eta parte hartzearen inguruan ere galdetzen zen.



Emaitza hauek oinarri izanik Udalaren komunikazio arloa antolatzeko eta hobetzeko lanetan murgilduta gaude gaur egun, garaia iristean herritarrei aurkeztuko dieguna.

Inkestaren emaitzak osorik ikusteko:



## TELEKOMUNIKAZIO BURUJABETZARANTZ, IZARKOMEKIN

Zaldibiako Udala Euskal Herriko nazio eraikuntza eta burujabetzaren alde lan egiteko sortu zen Izarkom kooperatibako bazkide erabiltzaile izatera pasa da. Gaur egun, udaleko telefono eta internet zerbitzuak Izarkomek ematen ditu, horrek aurrezte ekonomiko nabarmena eta zerbitzua zabaltea ekarri duelarik: internet konexioa Herri Antzokira nahiz

Resti pilotalekura eraman da, eta herriko hainbat puntutan Wi-Fi gune libreak eskaini dira.



### HERRIKO JAIEN DISEINUA ELKARLANEAN

2022an herriko festak diseinatu eta antolatzeko lan-keta berezia egin zen, herritar eta eragileen partaidetza handiarekin. Festen aurretik 3 lan saio egin ziren eta ondoren balorazio bilera bat.

Udalak garrantzia eman zion egindako bideari eta lortutako emaitzei, datozen urteetarako oinarri bat jarri delarik lan egiteko moduetan.



JAIK 2022



### TEKNOLOGIA IKASTAROAK

Zaldibiako Udalak Smartphoneak eta tabletak erabiltzeko ikastaro praktikoa antolatu zuen, bertan android sistema eragilea erabiltzen irakatsi zelarik. Informazioaren zabalpenerako Udalak zabalik dituen komunikazio bideetako baten inguruko ikastaro praktikoa ere eskaini zuen: Telegram aplikazioarena, hain zuzen.



### PARTAIDETZAREN ESPERIENTZIAK: IKASTEN ETA ZABALTZEN

Zaldibiako Udaleko ordezkari eta langileek Udalaz gaindiko hainbat eremutan parte hartu dute partaidetzaren inguruan hausnartzen, esperientziak elkarbanatzen, ikasten eta erakusten. Aipatuko genituzke Foru Aldundiko partaidetza saila, Herri Hezitzaileen Sarea edota Etorkizuna Eraikiz proiektua.

Ekintza komunitarioa edota erakunde arteko kolaborazioa izan dira legealdi honetan jorratu diren gaiak, Zaldibian bertan garatu direlarik inguruan aitzindari diren jarduerak.



ZALDIBIA ETA PARTE HARTZEA







# OGASUNA ETA LANGILEGOA











**2019AN UDAL LANPOSTUEN BALORAZIO BERRITUA ONARTU ZUEN UDALBATZAK. 2003KOA ZEN AURREKO LANKETA ETA ORDUTIK FUNTZIO ETA ANTOLAKETA ALDAKETAK EMAN ZIRENEZ, LANGILEEN ESKARIARI ERANTZUNEZ EGIN ZEN BALORAZIO EGUNERAKETA.**

Honakoa da gaur egun Zaldibiako udaleko plantila organikoa:

ARLOA	LANPOSTUAREN IZENA	DEDIKAZIOA	KARRERAKO FUNTZIONARIO LANPOSTUA	HORNITZEKO ERA	Gaur egungo langilea
ADMINISTRAZIO OROKORRA	Idazkaria - kontuhartzailea	%90,10	Bai	Meritu-lehiaketa (Eusko Jaurlaritza)	Elena Zabala Zubizarreta
	Kontabilitatea, diruzaintza, dirubilketa administraria	%100	Bai	Meritu lehiaketa	Maidier Agirre Mujika
	Administrari laguntzailea	%100	Bai	Beteta	Begoña Aiestaran Amondarain
GIZARTE ZERBITZUAK	Gizarte Langilea	%80 (+ %20 Arama, Altzaga eta Gaintzan)	Bai	Meritu lehiaketa	Marijo Arrizabalaga Etxeberria
	Administrari laguntzailea	%60 (+%10 Arama, Altzaga eta Gaintzan)	Bai	Meritu lehiaketa	Mariaje Gorospe Gereñu
	Etxez etxeko laguntzailea	%56,60	Ez, lan pertsonal finkoa	Beteta	Izaskun Irastorza Arin
	Etxez etxeko laguntzailea	%56,60	Ez, lan pertsonal finkoa	Beteta	Lurdes Mendizabal Mendizabal
KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA	Kultura-kirola teknikaria	%100	Bai	Beteta	Lurdes Arteaga Mendizabal
	Administrari laguntzailea	%50	Bai	Meritu lehiaketa	Mikel Urteaga Azkue
BERDINTASUNA	Berdintasun teknikaria	%33,33	Bai	Oposizio-lehiaketa	Arantzazu Baztarrika Izagirre
KALE-LANGILEGOA	Aguazila eta Obra eta zerbitzu-burua	%100	Bai	Beteta	Jon Ander Colombo Luloaga
	Ofiziala	%100	Bai	Oposizio-lehiaketa	Laura Anaut Fuertes
	Peoi balioanitza	%100	Bai	Oposizio-lehiaketa	Imanol Ikutza Arruti
	Peoi balioanitza	%100	Ez, lan pertsonal finkoa	Beteta	Anttoni Irastorza Etxabe
	Peoi balioanitza	%100	Ez, lan pertsonal finkoa	Beteta	Karmen Laguardia Garmendia

Lan-talde honi gehitzen zaizkio programa eta lanketa zehatzen bidez egindako kontratazio ezberdinak eta praktikiak ere.



## BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO LEGEA

2021eko neguan argitaratu zuen Espainiako Gobernuak 20/2021 legea, administrazio publikoan behin-behineko langile kopurua murrizteko legea. Hau hala izanik, egoera horretan dauden lau lanpostu atera ditu Udalak deialdira, guztiak meritu-lehiaketa bidez beteko direnak. Ondoren, oposizio-lehiaketa bidez hornitu beharreko beste hiru lanpostu geratzen dira.

## LANPOSTU ETA BELAUNALDI BERRIAK:

Azken urteetan antzeman da belaunaldi berrien sarrera udal langilegoan, bereziki kale langileen artean. Datoren 10 urteren buruan, berriz, egun dauden langileen erdia jubilatuko dela aurreikusi daiteke.

2012an estatutik administrazioei jarritako erreposizio-tasak hainbat muga jarri izan ditu lanpostu berriak sortzerako garaian. Zaldibiako Udalaren kasuan, hainbat lanpostu sortzeko beharra ikusten bada ere egunerokoan, hirigintza teknikariarena izango litzateke hutsune nagusienetakoa, konponbidea jorratzen hasiak gaudelarik.

## HAUTESKUNDE SINDIKALAK

2022ko uztailaren 6an ospatu ziren hauteskunde sindikalak udaleko langileen artean. Langile laboralen artean hautagai bakarra Lurdes Arteaga Mendizabal (LAB) zen eta funtzionarioen artean Imanol Ikutza Arruti (LAB), hau ere hautagai bakarra.

Hala, bozketen emaitza kontuan izanik, biak izan ziren langileen ordezkari izendatuak.



## BARNE FUNTZIONAMENDUA, EGUNGO ERRONKEN NEURRIRA

Maiz hitz egiten da administrazio publikoak egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko dituen aukera eta gabeziei buruz eta egiteko asko dagoela gauza nabaria da.

Mundu globalizatuaren paradigma berriei erantzuteko modu, tresna eta aliantza berrien beharra sumatzen da. Askok aldatu da gizartea hamarkada gutxian, eta administrazioak aldaketa horri erantzun egin behar dio.

Zaldibiako Udalak urte luzez eutsi izan dio zuzeneko kontratazioari, bai langileen lan-baldintzak duinak izatea bermatzeko, baita herritarrei ematen zaien zerbitzua gertukoa eta kalitatezkoa izateko ere.

Bide horretan jarraitzeko, badira erronka berrien aurrean garrantzitsuak izango diren aspektu batzuk:

- Formakuntza: udal langile eta ordezkari politikoen modu sistematizatu eta antolatuan formakuntza saioak jasotzea gakoa da, bakoitzaren eguneroko praktikari lotutako gaietan eta gai orokorragoetan.
- Barne koordinazioa: funtzioen zehaztapen eta antolamendu on batekin, lana modu eraginkorragoan eta giro onean egiteaz gain, herritarrari arreta eta erantzun hobea emango zaio.
- Misioen lanketa elkarlanean: bulego eta sail itxietatik atera, eta arlo finkoen logika eraldatuz, bestelako lan-ereduak ari dira jaiotzen gaur egun. Hala, misio edo helburu batzuk adosten dira sail-eragile ezberdinen artean, eta bakoitzak beretik hori lortzeko ekintzak proposatu eta gauzatzen ditu.

Legealdi honetan, eraldaketa honen lehen urratsak ematen hasi gara, formakuntzari tarteak eskainiz, barne koordinaziorako guneak eta tresnak sortuz eta landuz, protokoloak adostuz eta martxan jarritz, edota Udala eta herriko bestelako eragileen arteko proiektu-lanketa bateratuak eginez, besteak beste.

Eraldaketa hau egunero ibiliz egin behar den bide nekeza da. Gainera, ez dugu ukatuko, bidean bilatzen dira zenbait barne erresistentzia eta oztopo ere. Etsi gabe, ordea, pausoz pauso jarraitzea dagokigu.





## UDAL LANGILEGOA ETA OGASUNA

# Udal ogasuna eta diru kontuak

**HERRI BAKOITZAK BERE AUKERA ETA MUGAK DITU, BIZI DUEN ERREALITATEAREN ARABERAKOAK. BADIRA DIRU-SARRERA UGARI DITUZTEN HERRIAK, BAINA HERRI-BIZITZA NAHI BAINO ESKASAGOA DUTENAK. BESTE BATZUEK GUZTIA DUTE MUGA ETA GABEZIA.**

Eta badira gurea bezalako herriak, diru-sarrerez mugatuak, baina daukagunaren eta eman dezakegunaren arteko orekan, gabeziak bertute bihurtzera ohituak. Apalki, lehentasunak argi izanez eta erronka berriei aurre egiteko prest.

Taula honetan jaso ditugu zenbakitan legealdi honetan onartutako aurrekontuak eta urte amaieran izandako sarrera-gastuak. Aurrekontu xeheak udal web gunean kontsulta daitezke.

UDAL AURREKONTUEI  
BURUZKO  
INFORMAZIOA



	2019	2020	2021	2022
Urte hasierako AURREKONTUA	1.897.288,31€	1.942.438,04€	1.872.840,52€	2.042.687,81€
Amaierako SARRERA-GASTUA	3.410.142,04€	3.619.601,93€	2.859.953,41€	2.540.593,00€

## UDAL ERAIKIN BERRIA

Azken hamarkada honetan Zaldibiako Udalak garatu duen proiektu eta inbertsio handiena izan da plazako eraikin berria. 2014ko partaidetza prozesuan zehaztu zen udaletxea eta kultur etxe zaharra (eskola zaharrak) ordezkaturiko zituen eraikin bat egitearen ideia, ondorengo urteetan garatu zena.

2019ko maiatzean egin zen obraren esleipena eta irailean hasi ziren lanak. Milioi bat euroko maileguarekin eta Udalaren gerakinarekin gauzatu eta ordaindu da guztia. Aipatu behar da, obraren aurrekontua eta kostua parekoak izan direla, ez dela kostu-handitzerik egon.

KONTZEPTUA	KOSTUA	JASOTAKOA
Udal Eraikin berriko proiektua eta obra zuzendaritza	99.000€	
Udal Eraikin berriaren lanak	1.498.975,82€	
Eraikin berriko altzariak, ikus-entzunezkoak, garbiketa hornidurak eta tabernako tresna, aparatu eta altzariak	171.935,34€	
Diru-laguntza Leader funtsa		200.000€
Diru-laguntza Foru Aldundia		113.847,26€



Eskaintza ezberdinak jasota, Rural Kutxarekin adostu zen azkenean milioi bat euroko mailegua, 15 urtez ordaintzeko malgutasunarekin eta interesak Euriborra + %0,61 portzentaian. Urtean 71.000€ bideratzen dira orduz goertzik maileguaren amortizaziora eta interesak Euriborraren arabera ordaindu dira.

## PANDEMIA ETA INFLAZIOA

Legealdi honetan eragin handia izan dute Covid-19aren pandemiak alde batetik, eta jarraian etorri den bizitzaren eta baliabideen garestitze orokorrak bestetik.

Pandemiak hankaz gora jarri zituen, batez ere 2020ko aurrekontuak: proiektu asko geratu edo atzeratu ziren, behar eta gastu berriei erantzuteko. Diru-bilketan ere neurri bereziak hartu ziren herritarren eta aktibitateen egoerak xamurtu asmoz.

Gainera, Foru Aldundiak udalen foru-funtsa %20 murriztea erabaki zuen aldebakarrez, horrek diru-sarreretan eragin nabaria ekarri zuelarik. Udalbatzak gehien-geoz Foru Aldundiari eskatu zion erabakia berraztertu zezan eta udalekin adostasuna bilatu zezan.

Pandemiaren jarraian, berriz, prezioen gorakada etorri zen, oraindik ere gorakadak jarraitzen duelarik. Argia, gasa, erregaia, produktuak, zerbitzuak, lanak... guztia gora doa eta horrek nabarmen igoarazi du ohiko gastuen poltsa, inbertsioen atalaren kaltetan.



## DIRU-LAGUNTZAK: SAIATZEA, EZINBESTEKOA

Zain geratu gabe, bila joatearen garrantzia txikitatik irakatsi izan digute. Ate ugari jo dugu lau urteotan, batzuk ireki zaizkigularik eta beste batzuk ez. Covid-19aren eraginez ohiko diru-laguntza deialdi asko eten egin zituzten. Lerro berri batzuk atera ziren ondoren, eta azken urtean Europako funtsen harira aukera gehiago ireki dira.

Herriaren tamaina dela eta, laguntza deialdi askok ez diote gure errealitateari erantzuten, eta laguntzen tramitazio eta kudeaketa ere korapilatsua izan ohi da. Harelere, proiektuak landuta eta prest izatea, eta ateak jozteak izan da helburuetako bat, emaitza onak jaso izan ditugularik. Jarraian lortu diren hainbat diru-laguntza:

URTEA	ERAKUNDEA	PROIEKTUA	LAGUNTZA
2019	EUSKO JAURLARITZA	UDALAGUNTZA: LARDIZABAL ESKOLAN HOBEKUNTZAK	22.074,49 €
2019	FORU ALDUNDIA	LANDA BIDEAK: URSUGOENA, OLAKOSAI	63.159,73 €
2020	EUSKO JAURLARITZA	BASO HABITATEN LEHENGORATZE LANAK	15.841,25 €
2020	EUSKO JAURLARITZA	PLAZA BIRMOLDATZEKO PROZESUA	8.000,00 €
2020	EUSKO JAURLARITZA	LEADER PROGRAMA: UDAL ERAIKIN BERRIKO BEHEKO SOLAIRUA	200.000,00 €
2020	FORU ALDUNDIA	EURI JASAK ERAGINDAKO KALTEAK: ARRU,ZUBIALDE,AIERDI,ALOTZPE, ARKAKA BIDEETAN	32.963,80 €
2020	FORU ALDUNDIA	PARTAIDETZA + IRUDI KORPORATIBOA	10.278,08 €
2021	EUSKO JAURLARITZA	BASO HABITATEN LEHENGORATZE LANAK	11.377,20 €
2021	FORU ALDUNDIA	ERABILERA ANITZEKO GELAREN PROIEKTUA	14.648,74 €
2021	FORU ALDUNDIA	BETI GAZTE OSTATUA OSATZEKO LAGUNTZA	27.398,52 €
2021	FORU ALDUNDIA	NERABEAK ETA HERRIAREKIKO LOTURA	5.212,68 €
2021	FORU ALDUNDIA	LANDA BIDEAK: ZELAA-NATZAL, ERNAITZA	23.693,07 €
2021	FORU ALDUNDIA	ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA: HAURRESKOLAKO PLAKAK	12.510,33 €





URTEA	ERAKUNDEA	PROIEKTUA	LAGUNTZA
2021	FORU ALDUNDIA	KIROL INSTALAZIOETAN OBRAK EGITEKO: TOKI-ALAI PILOTALEKUA	9.209,00 €
2022	EUSKO JAURLARITZA	BASO HABITATEN LEHENGORATZE LANAK	15.841,24 €
2022	FORU ALDUNDIA	GARAPEN JASANGARRIKO JARDUERAK: ZUHAITZ LANDAKETAK	3.078,56 €
2022	EUSKO JAURLARITZA	LEADER PROGRAMA: HAURRESKOLAN EGUZKI PLAKAK	26.705,19 €
2022	FORU ALDUNDIA	EKONOMIA ZIRKULARREKO DIRULAGUNTZA	29.370,55 €
2022	FORU ALDUNDIA	LANDA BIDEAK: MIRANDA BIDEA	16.188,36 €
2022	FORU ALDUNDIA	ESPAZIOEN PRODUKZIOA AUZOLANEAN	19.000,00 €
2022	FORU ALDUNDIA	ELKARZAINDUZ: ZAINZA ESKUBIDE KOLEKTIBORANTZ PROIEKTUA	7.110,00 €
2022	FORU ALDUNDIA	UDALEAN HERRITARREN PARTAIDETZA SISTEMA FINKATZEKO PROIEKTUA	5.947,85 €
2022	FORU ALDUNDIA	ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA: UDALETXEKO PLAKAK	15.194,10 €
2022	EUSKO JAURLARITZA	ENERGIA AUDITORETZA UDAL ERAIKIN ETA KALE ARGITERIAN	11.960,00 €
2022	EUSKO JAURLARITZA	INDARKERIA SEXISTAREN ARLOKO ERAKUNDE ARTEKO PROTOKOLOA	13.224,82 €
2022	FORU ALDUNDIA	BIZIKLETAK GARBITU, KONPONDU ETA APARKATZEKO BALIABIDEAK	3.030,69 €
2022	EUSKO JAURLARITZA	EKONOMIA ZIRKULARRA: AUZO-KONPOSTA PROIEKTUA	46.325,79 €
2022	EUSKO JAURLARITZA	LEADER PROGRAMA: UDALETXEAN EGUZKI PLAKAK	3.130,55 €
2022	FORU ALDUNDIA	LANDA HERRIAK: KIMUENE KULTURGUNEKO AZKEN FASEA	44.729,56 €
2022	FORU ALDUNDIA	KIROL EKIPAMENDUAK: RESTI ARGITERIA ETA PIZTE SISTEMA	7.374,00 €
2023	EUSKO JAURLARITZA	LEADER: KIMUENE KULTURGUNEKO AZKEN FASEA	22.774,80 €
2023	FORU ALDUNDIA	ESPAZIOEN PRODUKZIOA AUZOLANEAN	14.292,76 €
2023	EUSKO JAURLARITZA	LEADER: KIMUENE KULTURGUNEKO AZKEN FASEA	12.263,36 €
2023	EUSKO JAURLARITZA	LEADER PROGRAMA: UDALETXEAN EGUZKI PLAKAK	9.391,65 €
2023	EUSKO JAURLARITZA	MOVES III: KALE-LANETARAKO IBILGAILU ELEKTRIKOA	7.000,00 €
2023	EUSKO JAURLARITZA	EKONOMIA ZIRKULARRA: AUZO-KONPOSTA PROIEKTUA	10.732,00 €
2023	EUSKO JAURLARITZA	EKONOMIA ZIRKULARRA: BERRERABILPENA SUSTATZEKO PROIEKTUA	5.329,50 €
2023	EUSKO JAURLARITZA	BASO HABITATAK LEHENGORATZEKO PROIEKTUA	62.187,97 €
2023	EUSKO JAURLARITZA	MUGIKORTASUN JASANGARRIA: HILERRI AURREKO APARKALEKU DISUASORIOA	80.000,00 €
		<b>GUZTIRA</b>	<b>948.550,19 €</b>

## ERRONKAK ETA AURREKONTUAK, TXANPON BERAREN BI ALDE

Udalak esku artean dituen erronken ispilu dira aurrekontuak eta era berean, aurrekontuek erronka batzuk gordetzen dituzte bere atzean, zenbakiez harago.

Legealdi honetan, urtero udal herri batzarra deitu da abendu-urtarrila aldean urte berriko erronkei eta aurrekontuei buruzko azalpenak eman eta iritzi-ekarpenak jasotzeko. Udal webgunean aurki daiteke gai horri buruzko informazio osoa.



UDAL AURREKONTUEI  
BURUZKO  
INFORMAZIOA



## UDAL LANGILEGOA ETA OGASUNA

# Elena Zabala Zubizarreta

AZKOITIAN JAIOLA, ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA  
ZALDIBIAKO UDALEKO IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA



**Zaldibia-Gaintzan 2009tik, aurretik ere toki-administrazioan lan egin. Nola aldatu da udaletxeko jarduna urte guzti hauetan?**

Zaldibian baino lehenago Azkoitian egin nuen lan, idazkari lanetan. Azkoitiak 10.000 biztanle baino gehiago ditu eta gaitasun nazionalako lanpostua sarrerako kategorikoa da, hain zuzen idazkaria alde batetik eta kontu-hartzailea bestetik.

Lanek ez daukate zer ikusirik. Zaldibia-Gaintzako lanek askoz ere eremu zabalagoa hartzen dute, kontuhartzailetza ere barruan baitaude.

90. hamarkadan Udala urrutiko instituzioa zen, hamarkada horretan aldaketa handia izan zen eta Udala herritarrengana hurbildu zen. Horrenbeste hurbildu da herritarrengana, edozein eragozpen edo arazo konpontzeko bera dela erreferentziarako erakundea.

XIX. mendearen hasieran herritarrak udaletxera etorri izan dira edozein arazori aurre egiteko eskatuz, eta askotan Udalak bere esku bazegoen lagundu egin die, bere eskumena ez dela esan gabe. Orain, berriz, Udalak du ardura gauza guztiak konpontzeko, eta ardurak eskatzen dira idatziz.

Honekin esan nahi dut lehenago urrutiko erakundea eta errespetoa merezi zuen erakunde bat izatetik, ardura zuzena duen erakunde bat izatera pasa dela. Adibide bezala, lehenago erregutu egiten zen Udalaren aurrean, gerora eskatu egiten zen eta orain exijitu egiten da.

**Lege berri ugari ere izan dira tartean, esanguratsuena agian 2016ko Udalen Legea izan daiteke. Nola doa lege honen garapena?**

Udalen lege berria garrantzia handikoa izan da, baina niretzat aldaketa edo iraultza handia ekartzen ari direnak 39 eta 40/2015 legeak dira, lege hauek digitalizaziora bultzatzen gaituztelako. Nik aldaketa handiena hor nabaritu dut.

**Langilegoari dagokionez ere, izan da lege-aldaketarik: erreposizio-tasa, behin-behinekotasuna murrizteko legea, lan erreforma... Zein eragin izan dute udaletan?**

Langilegoaren munduan ere aldaketa handiak izan dira. Lehen langile guztiak laboralak izan behar zuten,

kaleratzea ahalmentzen zuelako horrek, baina gerora denborak esan du berdin dela laborala izan zein funtzionario izan, udaletatik inor ez dela kaleratzen. Bestalde, langile publikoen estatutua onartu zen 2015ean eta gauzak asko argitu ditu, behintzat eskubide eta betebeharrak batu ditu.

Bestalde, 2021eko egonkortze legea eta erreforma laborala administrazioan egon den behin-behinekotasuna murriztea datoz, behintzat hainbat epe ezartzen ditu eta ez badira betetzen zigorrak jartzen ditu. Zaldibiako Udalean ere eragin du zuzen-zuzenean, bai behin-behinekotasunak egonkortzeko eta bai berriak kontratatzerako orduan.

**Diru-kontuen egoerari dagokionez, zer aipatuko zenuke Zaldibiako Udalaren ogasun egoeraz?**

Zaldibiako Udaleko ogasuna osasuntsua da, baina Foru funtsaren menpekotasun handia du. Gastu orokor handia eta inbertsionarako gutxi gelditzen da, beraz zerbait egiteko beti diru-laguntzen menpe gaude.

**Orokorrean aipatu mesedez herritarrenganako zerbitzuan zure iritziz mantendu beharreko zerbait, eta hobetu beharreko beste zerbait.**

Zaldibian zerbitzu guztiak mantendu behar dira, kasu batzuetan antolaketa eta kudeaketa hobetu behar da. Hain zuzen, hondakinen bilketa eta kudeaketan hainbat konpost-gune jarri dira, baina ez da antolatu konpost-gune hauen kudeaketa... Hauen kudeaketak ia udal langile guztiak eragiten digu, baina ez da inplementazio plangintzarik egin.





# 8

## UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEETAN EGINDAKO JARDUNA

# UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK

ZALDIBIAKO UDALAK HONAKO ERAKUNDEETAN DAUKA ORDEZKARITZA:

UDALBILTZA Euskal Herriko Udal eta udal hautetsien batzarra



Enirio-Aralar mankomunitatea



UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea



GOIMEN Landa Garapen Elkarte



GOIEKI



Tolosako Hiltegia



GOITUR



Euskal Fundoa



SASIETA mankomunitatea



Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa





IKASLAN Fundazioa



HOBEBE Elkartea



Gipuzkoako Ur kontsorzioa



IZARKOM



Goierri Beheko Industriagunea



GOIENER



LARDIZABAL ikastetxeko kontseilua eta batzorde mistoak



BIZIOLA



EUDEL



HERRI HEZITZAILEEN SAREA



Baso Elkartea



BETI GAZTE Taberna eta Elkartea



Haurreskolak partzuergoa



Udal Langilegoa





ZALDIBIAKO  
UDALA





# TALDE POLITIKOAK

2019-2023 LEGEGINTZALDIA

## EH Bilduren udal-taldea



**AMAITZEAR DA LAU URTEKO BESTE ZIKLO BAT. EH BILDUREN UDAL-TALDEA OSATU DUGUNOK, BIDE HONEN INGURUKO IRAKURKETA ETA BALANTZEA EGIN DITUGU, ATZERA ETA AURRERA ERE BEGIRADA JOAZ.**

Bestelako herri bat dugu amets, bestelako Euskal Herri batean. Arrazoi horiek bultzatuta eta herriari eman diezaiokeguna eskaintzeko borondate osoarekin heldu genion duela lau urte herri ordezkari izateko ardurari.

EH Bilduren proiektuaren baitan eman genuen pausoa, Euskal Herria ezkerretik eta burujabetzatik erakitze koalizio forma, alderdi egitura eta mugimendu izaera dituen proiektuaren baitan. 2011n hasitako ibilbidearen hirugarren kate-begia izan gara jarraian Zaldibiako Udaleko gobernu arduetan.

“Herriak balia gaitzala”, horixe izan zen gure aurkezpen leloa eta horrekin batera landu eta

azaldu genituen lau urte hauetan udalgintzatik bultzatu nahi genituen proiektuak. Gure bide-orri izan dira urteotan eta balantze ona egiten dugu oro har, helburu gehienak burutzea edo abian jaritzea lortu dugulako.

Ezin ukatu, ordea, laurteko berezia izan ez denik. Plangintza eta aurreikuspen oro hankaz gora botatzen pandemiak eta lehentasun berriak sortu. Ondorenean, kalte eta aje ugari antzeman daitezke, bidelagun txarrak ditugunak, bistan denez. Intentsitate handiko lau urte izan dira, zalantzarik gabe, lan eta borondate handia eskatu dutenak.

### **HERRIGINTZAN, PAUSOKA AURRERA**

Batzuentzat helburu badira ere, EH Bildurentzat tresna dira udal-letxeak. Lanerako beste eremu bat gehiago dira, Euskal Herrian burujabetza eta ezkerreko politikak bultzatzeko. Amaitzear den legealdi honetan eraldaketarako urrats ugari eta sendoak eman direla uste dugu, elkarlana oinarri izanik.

Herri txiki bizia, egungo gizarte ereduak bazterrean dituen kolektiboak eta haien beharrak erdigunera ekartzen ari dena, eta hasi eta buka bizitza duin bat garatzeko bideak sortzen eta irekitzen doana. Horixe dugu erronka.

Ez gara helmugaraino iritsi, noski. Denon artean lan asko dago oraindik egiteko, baina horretarako ilusio eta grina ez zaizkigu galdu, ez dizkigute kendu. Urte urte erakusten gatoz esaten duguna egiten dugula, eta egiten duguna esaten dugula, eta horretan jarraitzeko konpromiso osoa dugu.

Horren berme nagusia gure komunitate zabala da. Mila saltsa eta dinamiketan murgiltzen diren herritarrak, egunerokotasunean eraldaketa txikiak elikatzen ari direnak. Bizi ditugun garai hauetan eta indibidualismoaren itzal handiaren pean, egia da asko moteldu zaigula taupada. Ez da gelditu, ordea, eta antolaketa eguneratuz, gure artean saretuz eta elkar zainduz bizkortzeko lanetan ere murgilduta gaude.

Tarte hau baliatu nahi dugu lau urte hauetan eskuz esku laguntzen aritu zaizkigun herritar horiei guztiei eskerrak emateko. Zuek eman diozue zentzua guk egindako lanari.

### **EAJ-PNV UDAL-TALDEA: BAGAUE, BAINA EZ GAUDE**

Hitz gutxitan esateko, horixe izan da EAJ-PNVren jokaera legealdi honetan. Hor daudela esan bai, baina unea iristean apenas etorri dira. Gutxi-gutxieneko presentzia izan dute osoko bilkuretan eta hirigintza batzordean bereziki, eta lanketa zehatzen batean gonbitea onartu badute ere, gehienetan ezezkoa izan da erantzuna.

Leporatu izan digute beraien bizkar aritu garelara, ez ditugula ain-





tzat hartu. Errua besteei botatzea izaten da errazena. Egunerokoan erakutsi digutena, ordea, beste zerbait da. Gure esku eta belarriak zabalik egon arren, lanketa eta ekarpenik egiteko lanik hartu ez duen oposizioa izan dugu aurrean, herriaren eta herritarren interesaren gainera bere alderdiarenak jarri izan dituen eta bidea egiten ari den herri honekin batera inplikatu eta konektatu ez dena.

Lau urteko honek hori eman du, ikusteko dago datorrenak zer emango duen. EH Bilduren udal-taldeak beti izango du elkarlanerako prestutasuna horretara datorrenarentzat.

## EUSKAL HERRIA: AUKERA-LEIHOAK IREKIZ

Garai zailak bizi izan ditugu urte hauetan eta Euskal Herriko errealitatea urrun dago ezkerreko independentistok amesten dugun Euskal Herriatik. Munduaren abiadura azkarrak, bata bestearen atzetik datozen krisiek, egunerokotasunaren zurrunbiloak sarri etsipenera eta jarrera ezkorretara eramaten gaituzte.

Komeni da, ordea, bailara zulotik muino edo gailurren batera igotzea, begirada altxatzea eta denboran luzeagoak diren irakurketak egitea. Espainiar Estatu zapaltzailearen zutabe izan diren monarkia, bi-partidismoa edota egituraketa judiziala ataka-larrian daude. Nafarroan eskuina zatitua dago eta EH Bilduren

indar eta eragina gorantza doaz. Ipar Euskal Herrian EH Bai irekitzen ari den bidea eta Euskal Elkargoan biltzen ari diren indarrak.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan PNV-PSE aliantzak geroz eta hutsune handiagoak ditu eta “kudeatzeko gaitasuna” omen duten horiek, ikusten ari gara zenbat gabezia dituzten: inora ez doan abiadura handiko tren, ustelkeria eta korrupzio kasuak (azaldu direnak eta azaltzeko daudenak), hezkuntzan eta osasun-sisteman urtetan elikatu duten kudeaketa-eredu desorekatua eta gabeziaz bete, herri bezala dugun energia eta elikadura menpekotasun ikaragarria, atzeratutako hizkuntza politikak eta komunikabide publikoak...

Eta panorama honetan, EH Bildu herriz herri eta erakunde zabala-goetan aukera-leihoak irekitzen ari da. Poliki, baina etengabe, horma zaharrei arrakala txikiak

irekiaz zintzelari emandako mailu kolpe bakoitzean. Arrakalak irekiz, aukerak sortuz.

Legealdi honen barruan esan liteke amaituko dela inoiz existitu behar ez zuen dispertsio-politika ankerra. Ea hurrengo zikloa den euskal preso eta iheslari guztiak etxera ekarriko dituguna.

Eta etengabeko borroka eta itxaropenaren argi hori beste gaietara ere zabaldu behar dugu. Argitu behar ditugu gure barrenak eta ingurukoak, gure herria eraikitze lan kolektibo txikiak martxan diran arloz arlo. Geroz eta gehiago izan behar gara, lotu herriari!

EH Bilduren udal-taldea

ZALDIBIAKO  
EH BILDUREN  
ATARIA



# EAJ-PNV udal-taldea

Zaldibiako EAJ-PNV udal-taldeari eskaini zaigu 2019-2023 legealdiko laburpen liburuan gure tarteak betetzeko aukera, baina ekarpenik ez egitea erabaki dugula adierazten dugu arrazoi honengatik:

Buelta asko eman ondoren, balorazio honetan parte ez hartzea erabaki dugu. Gure ustez, legealdiaren balorazioa egiteko eskuak zabaltea, oposizioari bizkar emanda legealdi osoa pasa eta gero, ekarpen bakar bat kontuan hartu gabe, ez da zintzoa eta hauteskunde estetikari erantzuten diola iruditzen zaigu.

Balorazioak egunerokoan behar du, hori da herrigintza. Bestea, hutsala...

Zaldibiako EAJ- PNV Udal Taldea




ZALDIBIAKO  
EAJ-PNVREN  
ATARIA



# AMAIERAKO HITZA

# ZALDIBIA Herri Bizia





Herriak ta hizkuntzak  
zuten norantzari  
gai gehio lotu zaio  
lehengo ardatzari  
ta munduak hartu dun  
itxura latzari  
aurre egiteko, beraz,  
laguna altxa hadi!  
bultza hainbat borroka  
ederren martxari  
kontrapisu eginez  
eskuin balantzari  
txapela bete indar  
mingaina dantzari  
borroka irabazteko  
desesperantzari.

*Maialen Lujanbio Zugasti*

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

Amaierako agurreko bertsoa



ZALDIBIAKO  
UDALA